

ARGIA

OGETA

PELLO YABEN

«Nafarroako EAJk mafiosoen jokaera dauka EArekiko»

EUSKARA


Udaletako Euskara Zerbitzuen egungo aldiabide eta gabeziak

MUSIKAREN EGUNA

«Hizkuntz gutxituetako kantariekin Urdiñarben zita»

ANTZERKIA

uskal txotxongiloen alarrezko ezteiak»



«RETEGIK EUGI ZEHARO ALDATU DU»



BEREZIA MUSIKA-TRESNAK: ERROETATIK ETORKIZUNERA





ARGIA

Harpidedunen
Elkartea

ESKAITZA BEREZIA HARPIDEDUNENTZA

- ✓ Kalean baino ^{askoz} merkeago
- ✓ Bidalketa gasturik gabe



Golden Apple Quartet.



Bizkar Hezurra
Beldurraren Kultura.



Joselu Anayak
Kanta Onenak




Txakun & Lau Behi
Merke & Ona



Ekonomia Ulertzen Hasteko
Gaiak



Gizakiaren Tximino-Jatorria
Gaiak




Elikadura eta Osasuna
Gaiak



Gazteak eta Sexualitatea
Gaiak



Euskal Historiaren 15 Gertaera Nagusi
Gaiak



Ametsen Interpretazioa
Gaiak



Jugoslavia eta Ekialdeko Beste Herriak
Gaiak



Juan Ignacio Abrisketa
Antarktida



F. Letamendia "Ortiz"
Nazionalismoa eta beste Ideologia Garaikide



Jurgi Kintana / Xabier Kintana
Judu herriaren ibilbide luzea



Isaac Asimov
Oinarriko ehun galdera zientziari buruz




Alizia Stürtze / Pelai Pages i Blanch
Independentzia



Joseba Sarrionandia
Gartzelako Poemak



Xabier Montoia
Emakume Biboteduna




Jon Alonso
Katebegi Galdua




Abelin Linazizoro
Axun



Koldo Izagirre
Ez duk erraza, konpai!



Patri Urkizu
Zoazte hemendik!



Xabier Montoia
Non Dago Stalin?



Itxaro Borda
Bizi nizano munduan



Harkaitz Cano
Beluna Jazz

* Hautetaz gain, GAIK eta SUSA argitaletxeen eta IZ disketearen katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskaiguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzue.

ESKARI ORRIA

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA

TFNOA

HERRIALDEA

ZBKIA.

SOLAIRUA

ESKUA

HERRIA

POSTA KODEA

HARPIDETZA ZBKIA.

KONTUTIK

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK

BANKU EDO AURREZKI KUTXA

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

SINADURA

HARPIDETZA ZBKIA.

SUKURTSAL HELBIDEA

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia

SINADURA


- 6. Politika kronika. LUTXI FOURCADE.
- 8. Pello Yaben, Nafarroako EAko antolaketa idazkaria: «Nafarroan EAjk mafiosoen jokaera dauka Eusko Alkartasunarekiko». MIKEL JAUREGI.
- 12. Ekialdeko Timor, munduak ahantzia duen genozidioa. XABIER ARANBURU.
- 14. Arrasate aldeko 20 bat emakumek sortu zuten lantegia 1969an; 200dik gora dira egun. Kanpoko merkatuen bila «Auzo Lagun» kooperatiba. XABIER ARANBURU.
- 17. Sifoigile, errotari, saskigile... bakanak, eraberritu edo hiltzear diren lanbideetan. JON ODRIOZOLA.
- 20. Euskara Zerbitzuak Euskal Herrian: egungo baliabideak eta gabezia. IDOIA TORREGARAI.
- 22. Joxe Mari Palacios «Ogeta»: «Retegik Eugi zeharo aldatu du: pilotari berri bat da, amorrua kutsatu dio». MARTIN AGIRRE.
- 27. MUSIKA berezia. Instrumentuak: Erroetatik etorkizunera. IXIAR ROZAS, ANDONI URBISTONDO eta ARRITXU ZELAIA.
- 44. Kultura kronika. PATXI SARRIEGI.
- 47. Hizkuntz gutxituetako kantarien bilgune izango da Urdiñarben egingo den Musikaren Eguna. Oholtzaren geriza ttipientzat. MAITE ARTOLA
- 50. 25 urte bete ditu Enkarni Genua eta Manolo Gomezen Txotxongilo taldeak. Euskal oihaletan etenik ez txotxongiloen hariak. JOSU ARANBERRI.
- 53. Argitalpenak. JOSU ARANBERRI.
- 48. Irrati-telebista. ARRITXU ZELAIA.
- 52. Aukeran. MIKEL JAUREGI.
- 56. Denborapasa.
- 58. Jorge de Oteiza, «ora pro nobis». JUAN ANTONIO URBELTZ.



JOXE MARI PALACIOS:


Gasteizen egin dugu bat «Ogeta»-rekin, bere izen bereko frontoian. Mintzagai izan ditugu 50. hamarkadako pilotarien jarduteko erak, garai hartako euskal pilotarien egoera... baina ez dugu alde batetara utzi egungo pilotaren aktualitatea. Igande honetako pilota saioaz ere jardun dugu, beraz. Retegik aldatu egin omen du Eugi./22

POLITIKA: Urte t'erdi eskas darama EAn Pello Yabenek, eta jada, Nafarroako EAren zerrendaburua izan da Kongresurako. Egun EAko antolaketa idazkaria da. EAK Iruñeko Gaztelu Plazan duen egoitzan elkartu gara, Nafarroako Gobernuaz, abertzaletasunaz eta bestelakoetaz mintzatzeko. /8



«TXOTXONGILO»K ZILARREZKO EZTEIAK

Ezustean hasi, kasualitatez -beraiek diotenez- eta ohartzeko zilarrezko ezteiak bete ditu Enkarni Genua eta Manolo Gomezen taldeak. Aspaldiko garaiak gogoratu, gaurkoaz hitz egin arazi diegu. Euskal txotxongilo produkzioak ez du aitzakiarik; dagoen azpiegitura urriaz dira kexu./50




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria




Gipuzkoako Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua

Argitarpen honen edizioak laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:



ITXURA BAINO GEHIAGO



ANTZA

Maisuen Eskutik
soluzio grafikoak

Super-kuartela, zertarako?

«TXAPEL-GORRIAK» aspalditik dabilta gure artean. Hasieran Astilleruko parean kokatu zuten 'basetxoa', herritarren kontrol polizia-lari arazorik gabe ekiteko. Drogaren arazoa aitzaki lez hartu eta hainbat gazte hasi ziren pasatzen beraien eskuetatik. Ondarrutarren fitxaketa indiskriminatuari hasiera emonaz.

Gerora, intsumisoen, Gaztetxeoen eta arazo sozialetan zein politikoetan zebiltzanen txanda. Ezker abertzaleko erakundeek eta zenbait herritarrek hainbatetan ikusi dute beraiek nola ulertzen duten gure segurtasunaren zaintza. Guztiek izan dute arazoren bat beraiekin. Zergatiak (aitzakiak)? Kartelak jartzea, megafonia pasatzea, manifestazioak egitea, salaketak kaleratzea, lanpostuak defenditzea... Hots, askatasun adierazpen eskubidea praktikan jartzea.

Astillerutik Zaldupe futbol-zelaiaren parera. Bertan, «Fort Apatxe» eraiki zuten eta beraiek pistoleroak bezala herrian. Geroztik, «kontuz nirekin, ezagutzen zaitut!» errepikatzen dute. Kamerak erabiltzeko ohitura ere orduan hartu zuten. Filmeen protagonistak? Ondarrutarrok! Hollywoodeko artistak bezain ospetsuak bihurtu ginen. Azken boladan, ehundaka lagunei espaitegira aurkezteko zitazioak bidaltzeari ekin diote, mugitzen direnak kriminalizatu eta kikitzeko asmoz. Oker dabilta!

Biolentzia, prepotentzia, intolerantzia, errepresio nazkagarriena, Imanol «Porru»-ren heriotza, eta hainbeste portaera ezgizatiarren lekuko ez bagina izan, beraien 'despliega' txiste eskas bat bezala hartuko genuke. Hauek etortzean, besteak («Txapel okerrak») joan egingo zirela esan zutenen parekoa. Udalean honetaz erabakiren bat

hartua da aspaldi, noizbait burutzekotan edo. Udal hauteskundeetan, Kultur Etxea bertan jartzea agindu zuenik ere izan zen, beste txiste eskas bat. Zoritxarrez 'gure polizia integralak' umorearentzako toki gutxi uzten du. Gehiegitan bizi izan dugu mesprezua, inpotentzia, mina, beldurra... eta gainera, beraien inpunitea. Egoera indartu eta gogortuko duen «super-kuartela» ezin dugu onartu. Zenbat diru gastatu dute aterpe anti-atomikoa ematen duen eraikin horretan? Eta barruko horniduran? Nork eta zergaitik erabaki du Ondarroak halakorik behar duela? Herriko agintarien eta herritarren iritzirik eskatu al da? Zergaitik ez dute izan lehtasuna Ondarroan beharrezkoak diren beste azpiegiturek, kulturalek kasu?

Gure segurtasunerako ari direla lanean diote, barkatzeko eragozpenak. Baina ez da egia, gu zaintzeko (kontrolatzeko) eta izutzeko ordaintzen diete. Betikoen interesak txanpon batzuren truke amorrubiz defendatzen dituzte. Berdin dio nor jipoitu edo mehatxatu, arrazoirik baduen ala ez. «*Nik aginduak betetzen ditut*», beraien erantzuna. Hori da polizia-aren eginkizuna, aginduak (legeak) betearaztea. Morroi eta neskameen gizarte lortzea. Inork ez dezala ezer kolokan jarri. Kritika, kontrako iritzia eta ekin-tzak ezabatu. Gizalegezkoa den edo ez beste kontu bat da. Zertarako hainbeste polizia eta lege errepresibo, bere burua hain 'demokratiko' eta 'askatzailetzat' duen gizarte? Polizia eta hiritarren kontrolari lehtasuna ematen dion gizarte ez dabil ondo. Nork zainduko gaitu gure zaindariengandik?

Arazo sozialak eta politikoak demokraziaren sakontasunarekin, aukeren berdintasunarekin, pluraltasuna errespetatuz eta askatasun osoarekin konpondu behar dira, inolaz ez estatu polizialarekin. Argi dago «super-kuartela» herrian eraikitzea erabaki dutenek azken hau hautatu dutela.

**AMNISTI BATZORDEAK ETA BESTE 10
TALDEREN SINADURA**

Feria planetarioa

Internet, bere osotasunean, orain artean, fenomeno bakarra dugu historian. Datozen hogeibat urtetan, merkatu mundiala bilakatu daiteke. Kultura, ekonomia, hezkuntza... Guzti hauen unibertso zibernetikoa. Komunikazio unibertsalaren ingurugunea. Pertsonen, kulturen, nazioen arteko gatazkak gainditzeko motorra.

Bainan Internet kausa nobleen aldeko egitura denik, ez da esana. Datorren hamarkadan, komunikazioaren hiru paradigmen integrazioa gauzatuko da: ahots telefonia, satelite eta hari bidez telebista, eta aipatu Internet. Konexio bakar batez, pertsonak eta taldeak era guztietako komunikazioak eta zerbitzuak gauza ditzakete, bideo konferentziak egungo telefoniko harremanak bezain ohizkoak bilakatu direlarik. Bainan gaurengungo telefoniak ez baldin badu erabiltzaileen intimitatea bermatzen, nork edo zerk bermatuko ditu aurrerantzean? Telekomunikazio hornitzaileek eta Internet sarearen serbidoreek, hobetu beharko dituzte euren ekipamenduak.

JOXE MARI OSTOLAZA

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Xabier Aranburu, Arantxa

Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe

Petrikorena, Arritxu Zelaja.

Maketazioa: Berdaitz Goia.

Dokumentazioa: Ernesto Ibarluzea,
Ainhoa Gerra.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta, Elena
Guinea, Miren Larrarte.

Hedapena: Ixabel Bereziartua.

Publizitatea: Miren Aranburu, Iñigo
Txintxurreta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz
de Durana.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.

pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003
Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxe: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3.
ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxe: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Ametsak gauzatzeko bidean

HAMAHIRUGARREN aldikotz, Senpereko lakuak milaka eta milaka euskaltzale bildu ditu joan den igandean Herri Urrats ospatzeko «Ametsa baino gehiago» lelopean. Euskararen pesta erraldoia izateaz gain, sekulako elkartasunaren lekukoak izan ditugu egun horretan gauzak ahal bezain ongi pasatzeko. Iparraldeko ehundaka lagunak elkartu dira lanean aritzeko, egunaren ordu batzuk euskararen erakaskuntzari eskainiz. Urtero gauzatzen den mirakulua berriro ikusi ahal izan dugu, nunbaiten ximikoa eginez. Alde batetik poztasuna hainbeste laguntasuna eta kementa ikusiz, baina haserre ere denbora berean pentsatuz horrenbeste indar beharrezkoak direla oinarritzko eskubideak lortzeko.

EUSKARA kenka txarrean da Iparraldean. Beste indar ugari eta borroka luzea beharrezkoak izanen dira euskara desgertzeko tendentziari buru egiteko. Gaur egun, amaeskoletan sartzen den Iparraldeko ikasleen kopurua % 16koa da. Beste hainbeste eskola publikoan sartzen dela erran daiteke, eta beste % 13 eskola pribatuetan, euskara ikasteko edo, hobekio erraiteko, 'hizkuntzaren sensibilizazioa' izateko. Erran nahi du ikasleen % 85ek ikasketak frantsesez jarraitzen dituztela, sekulan euskararen doinua ere ikasgeletan entzun gabe. Portzentaia hori apaltzea datozen urteetako lehentasuna izanen da,

euskara ikasten duten ikasleen kopurua goititzeko era berean.

Antzeko zenbaki arrangugarriak plazaratu zituen Iparraldeko AEK-k, abiapena emanez kanpaina berriari. Milako bat ikaslek helduen erakaskuntza jarraitzen dute hiru probintzietan, 130.000 orduko klaseentzat. Kopuru franko apala euskara ez dakiten lagunen kopuruarekin konparatzen bada. Promozio zabala abiatuko du taldeak bere lana ezaugarritzeko eta batez ere Francois Bayrou departamenduko Kontseilu Nagusiaren lehendakariari begira. Duela bi urte, ministroak sekulako esperantzak sortu zituen AEKren egituretan, baina ametsa ez da gauzatu eta bere hitza jan du.

PABEKIKO arduradunekin eraman behar diren borrokek egunero oroitzen digute egitura politikoaren eskasak dakartzan zailtasunak. Altabada, Espainiako gertakizun politikoek baieztatu dute erregioen garrantzia herri baten kudeaketan. Frantziako hainbat auzoek federalismoaren beharra gauzatu dute, historiaren aurrerapen gisa eta behar politikoa bezala. Izan dadila Alemania, Italia, Ingalaterra edo Espainian, gobernuak kondu-



tan hartu dituzte beraien nortasuna adierazteko populuen nahikeriak. Salbuespen irmua eskaintzen du erdian dagoen Frantses Estadoak, zentralismo hutsari ekiten. Emeki, herri guttiengoek itozten dute sasi-demokrazi itsu batekin. Kargudun politikoez Iparraldea departamenduen zatia baizik bezala ez dute kontsideratu nahi eta Pabeko kontseilu nagusiak zabaldutako inkesta zentzu horretan doa. Errexa da Euskal Herrian errandako guztia laster ahanztea euskaldunen urrun izanez... Ernetasuna eta elkartasuna inoiz baino beharrezkoagoak dira, gure amets guztiak gauzatu arte.

IÑAKI GOROSTIDI


ETA OSPATZEKO, EUSKAL PASTIZA

ETAKIDEAK eta euskal errefuxiatuak estatuen arteko salerosketan erabili izan dira. Ameriketako hainbat errepublikak erabili ditu horretarako. Batzuetan iheslariekiko jokabidean —eta honen aldaketan— geopolitika erditik zela nabarmena izan da, Aljeriakoan ikusi zen legez. Josu Ternera Espainiaratu zutenean, duela bi aste, Chiracek Aznar iritsi berriari egin oparitzat interpretatu ahal izan zen: «Eta ospatzeko, *mon cher ami*, euskal pastiza». Baina antza denez, frantsesak ere ez daude sosak erramiletetan

alferrik galtzeko. Maastricheko itunaren garapen bidean Madril-Paris-Bonn ardatza sendotzeko negoziaketan aurrerapen gisa eskaini omen diote Urrutikoetxea espainiarrei. Lehen abioiak, tankeak eta AVE trenerako makineria negoziatu zituzten horrela. ETAK bere historia osoan manejatua duen dirua baino askoz gehiago sakeleratu dute batzuek ETAREN kontrako borroka kontura komisiotan, eta preso *esportagarriek* prezio polita egiten dute, ECUtan gainera orain. Dena kontrolpean balego.

PELLO ZUBIRIA

NOIZ MUGITUKO DA TREBIÑOKO GAIA?



Egoera barregarria

Trebiñoko Konderriko herriek jasaten duten menpekotasun administratiboko egoera anomalaren irtenbidea oso sinplea da: trebiñotarrek askatasunez beren borondatea eta etorkizuna erabakitzen duen erreferenduma egitea, alegia.

1995eko apirilaren 9an, Trebiñoko La Puebla de Arganzon herriko Udalak Burgoiko Diputazioari, Gaztela-Leongo Juntari, Gaztela-Leongo Gorteei eta Gobernu Zentralari Trebiñok Arabarekin bat egitera zuzendutako espedienteak tramitatzeko eskatzea erabaki zuen.

Hilabete batzuk geroago, Administrazio Publikoetako Ministeritzak eta Gaz-

tela-Leongo Juntak ezezkua eman zioten Udalari, delako espedienteak 'teknikoki' tramitaterik ez zegoela adieraziz.

Duela zenbait egun, gure Aldundiaren Herrilan eta Garraio Sailak Madrili irtenbidea eskatu zion N-1 errepidea La Puebla de Arganzondik igarotzen den puntuan errepidearen mantenurako dauden arazoarentzat: Gaztela-Leonek eta Gobernu Zentralak ez dute nahi herrigunetik igarotzean autobia horretaz ardurarik hartu, eta Arabako Aldundia da errepidearen zazpi kilometroko zoladura berritzeaz eta seinaleztapenez arduratzen dena.

Arabako Aldundiak etengabe lankidetzan iharduten du Arabaren bihotzean dagoen eskualde honetako kultura eta kirol ihardueretan, azpiegiturak eta sustapenerako ekintzak burutzen. Iazko uztailen Jose Maria Ortiz de Orduñoren

zuzendaritzapean egindako azterlan xehea aurkeztu nuen, Trebiñoko jendeak Arabako bizitzarekiko eta Gasteizko *binterlandarekiko* ia erabateko menpekotasuna duela argi erakusten duena.

Modu demokratiko eta bidezkoan, originaltasunez eta irudimenez jokatzuz, administrazio aldetik Araban sartzeko borondate historikoari soluzioa emateko eskaerari erantzunik ez ematearen ondorioz jasaten duten egoera anomaloa agerian jartzen duten neurri guztiak trebiñotarrek eskatu behar dituzte.

Trebiñotarrak dira auzi honetarako irtenbidea nahi dutenak. Horregatik Madrigo Gobernu berriari eta Gaztela-Leongoari eskatzen diet, lanerako borondate zintzoaz, arazo honi gutxieneko arreta eskaini diezaiotela Erdi Aroko egoera barregarri bat konpontzeko.

Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroaren aburuz, «*ETak elkarrizketaz beraiek bezala hitz egiten duela uste dutenen baitan dago xalotasuna; ETak elkarrizketari buruz duen diskurtsoa ez da zintzoa*». **Patxi Zabaletak** ere elkarrizketaren gaiari ekin dio, eta Juan Mari Atutxak esandakoa kritikatu du: «*Elkarrizketarako une ona ez dela pentsatzea kontzeptu horrek zer esan nahi duen ez ulertzea da. Hor dira emaitzak, eta Atutxaren politika porrotetik porrotera dabil*».

Beste gai bati helduz, **Iñaki Anasagastik** ez du uste PPK GAL aferarako amaiera puntuaren legea martxan jarriko duenik: «*Aznar amaiera puntuaren legean pentsatzen hasten baldin bada, ETakideek ere gauza bera eskatuko diote*».

Bestalde, **Pablo Mosquera** honela mintzatu da U Aren seigarren urteurreneko ospakizunetan: «*PP-CiU-EAJ ituna Konstituzioa aldatu beharrean izango da, eta horrek berriro gauza sakonez hitz egitea ekarriko du: Espainia erregio-anitzeko nazioa den edota bi zati dituen Estatu nazio-anitza*».

Ostera, Sabin Intxaurrek hirukoa udal eta foru aldundietara hedatzea hutsegitea izan dela esan ostean, **Jose Julian Irizarrek** gogor erantzun dio: «*Botoa eman ziguten botoemaileekiko, erabaki hori hartu zuten alderdi barruko organoekiko eta sinatutako akordioak egunez egun defenditzen, errespetatzen eta betetzen dituzten*».

alkate eta zinegotziekiko errespetu falta da hori esatea».

Bestalde, **Jose Maria Gerenabarrera** Araba Buru Batzarreko lehendakariaren ustetan, «*Araba Buru Batzar berria pertsona-multzo zoragarria izanen da, pertsonalitate handiek osatutako koadrila osatuko dugu, sekula egon ez dena gisakoa*».



Pello Yaben, Nafarroako Eusko Alkartasunako antolaketa idazkaria

«Nafarroan EAJk mafiosoen jokaera dauka Eusko Alkartasunarekiko»

Jaioterri eta bizileku du Iruñea. Nafarroako EAKo aurpegi berrietako bat dugu, urte t'erdia eskas baitarama alderdian. 30 urteko psikologo hau, Nafarroako zerrendaburua izan zen Kongresurako iragan martxoaren 3ko hauteskunde orokorretan.

EA, inoiz ez bezala, gobernu-lanetan dabil buru-belarri: bai Eusko Jaurlaritzan eta baita Nafarroako Gobernuan ere. Ezer berezirik esan nahi al du horrek?

Lehenengo ondorioa da EAK gobernutik lan egin nahi duela. Nafarroan abertzale-tasunarentzat gobernuan egoteko aukerak beti hutsaren pareko izan dira, eta honako hau entsegua da. Batzuek pentsatuko dute botereak askotxo erakartzen gaituela, baina hori esatea oso sinplea da.

Zer moduz doa entsegua?

Lehenengo hiru hilabeteak politikak izan dira. Egia da ideiak paperean jartzea oso erraza dela, eta ideia horiek aurrera eramane edo erabakiak hartzerakoan agertzen direla lehenengo desadostasunak. Dena den, hiru alderdiok konpromezua harturik

daukagu eta, batzuetan haserretu arren, konpromezua errespetatu beharra dago.

Gobernuan egoteak kalte edo mesede egin dio EAri?

Politikoki, kalte egiten dio. Gainera, kritikak jasotzea askozaz errazagoa da. Baina gure helburu nagusia da gizartearentzat lan egitea. Eta jakina, horretarako gure presentzia hirukoan oso garrantzitsua da. Adibidez, euskararen aldeko erabakiak ez ziren hartuko gu hor egon ez bagina.

Nafarroan pentsatzen dute alderdi abertzaleak beti arlo beretan dihardugula: independentzia, euskara, autodeterminazio eskubidea, presoak... Ostera, abertzaleok bestelako arloetan ere lan egiten dugula erakutsi behar dugu: industrian, ekonomian, irakaskuntzan...

Horrelako biruko gobernu batean egoteak ez



«Eusko Alkartasuna Nafarroako Gobernuan egotea entsegutzat hartu behar da». (Argazkia: Alberto Elozegi).

du morrontza edo loturararik sortzen gai batzuetan jarduteko?

Jakina. Denbora gutxi daromat politikagintzan, baina

tarte honetan izan dudana dezepziorik handiena horixe bera da. Hots, pentsatzen duzu gauzak modu honetara direla, baina konpromezu



«ETA eta HBz gain, euren burua 'zintzotzat' dutenek ere jarrera aldatu behar dute». (Arg.: A. Elosegi).

bat daukazunez... Konpromezuaren muga non dagoen ikasi behar dugu. Alegia, konpromezu bat daukagu, baina iritzia aldatuz gero zergatik ez aldatu konpromezua bera? Izan ere, kasu zehatz batzuetan konpromezua lotura txarra baita: Itoizko gaien, Euskararen Legearen gaien... Oro har, baina, horrelako lotura bat baliagarria da.

Itoitz aipatu duzu. Gauza asko esan eta idatzi da Itoitzekin Elkartasuna taldekoek Aste Santuan egindako sabotajearen ostean...

Sekulako manipulazioa egin dute, argi utziz zein dauden 'gogorkeriaren alde' eta zein diren 'zintzoak'. Eta horren adibide orain bizpahiru aste Cesar Milanok esandakoa:

«Itoizko aferan manipulazioa egin dute, argi utziz zein dauden 'gogorkeriaren alde' eta zein diren 'zintzoak'»

«Gizarteari erakutsi behar diogu zein diren zintzoak eta zein gaiztoak, eta guk beti zintzoen alde egin behar dugu». Itoitzekin Elkartasuna taldekoak indarkerizaleak direnik ezin da esan. Horrelakoak entzuteak haserrea eragiten ditu. Baina orduan, lehen aipatutako konpromezua azaltzen da.

Hegoaldeko bi gobernuetan egonik, EAK zein asmo du bi komunitateen arteko barremanak bideratzeko?

Hilabete barru-edo jarriko da behar bezala martxan EAE eta Nafarroaren arteko batzorde iraunkorra, eta berau izango da lotura nagusia guretzat. Baina bada ahantzirik daukagun beste helburu bat ere: Nafarroa Beherearekiko harremana.

Hau ere ezinbestean sustatu beharreko lotura da.

Batzorde iraunkorraren protokoloaren sinadura, Nafarroa Beherearekiko barremanak sustatzeko borondatea... Aurrerapausoak zertan dira, baina?

Uneotan ez dakit zertan diren gaiok praktikan. Nik asmoak ezagutzen ditut. Hain zuzen, ETBrena hortik dator. Eta industriaren arloan ere jarrera bateratua izateko hainbat gauza egin daitezke. Finean, mugak desagertarazteko neurriak dira. Agian fisikoki hor egonen dira, baina gure pentsamolde eta jokaeran desagertzea lortu behar dugu. Pixkanaka joan beharra dago, Nafarroan EAEn aurkako pentsamoldea aski zabaldurik baitago. **Protokoloak nafarren artean ez duela lebentasunik eta haserrea areagotu duela esan zion Miguel Sanzek ARGIAri orain sei hilabete. EAK**

HAMARREKOA

CARLOS GARAIKOETXEA

«Izan dugun lehendakari onena; nekaturik dagoen gizona»

MIGUEL SANZ

«Politikagintzan egon behar ez lukeen pertsona»

ADOLFO ARAIZ

«Pertsona azkarra da, eta ona da horrelakoak beste alderdi batean egotea»

JUAN CRUZ ALLI

«Nafarroan lortu duen gauzarik garrantzitsuena kontsentsua da: bi bizimodu, euskal kultura dena eta ez dena, hurbiltzea lortu du»

JOSE ANTONIO URBIOLA

«Txikitandik ezagutzen dut, eta ez dut ulertzen zergatik dagoen EAJn»

BITTOR AIERDI

«Gatazka konpontzeko beharrezko pertsona»

JESUS AIZPUN

«Euskararen kontra gogorren egin duena»

JAVIER OTANO


«Itoizko auzian hankasartze handiak egin ditu»

KOLDO AMEZKETA

«Oso antolatzaile ona, eta besteen lekuan jartzen badakiena»

FLOREN AOIZ

«Ezagutzen dut, eta bi urteko oporraldiak behar dituela uste dut, gauzak argitzeko eta bera lasaitzeko»



«EA Nafarroako Gobernuan egoteak abertzaletasunaren normalizazioa dakar». (Arg.: A. Elozegi).

nola ikusi du nafarren jarrera konpromezu horrekiko?

UPNk horrelakoak esatea normala da. Hala ere, UPNren barruan bestelako iritzirik ere bada. UPNko askok beren seme-alabak ikastolara eramaten dituzte, euskaraz hitz egiten dute... In-

dar politiko bateko buruzagiak diotenari ez diogu horrenbesteko jaramonik egin behar, bai ordea gizartearen jokaerari. Sanzek horrelakoak esatean ez ditu UPNko botoemaileak ordezkatzeten.

Era berean, agian zatiketa gertatzen ari da Nafarroan: Iruñeatik iparraldera da-

goena batetik, eta hegoaldera dagoena bestetik. Horren adibide, Erriberan hirukoaren kontra sortzen ari den jarrera. Hor antzematen dira bi Nafarroak.

Zer du esatekorik eta egitekorik EAk Nafarroako Gobernuan PSN eta CDN kide dituela?

Lehenik eta behin, euskal abertzaletasunaren normalizazioa dakar EA gobernuan egoteak. Jendeak ikusten du abertzaleok edozein arlotan egiten dugula lan. Horrezaz gain, gai batzuetan CDN eta PSNren arteko desadostasunak handiak direnez, bitartekari-lanak ere egin behar izaten ditugu: irakaskuntzaren arloan esaterako. Ekonomia eta industrian, berriz, CDN eta PSNren jarrerak antzekoak dira eta gure bitartekari-lana hutsala da. Beste gai batzuetan, Itoizkoan edo euskarenean adibidez, CDN eta PSNren jarrerak antzekoak dira, eta gurea da ezberdina.

Eta oro bar, nafar politikagintzan zer du eskaintzekorik?

Abertzaletasunaren normalizazioa, euskara despolitizatzea —euskara nafarron hizkuntza dela azpimarratuz—, abertzaletasuna eta indarkeriaren artean egiten duten lotura apurtzea, elkarbizitza bultzatzea, abertzaleok 'beste' arlo horietan lan egiten ere badakigula erakustea...

Sarritan aipatzen dira EA eta EAJren arteko harremanak eta elkarlanerako deiak. Zer iritzi duzu bien arteko hurbilketa posibleaz?

Hori guztia batik bat EAEn gertatu da. Nafarroan EA eta EAJren arteko ezberdintasunak askozaz handiagoak dira. EAn sartu berri garenok ez dugu gure burua EAJn ikusten. Niretzat, EAJ da eskuineko betiko alderdi bat. Agian EAEn izango da EAJrekiko hurbil egongo denik, azken batean bertatik baitatortoz. Baina Nafarroako EAren kontzeptu ideologikoa ezkeralderantz doa, eta horregatik ezinezkoa ikus-

ten dut hemen EAK eta EAJk bat egitea.

Nafarroan EAJk mafiosoen portaera izan ohi du EArekiko. Ez dute helburu Nafarroaren alde lan egitea, baizik eta gure kontra egitea. EAK indar gehien duen eremuetan, 'gerra zikin' antzeko bat daramate aurrera, bertakoei sekulako gezurrak esanez. Haserretzekoak baino, barre egiteko moduko gezurrak izan ohi dira. Beraz, argi daukat EAK eta EAJk bat egingo balute nik ezer gutxi daukadala egiteko hemen.

Nola kalifikatuko zenituzke HBrekin Nafarroan dituzuen barremanak?

HB eta EAren arteko ezberdintasun nagusia indarkeria da. Bestela, ados gauden gauza batzuetan: HBtik eta EAtik Estatuaren kontra egiten diren kritiketan, eskal presoen eskubideen aldarrikapenetan... Bi alderdien aldarrikapenak antzekoak dira, baina ezberdintasuna jokaeran datza. HBk jokarea tragikoa izan ohi du ukitzen dituen alor guztietan: Euskararen Legea dela eta, 'bau butsaren parekoa da' diote.

Baketzeari dagokionez, zer egin daiteke orain arte egin ez denik?

Galderari buelta eman, eta zer egin behar ez den galde-tu beharko genuke. Eta horren erantzuna ondokoa litzateke: alde batetik zein bestetik orain egiten ari direnak egin. Gobernuak garatutako jokaerak eta komunikabideetako adieraz-

“Gobernukideekin konpromezu bat daukagu, baina iritzia aldatuz gero zergatik ez aldatu konpromezua bera?”

T A N T O A

Oinak lurrean dituen idealista

Gazteriaren kolektiboan gizarte eta politika mailako konpromezu eza, berekoikeria eta abstentzioa direla nagusi dio topiko moderno batek. Alabaina, topiko moderno horrekin inondik inora bat ez datorren gaztea dugu Peio Yaben.

Pertsona kuttun, atsegin eta maitagarria da Peio, gainontzekoak ulertzen saiatzeko izugarritzko joera duena. Izpiritualari materialari baino askoz garrantzia handiagoa ematen dio. Eta horrezaz gain, ez dio uko egiten bera baino edadetuagoak eta zailduxeagoak direnengandik ikasteari, sustraiak oso garrantzitsu eta komenigarritzat baititu. Halakoa da Peio.

Oinak lurrean dituen idealista eta ameslaria, dinamiko eta izugarria saiatua: edozerri ekiteko prest beti. Bere herria miresten eta maitatzen duen pertsona da, eta era berean, bere herriko herritarrekin, ohiturekin, bertuteekin eta akatsekin identifikatzen dena. Baketsua eta bakezalea da, eta erabateko konpromezua hartua du ideal politiko jakin batetiko. Ondorioz, ez du batere atsegin ideal politiko horren eta indarkeriaren artean egin ohi den identifikazioa.

Trebakuntza eta prestaketa etengabearen diharduen profesionala da. Eleanitza dugu, bere hizkuntza propioa den euskararen gaintik: gaur egun



Iñaki Cabases
Nafarroako
Gobernuko Industria
sailburua

gaitz endemikoa den lan-urritasunak eta etorkizunari dagokionez gazteriak dituen zalantzek izugarri baldintzatzen duten euskara.

Gaur egungo politikariek in alderatzen badugu, ez-ohiko politikaria dugu Peio Yaben. Ez-ohikoa, baina gertukoentzat erdugarria. Nire ustetan, abertzale bat.

penek gatazka bere horretan mantendu baino ez dute egiten. HBren kontrako ahozko indarkeria izugarria da. Azken batean, ez dute ETak edota HBk soilik aldatu behar euren jokaera, baita euren burua 'zintzotzat' dutenek ere. Alde bien errua da uneotan gizartean bi kode moral izatea. Egoera hau alderdi politikoen porrotaren ondorio da, eta horregatik sortu dira Elkarrri, BAK eta antzeko giza-mugimenduak.

Hori borrela izanik, zertarako balio dute egun

Ajuria Enea, Iruñea eta Madrileko Itunek?

Horiek itun politikoak dira, eta itunak beraiek bakarrik ez dira baliagarriak. Zertarako balio du jarrera bateratua mantendu behar dugula esateak? Jarrera horrek gatazka mantendu eta beste aldearekiko distantzia areagotzea baino ez du egin-eta. **Nabarmena da abertzaletasunak Nafarroan bizi duen gain-behera.**

Gain-behera politikan gertatu da. Erantzukizuna? Indarkeriarena, espainolismoak abertzaleon kontra gauzatutako jokaera bizkorrena, abertzaleon arteko haserrearena... Beste arlo batzuetan, baina, ez da halakorik gertatu: adibidez, sindikalgintzan LAB eta


ELAk indar handia dute, euskararen aldeko jarrera gero eta nabarmenagoa da... **Zein izan daitezke abertzaletasunaren mezuak gizarteratzeko bideak?** Batetik, abertzale kontzeptua gutxiago erabili behar dugu. Gu abertzaleak gara, baina baita besteak ere: espainiar abertzaleak. Eta bestetik, gure aldarrikapenak besteek ere ulertzea lortu behar dugu, Nafarroaren aldeko jarrera mantentzen dugula azalduz. Eta zer da guretzat Nafarroa? Nafarroa da Euskal Herria, euskara, Nafarroa Beherea... Paradoxa dirudien arren, horrela abertzaletasunaren normalizazioa lortuko dugu.

MIKEL JAUREGI

Ekialdeko Timor, munduak ahantzia duen genozidioa

Sonda artxipelagoan dago Timor irla, Australia eta Indonesia artean, kolonizatzaileek aspaldi erdibitua. Ekialdeko zatia Indonesiako armadak inbaditu zuen 1975ean.

SANDALO zuraren lurra zen antzina Timor irla. Euskal Herria baino handixeagoa zabaleran -30.000 kilometro karratu kasik-, bi zatitan erdibitua dago aspalditik. Horietako batean, Ekialdekoan, mende honetan egin izan diren sarraskietarik handienetakoa burutu du, ari da burutzen, Indonesiako armada. Hildako biztanleen proportzioa kontuan hartuz gero, 70ko hamarkadan Kanputxean Pol Potek egin zuen triskantza baino bortitzagoa litzateke Timorrekoa. Iturri batzuek



Carlos Lopes eki-timortarra duela gutxi izan zen Donostian, genozidioa salatzen. (Arg: A. Elozegi).

diotenez, biztanleriaren herena -600.000 lagunetik 200.000- hil ditu Indonesiako armadak irla inbaditu zuenetik, 1975eko abenduaren zazpiaz geroztik.

Izugarrizko genozidioa

BI herritarretik bat hil izan dutela dioenik ere bada, 300.000 lagun, beraz. Hala ta guttiz, apenas izan duen oi-

hartzunik komunikabideetan, ez 1975ean ez gaur egun, Ekialdeko Timorren gertatutakoak. Eta isiltasunaren zama astintzeko asmoz izan berria da Donostian lurralde hartako herritar bat, Carlos Lopes. Estatu Batuek Yakartan, Indonesiako hiriburuan duten enbaxadan gorde zuen bere burua Lopesek, beste 30 bat timortarekin batera. Eta handik

Europarako bidea hartzerik lortu zuen. Portugesez mintzatu zitzaigun orain bizpahiru astebete Donostiako Zuzenbide fakultatean. Izan ere, Portugalen menpeko kolonia izana da Ekialdeko Timor, Krabelinen Iraultzak (1974an) deskolonizazioari bidea zabaldu zion arte. Orduantxe jaregin zituen Portugalek Angola, Mozanbik... eta Timor.

■ biztanleriaren herena -600.000 lagunetik 200.000- hil ditu Indonesiako armadak irla inbaditu zuenetik

Ez zion luzaro iraun askatasun lortu berriaren pozak Ozeaniako herriska honi. Portugalgo soldaduek aldegin bezain pronto bertan ziren Indonesiakoak. Jakina, erráz menpera lezake ia 200 milioi biztanleko potentzia ekonomiko-militarrak

600.000 herritar besterik ez dituen irla erdia. Odolez eta bortxaz menperatu ere. Carlos Lopesez Donostian azaldu zizkigun gehiegikeriak naziek konzentrazio eremuetan egindakoen parekoak ziren. Edo bortitzagoak. Zirrara handiena honako hau entzuteak eragin zigun entzule ginenoi: Indonesiako soldaduek emakume haurdunak bortxatu, hil, eta segidan sabelean zituzten haurrak atera egiten zizkietela, horiei ere baionetan alderik alde sartzeko.

Ekialdeko Timorren egindako triskantzak horren jende gutxik ezagutzea ez da, bestalde, kasualitatea, zioskun Lopesez. Estatu Batuek, Japoniak eta Australiak bat egin zuten Indonesiarekin, edo ez zuten inbasioa gaitzesteko aparteko borondaterik azaldu. 'Gerra hotza' zeritzaion haren ondorioz, batetik. FRETILIN edo Ekialdeko Timor Independenteko Fronte Iraultzailea baitzen, eta da, independentziaren aldeko erakunde nagusia. FRETILIN Sobiet Batasunaren babespekoa izan zitekeela, edo, eta komunismoaren aurkako borrokaren aitzakiapen, ezikusiarrena egin zuten amerikarrek, japoniarrek eta australiarrek.

Carlos Lopesez dioenez, ordea, ez du zer ikusirik FRETILINek komunismoarekin, ez Moskurekin ez Pekinekin. Fronte herritarra omen da, Indonesiaren inbasioari aurre egin eta Ekialdeko Timorren autodeterminazio eskubidea lortzea helburutzat dituen. Eta 'gerra hotza' ren aitzakia desagertua denean, nabarmenago ikusten omen dira benetako arrazoiak, ekonomikoak batik bat. Petrolio ugari baitago, dio Lopesez, Timor aldean. Hori eskuratzeko asmoz makina bat azpijoko egin omen zuen, besteak beste, Australiak atzerri ministerioak.

Daliko triskantza

Orain bost urte, 1991ko azaroaren 12an, herri-agentziek eskaini ziguten une batez Ekialdeko Timorreko egoerari buruzko informaziorik. Indonesiako soldaduek ehun gazte hil zituzten Dalin, independentziaren alde manifestari zebiltzala. Genozidio itzelik badela mende amaiera honetan ere jakin zuen munduak, egun batez bederen. Gero, isiltasuna berriro. Carlos Lopesez gogoratu berria digu Donostian bere herikideen % 33, % 50 agian, hilak dituztela indonesiarrek, desagertzear dela bere herria, baduela FRETILINek eki-timortarren babesik (ez, ordea, behar hainbat armarik), eta iaz Austrian hasitako bake elkarriketek ez zutela emaitzarik ekarri.

XABIER ARANBURU

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

'Hutsegite tamalgarriak' Libanon

H

ORIXE izan da Israelgo agintarien esplikazioa, hutsegitearena. Alabaina, 'Haserrearen mahatsak' izeneko operazioa zehatz-mehatz kalkulatu zeukaten, alde aurretik, baita sorsitzaileen arriskuak ere. Ez gaitezen harritu, Israelgo Estatuak mendekua sarritan erabili izan baitu, besteak berari eragindako hildakoen kopurua biderkatuz. Bestetik, 25 urte badira israeldarrek Libanoren hegoaldeari su eta gar ekiten diotela, hor bizi direnen segurantzari batere erreparatu gabe. Biktimak, 100.000 lagun inguru.

Israelek Libanori egindako erasoak eta Qana zein Nabatiyeko triskantzek apenas eragin duten malkorik Mendebaldean. Ezta Siria zein Libano bertako gobernariei ere. Sarraski horiek, bestalde, bizpahiru ikuspegitatik azter genitzake. LEHENBIZIKOA: bake prozesuak, nahiz eta palestinarrentzat oso mesedegarria ez izan, indarra erabiltzea ere eskatzen du, pentsatu bide du Israelgo gobernuak. Eta ozenki azaldu nahi izan du prest dagoela



JAVIER AISA

Kazetaria, Nafarroako
IPESeko kidea

armak bortizki erabiltzeko, are bortizkiago hauteskunde bezperan. Ez beza inork pentsa, otoi, 'bakezaleok' ahulak garenik, ez garela gai Israel behar bezala defendatzeko!

BIGARREN ikuspegia: Israelek presio kalkulatu egin nahi izan die Libanori eta, batez ere, Siriari, bere baldintzak onar ditzaten. Besteak beste, Golango gainetan 'inoren eremu' moduko bat sortzea. Libanori dagokionez, bere egonkortasun politikoari enbarazo egitea eta 'segurtasun eremua' ahalik eta iparralderago eramatea lirateke Israelgo gobernuaren intentzioak.

HIRUGARRENA, azkenik, garrantzitsuagoa litzateke, baita ilun eta maltzurrago ere. Hots, Irango ayatolei abertitzea (Israelek, noski) Libanon duten eragina zabaltzerik ez zaiela komeni. Jakina, Israel, Libano, Siria eta Irango gobernuen estrategia eta azpijokoen ondorio larriak, oraingoan ere, Libanoren hegoaldean bizi direnek pairatu dituzte, inoren babesik ez duten herritar pobretu horiek.

Arrasate aldeko 20 bat emakumek sortu zuten lantegia 1969an; 200dik gora dira egun

Kanpoko merkatuen bila Auzo Lagun Kooperatiba

Emakumezkoek ia erabateko nagusigoa duten enpresak ez dira asko ere gure inguruotan, baina bada salbuespenik. Arrasateko Auzo Lagun kooperatiba dugu horietako bat.

Lantegia martxan jarri zutenean, 1969an, 20 bat emakume ziren. Gaur egun, 200dik gora. Emaidza ekonomiko bikainak izan zituzten iaz, eta are hobekak espero dituzte aurtan.

ARRASATETIK Aramaiorako bidean dago Auzo Lagun kooperatiba, Erkop taldeko kidea eta Mondragon Corporacion Cooperativaren baitakoa. Hiru enpresa bil-tzen ditu Erkopek, guztiak ere nekazaritza edota jaki-hornikuntza alorrekoak. Barrenetxe, Behi-Alde eta Miba negutegi, esne eta pentsu gaietan aritzen dira. Auzo Lagunek, berriz, jakiak prestatu eta banatu, batetik, eta garbiketa lanak, bestetik, horiek ditu plazaratzen dituen zerbitzuak. Hamalau mila otordutik gora banatzen ditu egunero, batez ere ikastetxe, enpresa, ospitale eta erresidentzietara. Garbiketa alorrean ere egoitza

handietan aritzen da bereziki. Eta begibistakoak dira emaitzak: 1.527 milioi pezetako fakturazioa iaz. Aurtan handiagoa, 1.800 milioi-koa espero dute. Erkop taldeak, orotara, 2.500 milioi fakturatu zituen 1995ean.

Esportazioari ekiteko prest

BESTALDE, eskuratu berria du ISO 9002 ziurtagiria, Bureau Veritas erakundeak puntako kalitatea darabilten enpresei eskaintzen duena. Enpresaren zuzendaritzak dioenez, Euskal Autonomia Elkartean ez dago horrenbeste jaki prestatu banatzen duenik, ezta kalitate zein teknologia alorretan ere



Mari Karmen Yarritu da, 1979az geroztik, Auzo Lagun kooperatibaren presidentea. (Argazkia: Alberto Eloseggi).

aurre hartuko dionik. Eta Arrasateko lantegiaz aparte beste bat martxan jarria du-


te, iragan azaroan, Irunen. Jeneroa nori saldurik ere ez dute falta, zeren aspaldi ekin

■ Hamalau mila otordutik gora banatzen ditu egunero Auzo Lagunek, batez ere ikastetxe, enpresa, ospitale eta erresidentzietara

zioten Espainiako merkaturari, eta Frantziakoari berehala ekitekotan dira. Auzo Lagunetik banatzen diren jakiak beroak, berehalako jatekoak dira; edota hotzean zein hutsean ontziratutak. Jaki hoztuek bost eguneko iraupena dute, eta hutsean ontziratuek hiru astebetekoa. Sukaldera sartu ahal izateko garbitasun neurri zorrotzak bete behar izaten dituzte langile eta bisitariak, kutsadura bakteriologikoa uxatzearen.

Teknologia, kalitate eta ekonomia alorretatik aparte badu, ordea, bestelako ezaugarriak Auzo Lagunek. Aipagarriena, bertan ari diren gehien-gehienak emakumezkoak direla. Eta enpresa sortu zutenean, den-denak. Garai hartako hainbat kontu ekarri dizkigu gogora Mari Karmen Yarrantuk, kooperatibako presidentea. «Giroa eta egoera ez ziren batere aproposak emakumeok etxetik kanpo lanean aritzeko. 1969az ari naiz, eta ordurako bazuten indarrak kooperatibek Arrasate aldean. Baina emakumezkoak ez zitzaizgun lanerako aukerarik ematen. Eta ematen zitzaizgunean, ezkondu orduko utzi egin behar izaten genuen lana. Horrelaxe zeuden kontuak bemen, duela mende laurden pasatsu».

Bistan da, alabaina, Arra-



■ Bureau Veritas kalitate ziurtagiria eskuratu berria du enpresak. (Arg: A. Elozegi).

sateko zenbait emakume ez zela etsipenaren magalean lotan gelditu. Mari Karmen Yarrantuk dioskunez, *Joxe Mari Arizmendi-Arrieta izan zen proiektuaren bultzatzailea, berak animatu gintuen aurrera egitera*. Arrasateko kooperatiben 'aita' izanak ikuspegi aurrerakoia omen zuen, eta bere ahalegin-erreguei esker sortu omen zuten Auzo Lagun 20 bat emakumek, duela 17 urte. *Egun erdiko, bost orduko ordutegian aritzen ginen, eta behin behineko lambidetzat jotzen zuten askok. Gaur egun ere bost orduz jarduten dugu, garai hartako giro eta aurriritzien ondorioz edo, erabat borregatik ez bada ere*.

Bost orduko lana, ala zortzikoa?

Lanordu gutxi izate horrek badu beste arrazoi bat ere: garbiketa lanak egiteko, adibidez, eskolak edo enpresak itxita dauden ordu-

tegiak profitatu beharra. *«Ikastetxe bat arratsaldeko bostetan ixten badute, nabikoa ditugu bost ordu goitik behera garbitzeko. Beraz, lanaren egokierak berak ere agintzen du ordutegi laburragoa izatea. Zerbitzu sektorean errazagoa da egun erdiko jornada, industrian baino», argitu digu Mari Karmen Yarrantuk. Sistema honekin konforme ez denik ere ba omen da, eta zenbait soziok nahiago omen dute zortzi orduko saioa. Gizonezkoen parekoa, alegia. Eta hortxe, lanorduen inguruan, piztu dira kontraesan teoriko-filosofikoak Auzo Lagunen.*

Suediako adibidea izan genuen hizpide solasaldian zehar. Eskandinaviako herrialde horretan sekulako

emakume multzoak bereganatu zituen lan merkatuak 60 eta 70ko hamarkadetan. Lanpostuekin batera lortu zuten inpedentzia ekonomikoa, beren buruak hobestea, etxeko lanetan aritze soilak askori ez damaion duintasuna. Jaiotze tasaren murrizketa handia ere ekarri zuen emakumezkoen lantegiratzeak. Egun, aldiz, beste kezka batzuk dituzte Suediako emakumeek: seme-alabentzat denbora gehiago izatea, esate batera.

Auzo Lagunekoei ere beste hainbeste gertatzen bide zaie. «Suediako adibidea sarritan aipatu izan da hemen», dio Yarrantuk, «geuri ere suertatu baitzaigu antzekorik. Orain 25 urte inpedentzia ekonomikoa,

«**Emakumezkoak ez zitzaizgun lanerako aukerarik ematen, eta ematekotan, ezkondu orduko utzi egin behar lantegia**»

« Joxe Mari Arizmendi-Arrieta izan zen proiektuaren bultzatzailea, berak animatu gintuen aurrera egitera »

etxetik irtetea genituen belburu nagusienak. Eta irtete horrek bultzatuta haurtzaindegirik ere izan genuen, bere garaian, hemen, enpresan bertan. Haurrak nonbait utzi beharra bait zegoen. Egun, independentzia eta gainerakoak lortuak ditugunean, beste kezka batzuk ditugu. Zerk ote garrantzi handiagoa: gizonek bezainbat ordu lan egitea, ala abalik eta denbora libre gehien izatea? Ez du erantzun errazik galdera honek, eta zaila izango da kooperatibako partaide guztien interesak bat etortzea».

Partaide gehienak emakumeak izateak, bestalde, sortu izan du noiz edo noiz egoera bitxirik Auzo Lagunen. Lehenbiziko gizonzkoa lanean hasi zenekoa gogoan du presidenteak: «1978an izango zen. Tresneriaren mantenimendu lanak egiteko pertsona bat behar genuen, eta... bada-kizu, gizonzkoa behar. Zergatik ez emakumezkoa? Bada, seguru aski 'rol' banaketa horrelaxe egina dugulako gizartean. Gizonzkoek era honetako lanbideak, emakumezkoek hala-koak. Baliteke, bestetik, sasoi hartan ez izatea lan horretarako behar bainbateko prestakuntzarik zuen emakumerik».

Gizonzko gehiagorik bada egun enpresan, baina oso gutxi emakumezkoen kopuruarekin alderatuta. Guztira 220 bat partaide ditu Auzo Lagunek, horietarik dozena bat besterik ez gi-

zasemeak. Honenbestez, asko ez bezalako lantegia dugu Arrasatekoa. Emakumeen nagusigo nabarmenaz gain, hazkundera ere ez da non-nahi topa litekeen horietakoa. Hamar bider handiagoa da gaur egun langileen kopurua. Partaide bakoitzak 10.000 pezetako kapitala jarri zuen 1969an. Hogei lagun besterik ez ziren. Mari Karmen Yarritu hurrengo urtean bertaratu zen, eta hamabost urte badira presidente kargua eskuratu zuela. Ez du, ordea, iragarkietako ejekutiboen tankerarik. Argazki kameraren aurrean urduri jartzen dela aitortu digu, irribarrez, eta halaxe zegoen. Eta bazkaltzeko betarik hartu gabe etorri zaigu elkarrizketara.

Norbera bere galtzetan kabitu

Kooperatibak ondorengo urteotan izango duen bilakaerari dagokionez, hedakuntza prozesua bultzatzeko asmorik bada. Merkatu berriak lortu, eta batez ere, esportazioari ekin. Beste kontu bat omen, ordea, produktu edo zerbitzuen ugaltzeari ekitea. Mari Karmen Yarrituren iritziz, ez da bide horretatik abiatuko Auzo lagun kooperatiba. «Esaera zabarrarekin bat nator neu ere: 'kabitu hadi eure galtzetan'. Alegia, ez dugula asmorik produktu edo zerbitzu gehiago eskaintzekorik. Nabikoa lan badugu orain arteko bidea sendotu eta txukuntzen».

XABIER ARANBURU

DIRUAREN HOTSA


Kanpo zorra ez du karitateak konponduko

HERRIALDE baten kanpo-ordainketen balantzaren desorekak, Chicagoko eskalokoen arabera, nazio horren errenten eta gastuen desoreka adierazten du. Eskola horren ustez, kanpo defizita daukan herrialdea dagokion mailatik gora bizi da. Hortaz, herrialdeak 'behi meheko' epealdia jasan beharra dauka. Ondorioz, nazioarteko elkartruke merkatuetan monetaren desbalioztatzea zigortzat ikusten da. Konponbidea, deflazioa omen.

Hala ere, kanpo defizita orekatzeko ez da behar inolako deflaziorik. Ez du ezerk justifikatzen jendea eta batez ere langileria pobretzeko usatzen diren ohiko deflazio-politikak erabiltzen segitzea, alferkeria intelektualak ez bada. Izan ere, banku moneta nazionalak ez dira nazioartean esportatzeko produktuak. Egungo nazioarteko ordainketen sasi-sistemak, alta, zenbait moneta nazional kanpo ordainketetan erabiltzen dira. Horrek sortzen duen desordena kaltegarri da oso.

NAHIZ eta herrialde baten merkatal balantza orekatua izan, egungo kontabilitate sistema biziatuan esportazioen ordainketa inflaziogilea da. Esportazio netoak ordaintzeko erabiltzen diren pagamendu faltsuek naziorik gabeko kapital monetario espekulatzailea handitzen dute, teorilari batzuek deituriko 'xeno-monetan' masa handituz. Okerrago oraindik, zorpean dauden herrialdeek amortizazio eta interesak BIRRITAN ordaindu behar dituzte; lehendabizi herrialde hartzekodunei eta gero naziorik gabeko kapitalari.

BERAZ, nahiz eta baldintza gogorrek ezarri, arazoez beren horretan darraite. Edozein herrialdek (zorpekoa izan edo ez) bere kanpo ordainketen ordenua, subiranotasun osoz, ezarri behar du. Horretarako, eta gaurko sasi-sistemak iraungo duen bitartean, hau da, nazioarteko moneta BERRI bat jaulkiko ez den artean, herrialde horrek egingen dituen pagamenduak bi eragiketa desberdinetan banandu behar dira: barnera begira, Altxor Publikoak bere onurarako eta moneta nazionalan zorra kitzatzeko kopurua eskuratuko du; kanpora begira, Altxor Publikoak esportazio netoak direla medio lorturiko dibisen bidez ordainduko du. Honelaxe babes daiteke subiranotasun monetarioa.




JOSEBA TOBAR ARBULU

EHUko irakaslea

Sifoigile, errotari, saskigile... bakanak, eraberritu edo hiltzean diren lanbideetan

ZER BERRI? ZAHARRAK BERRI

X XI. mendean atarian, garai batean puri-puriko lanbideak ziren errotari, saskigile, sifoigile eta aizkoragile bakanak ia-ia galtzean daude. Bistan da hauei ere, birmoldaketa edota desagerketa unea iritsi zaiela. Eraberritu edo



Agapito Iruguenpagate Etxebarriako bere errota barnean. (Argazki: Jon Odriozola).

BIZITZA aztoratu honetan irtenbide askorik ez eta galtzean dauden hamaika lanbide daude. Bakan batzuk, eguneratzearen poderioz, zutik diraute. Besteak berriz, azken artisauekin desager-tuko dira.

Honen guztiaren adibide bat Etxebarriko (Bizkaia), Agapito Iruguenpagateren errota da. 300 urtetik gora dauzkan errotan, aitarekin,

14 urte zituela hasi zen lanean. «Aitari laguntzeko edo -dio Agapitok- galiziar bat etortzen zen etxera. Aste oso bat behar izaten zuen lana burutzeko. Behin, aitari, kanpotarrak egiten zuen lan bera egun bakar batean egiteko gai nintzela esan nion. Baita egin ere! Horrezkero, ez genuen makina bat soldata jan zizkigun galiziarren premiarik

izan».

Armiarma sarek estalitako eta ia-ia pipiak janiko egurrezko zutabe zaharrek sostengatzen dute; Urrusolo baserriaren alboan dago belaunaldiz belaunaldi sendiaren lanbide bakarra izan den errota. Beronen azpitik, Urko ibaiko urak, mesede franko egin dizkio etxebarrariatarrari artoa xehetzeko garaian.

Artajorran ibili eta erosleak etxera etortzen zireneko urteak oso gogoan dauzka Agapitok: «ezkondu ondoren, berriz, eta leku askotatik hots egiten zigutenez, 'dos caballos'ean Ermuatik hasi eta Eibartik barrena Arrasateraino garrariatzen genuen irina. Plazak alde batera lagaz, salmentak dendetan egiten genituen».

■ Agapito Iruenpagatek ez dauka inork bere lanarekin ez jarraitzearen penik, «lanbide honek ez baitauka irtenbiderik»

Egun, erretiratuta, 50 kilo inguru irin egiten ditu astean. Ez ditu erraz ahazten Agapitok duela urte batzuk zazpi egunen buruan 1.000 kilotik gora ateratzen zituen egunak. 73 urteko etxebarratarrak, oinordekoak izan arren, ez dauka inork bere lanarekin ez jarraitzearen penik; «lanbide honek ez baitauka irtenbiderik».

Bizitzako 70 urteetan zehar saskigile lanak egin ondoren, Antonio Garmendia urnietarrak (Gipuzkoa), noizbait behar eta, aurtan laga dio artisautzan lan egiteari. «Aita eta aitona saskigileak nituen -dio Antoniok pentsakor-. Garai hartan, herri hain txikia izateko, saskigile asko zegoen Urnietan; hamazazpi familia inguru. Aita saskiak saltze-


ra Hendaiaraino joaten zela horren guztiaren lekuko da».

Eskola, maisuarengandik jasotzen zituen jipoiez gogoratzea oso gogoko ez badi ere, ez du hamaika urte zituela poltsikoraturiko lehen lansaria nolana hihan ahanzten. «Aitak -dio Antoniok- irakatsi zidan inor gutxik egiten zituen marubientzako esku-saski txikiak egiten. Egunean sei egin eta pezeta batean saltzen nituen. Materialak beste hainbeste balio zituenez, duroa eskuratzen nuen. Eraikuntzan lan egiten zutenek hamar pezeta irabazten zituztela jakinik, gure irabazia diru asko zen garai hartarako!». Beste saskigileak baino apartekoagoa ez dela esan arren, saskigintzarako esku onak zituela aitortzen du.

Aitak eginiko saskiak saltzera ama Hernaniko feriara joaten bazen ere, Antoniok Donostiako Alde Zaharreko denda ezberdinetera eramaten zituen.

Urnietarrak saskiak egiteko beti gaztain kimua erabili izan du. «Egur bezez egin behar dira saskiak, eta ondoren, lizundu ez daitezten, baize piska bat bar dezaten utzi» dio Antoniok. Aiton gipuzkoar umoretsu honek urte hauetan guztietan era anitzeko saskiak egin izan ditu; arraiantzako bandexa eraikoak, ogia garraiatu eta astoek zamak eramateko saskiak, bionboak...

Antoniok berarekin Garmendiatarren saskigile lanbidea amaituko dela ondo



Luis Azurmendik Orion dauka sifoa egiteko makina. Astero 300 botila betetzen ditu. (Argazkia: Jon Odriozola).



Jose Ramon Jauregi duela 25 urte hasi zen, aitarekin batera, aizkorak egiten. (Arg.: J. Odriozola).

baino hobeto daki. «Ez ba-
dirudi ere, lanbide gogorra
da -mintzo da Antonio etsi-
kor- eta etorkizunik ikusten
ez diodanez, ez nuen biru
semeek bide hori bar zeza-
ten nabi. Lan asko egin, eta
gutxi irabaziko bailukete».

Sifoa eginez

ORION (Gipuzkoa) arrau-
lari bikainez gain, zutik di-
rau sifoigile lanbideak. Edari
mikatz hau egiteko testigua
Luis Azurmendik ere bere
aitarengandik jaso zuen. «Si-
foia egiteko makinak- dio
Luisek- ez dauka beste mun-
duko sekreturik. Filtro ba-
tzuren bitartez urak dakar-
tzen zikin eta kloroa kendu
eta ur naturala erdietsi
ondoren, anhidrido karbo-
niko eta ur hotzaren na-
basketaren poderioz, sifoa
lortzen dugu». Lehen urare-
kin izaten zituzten komeriak
ederki gogoratzen ditu Lui-
sek: «euria egiten zuenean,
filtrorik ez zegoenez eta ma-
kina zikintzen zenez, ezin
izaten genuen sifoirik egin».
Makinaren pieza asko ere,
urteen buruan, Luisek berak
eginikoak dira.

Banaketak Orion barrena
txirrin da eta eskuko atoi-
rekin egiten hasi bazen ere,
«ondoren, Lambreta moto
bati sirga jarri nion; a zer
diferentzia, primeran!» -go-
goratzen du Luisek barrez.
Garai batean sifoigile asko
zeudela gogoratzeaz bat, si-
foilariek, su-hiltzaile lanak
ere egiten zituzten azpima-
rratzen du: «kotxe bakane-
tariko batek su hartuz gero,
txorrotada sifoi bota, eta
akabo! Ez zegoen su itzal-
gailu hoberik». Neguan, be-
rriz, lan gutxiago izaten ze-
nez gero, sifoigileek ikatza
banatzen jarduten zuten.

Apurtzeko arrunt zailak
eta mardulak diren botilak



**Antonio
Garmendia
urnietarrak
oraintsu utzi
dio saskiak
egiteari.**

«Etorkizunik
ikusten ez
diodanez, ez
nuen biru semeek
bide hori bar
zezaten nabi».

**(Argazkia: Jon
Odriozola).**

lehen Azkoitia eta Donos-
tiako Intxaurren auzoan,
putz eginez, egiten baziren
ere, egun Kataluniatik ekar-
tzen dituzte, plastikozko
babesarekin.

Erremintariak eta aizkorak

EGUNETIK egunera sifoi
gutxiago edaten bada ere,
egarriari aurre egiteko edari
hoberik ez dagoela dio orio-
tarrak: «sifoiak, hainbat
freskagarrik ez bezala, sa-
soitsu jarraitzen du. Astean
300 botila betetzen ditu».

Urte bete barru jubilatzen da
eta hilobak lanbidearekin
jarraituko badu ere, «norbe-
rak eginiko abaleginak ber-

tan-behera uzteak pena
ematen du» mintzo da sami-
nez.

Lehen aizkorak egin eta
perrak jartzeaz gain, atxu-
rrak, goldeak... egiten zituz-
ten bizpahiru errementari
izaten ziren herrietan. Ba-
serriak pairatu dituen alda-
keten harian, erreminten
premia izugarri jaitsi zen.

«Duela 25 urte -dio Jose Ra-
mon Jauregi urnietarrak-
egoerak baldintzaturik, aita
eta biok aizkorak soilik egi-
teari ekin genion. Aizkora-
gintzan jarduten dugun
bakarrak gara. Zorionez,
eskaria dagoenez, ondo bi-
zitzeko adina ematen du
lanbideak».

Azken 40 urteetan, mate-
rialeetatik hasita, aizkora
izugarri aldatu da. Sasoi ba-
tean, aizkora hiru fasetan
egiten zen; orain, bakar ba-
tean. Sutondoko lana egite-
ko ere, bi pertsonak ordu
bete behar izaten zuten;
egun, bakar batek 10 minu-
tu. Hala ere, burdinoletan
egiten zen lan bakar batek
berdin jarraitzen du; altzai-
rua sutan berotu ostean
mailu kolpez moldeatzeko
lana duela 100 urte bezala-
koa da. Jose Ramonek ez
dauka dudarik aizkoragilea
artisaua dela aldarrikatzeko
orduan.

JON ODRIOZOLA

Euskara Zerbitzuak Euskal Herrian: egungo baliabideak eta gabeziak

EUSKARAZ ZERBITZATU

«E

uskara Zerbitzu baten lana, herri bakoitzeko egoera sozio-linguistikoa aztertu ondoren euskararen normalizazioan aurrera egiteko Udalaren plangintzak diseinatzea da».

HEGO Euskal Herriko euskara teknikariak bat egiten dute helburu honekin. Helburu honen gauzaketa, ordea ez da berdina herrialde guztietan, bakoitzak desberdin lan egiten baitu: «Euskara Zerbitzuetan ez dago homogeneitatearik, hau da, ez dago irizpide finkorik. Udaletxearen borondate politikoaren arabera gertatzen da Euskara Zerbitzua jartzea edo ez», adierazten du Pasaiako euskara teknikariak, «baina Udaletxeaz gain herriko taldeek ere zeresan handia dute bemen».

Hori dela eta, Udal batzuetan Euskara Zerbitzua



Gutxi dira oraindik Hego Euskal Herriko Udaletan dauden Euskara Zerbitzuak.

persona talde batek osatzen dute, baina beste batzuetan soilik itzultzailea dago: «Lekeitio ez dago benetako Euskara Zerbitzurik. Persona batek egiten du dena eta batzuetan bere borondatez ordu gehiago sartzen

ditu. Gainera, herrira begiraturaz ez da ezer askorik egiten», aipatzen du bertako langileak. Amurrioren berriz, herrirako ekintzak garrantzi handiagoa dute: «Guk gazteei begira egiten dugu lan gehien. Hainbat ekintza

kultural prestatzen ditugu, eta badirudi jendeak erantzuten dutela. Administrazio mailan, berriz, Euskara zerbitzu hizkuntza izatea dugu helburua. Hots, herritarrei bermatu egin behar diegu Udalarekin hartu-emanak euskaraz egitea. Beste kontu bat da euskara Lan Zerbitzua izatera iristea, hau da, administrazioan bertan euskaraz lan egitea».


«Borondate politikoaren arabera ezartzen dira Euskara Zerbitzuak».
PASIAKO EUSKARA ZERBITZUA

Koordinazio mailan, desberdintasun batzuk ageri dira EAE eta Nafarroako Euskara Zerbitzuen artean. Garesko Euskara Zerbitzutik adierazi digutenez, «*guk badugu koordinazioa, proiektu asko amankomunean lantzen ditugu. Bestalde, Nafarroan herri txiki asko daude eta, beraz, Zerbitzuak eskualde mailan antolatzen dira, herri batzuren artean. Hau ez da gertatzen EAEn, bakoitza bere kabuz mugitzen da. Gainera, Nafarroako Gobernua diru kopuru bat ematen du Zerbitzu hauek irekitzeagatik*». Araban plangintza berdintsua egotea nahiko luke Amurrioko teknikariak: «*Araban hone-lako hiru Zerbitzu daude martxan. Herri txiki asko dago hemen, eta horregatik mankomunitateen bidez funtzionatzea hobea izango litzatekela uste dut*».

Gipuzkoan gehien

ARABA, Nafarroa eta Bizkaian Zerbitzu hauek ez dira ugariak. Gipuzkoan, berriz, Euskara Zerbitzu gehienak biltzen dira. Kopuruaz gain, ordea, lanean ari direnen artean beste gabezi handiak somatzen dira: «*Zerbitzu hauek egituratuko dituen plangintza orokor baten beharra ezinbestekoa dugu, eta gure ustez Jaularitzak egin behar du hori. Gainera, plangintza hori garatu eta bideratzeko egitura nazionalaren beharra ere ikusten dugu. Hizkuntz Politikarekin harremanetan jarri gara, baina ez dugu erantzunik jaso*», aipatzen du Pasaiko Euskara zerbitzuko Jaione Urruzolak.

IDOIA TORREGARAI



XABIER ISASI

LABeko irakaslea EHUn

Euskal irakasleago lortzekotan unibertsitateko irakaslego erdaldunaren euskalduntzea ez omen da egokiena (IKEI 1995). Zein da kalitatezko irakaslego euskalduna lortzeko proposamena?

MIREN AZKARATE

EHUko euskarako errektoreordea

Lau bide ikusten ditut irakasle euskaldunak lortzeko. Batetik, orain arte bezala, irakasle lanpostuak atera eta jende euskalduna sartu. Gehienetan ikasketak bukatu berriak ziren aurkezten zirenak; azken deialdietan, arlo batzuetan behintzat, doktoreak ere ari dira aurkezten. Beraz, irakasle prestatuagoak ari zaizkigu sartzen. Hau izan da irakasle euskaldunak bide nagusia eta aurrerantzean ere hala izango delakoan nago. Kalitatezko irakasleak lortzeko, jende sartu berri honi aukera eman behar zaio gaiak ondo presta ditzaten. Bigarren bidea, kanpoko irakasle elebidunak erakartzea da. Arazoa guztiak ez dizkigu konponduko jakina, baina katedradun elebidun bat edo irakasle titular elebiduna lortzeak mesede ederra egiten die euskal adarrei. Kasu batzuetan, jakintza-arlo jakinetan, gertatzen da lanposturako deialdia egin eta hutsik geratzea, behar

adinako prestakuntzarik ez duen jendea aurkezten delako. Halakoetan, ikerketak bukatzen ari diren edo bukatu berriak direnak aurkitu, eta aukera eman beharko genieke prestakuntza hobetzeko; beka bidez kanpoko unibertsitateetara bidaliz, esaterako. Hau hurrengo hilabeteetan aztertzeak kontua da, nik uste. Eta azkenik (baina ez azken), gerta daiteke irakasle erdaldun batzuk euskaraz ikasi eta eskolak euskaraz emateko gaitzea. Hortik ere lortuko ditugu irakasle euskaldun batzuk. Baina zaila da horrelako aldaketak ugari izatea. Izan ere, guztiok ohartzen gara zein neke den bigarren hizkuntza bat ikastea adin batetik aurrera. Are nekeago unibertsitateko gaiak hizkuntza horretan emateko mailara heltzea.



URREA



● Bergarako Euskara Zerbitzuko burudun Iñaki Ugarteburuk adierazi digunez, Deba Garaiko Euskara eta Kirol Zerbitzuek kirol materialak euskaraz sortzeko bi beka antolatu dituzte.

GOROTZA



● Arabako Opakua mendatera hurbiltzen denak aldatu berri den bide-seinale handian, «Opacua» irakurriko du soilik. Oraingoan euskaraz idazteak «k» ipintzea suposatzen zuen soilik.

«Retegik Eugi zeharo aldatu du: pilotari berri bat da, amorrua kutsatu dio»

Bere izen bereko pilotalekuan egin dugu zita Jose Maria Palacios «Ogeta»rekin. Aurretik elkar ezagutu ez arren, aspaldiko lagunak bagina bezala abiatu da hizketara. Bere garai-an trapurik ez omen zen jartzen, baina esandakoak neurtzen ederki ikasi du. Finalaren harian, gerriko gorriaren aldeko apustua egin behar izan diogu urdina aukera zezan. Ez-partzialtasunean sineskor da oraindik.


Zuk jokatzeko zenueneko denboratan ez zen telebistatik pilota erretransmititzen.

Gehienbat prentsa eta kasu berezietan irratiren bat izaten genituen aldamenean. Komunikabideak asko espezializatu dira eta, oro har, pilota gertutik jarraitzen duten kazetariak jarduten dira. Neroni, duela ez urte asko, emankizun batetan al-

damenean nuen esatariak botatzen zituen astakeriak lotsatzen ninduten; «*Ha abierto la pelota*» eta horrelako esaldi desegokiak entzuteak pena eta era berean amorrua ematen zidan. Gaur egun egiten den informazioak, aldiz, pilota kutsua du.

Hilario Azkarate zure garaikidea goizean jaiki eta, finala jokatu behar

«Pilotari onak, txapeldunak, ez du inoren beharrik irabazteko, baina Retegiren kasuan espeziala da. Eugi zeharo aldatu du, pilotari berria dela esango nuke. Kantxan sufritzen erakutsi dio».
(Argazkia: Alberto Elosgi).



«Hainbesteko jendetzaren aurrean, antzezle bihurtzen ginen pilotariak; aulkiak beterik ikusita askoz hobe jokatzeko da»


zuela abaztuta, batere prestatu gabe joan omen zen. Garzia Arriñoren aurka txapela galdu aukera hartan. Lasai antzean hartzen al zenuten pilota orduan?

Ez dut uste hori egia denik. Are gehiago, Azkarateren kasuan ez nizuke sinetsiko. Sei txapela irabazi zituen eta nire kontra jokatu zuen finalan, nire zoritxarrerako, ez zitzaion partidua zuenik ahaztu inolaz ere. Pilotalekuak, konbinaketa on samarra jarritz gero, jendez gainezka egoten ziren. Bi edo hiru mila lagunentzako jokatzeko tartean patrikarako esku arinak izaki, ez da txantxa.

Oraingo giroa, baina, ezberdina da?

Horrenbesteko jendetzaren aurrean, pitin bat *titiritero* edo antzezle bihurtzen ginen pilotariak sarritan; zezen plazatan *faena* eder bat egiten duen toreroaren modura, tanto edo erremate polita eginez gero, txapelak, jakak eta beste hainbat gauza jaurtikitzen zizkiguten ikusleek. Pilotariak kantxako aulkiak beterik ikusten dituenentzako —orduan bezala, esaterako— askoz hobeto jokatzeko du.

Salbuespenak salbuespen, txapelketa usaina duten partiduek erakartzen dute orain jendea frontoietara?



Antza, pilotazaleak norgehiagoka nahi du, grina eta odola.

Aurtengo txapelketan, ordea, ez da apenas partidu onik ikusi.

Arrazoi duzu. Eugi eta Belokiren arteko partidua izugarria zirudien lehenago, baina txapeldunak kale egin zuen.


Materialaren erruz izan zen, ordea, Belokiren ustetan.

Komentario horrek bi alderdi ditu. Oraingo sistemaren enpresak hemezortzi pilota jartzen dizkio hautatzaileari berak bigarren aukeraketa bat egin dezan eta ni ez nago batere ados sistema horrekin. Nire ustez, hautatzaile

«Nire garaian, 50eko hamarkadan dirua errazago erabiltzen zen eta diru mordoska bat jokuan galtzen zuenak, biharamunentzako beste horrenbeste irabaziko zuela bazekien. Atzerritar guztiak pilotalekuan bukatzen zuten».



«Neroni, duela ez urte asko, emankizun batetan aldamenen nuen esatariak botatzen zituen astakeriak lotsatzen ninduten». (Argazkia: Alberto Elosegi).



leari askatasun osoa eman behar zaio, zuzenean pilota-egilearengana joan eta jokalekuaren arabera, hautatzaileak berak pilota egokienak eska ditzan, hemezortziko aurre-aukeraketarik gabe.

Bestalde, galdetu didazunaren hariari jarraituz, Eugiren aurka Belokik berak botatu zuen partidua. Pilotekin

izan zuen aztoramendua botileroak burutik kendu eta aurkakoa egurtzen saiatu izan balitz, bestelako ondorioz izango luke ziurrenik. Aitortu behar dizut ni belokizalea naizela, baina agoiztarraren aurka nahastu egin zen txapelduna. Ziur nago, luzarora, partidua galtzea berarentzat mesedegarri izango dela. Hogeitabi urte

NORTASUN AGIRIA

Duela 61 urte jaio zen Gasteizen ● Txikitan, ordea, Errioxako herri txiki batetara bizitzera joan zen eta han hartu zuen pilotaran jokatzeko bizioa ● Hamazazpi urte bete berritan egin zuen profesioletan estreinua

● Arabak eman duen eskuzko pilota txapeldun bakarra da ● 22 urte zituela lortu zuen lehenengo txapela ● Arriaran II.ari irabazi zion lehenengo txapela eta bigarrena segidan Garzia Ariñori ● Gaztetxoak pilotan ikustea du denborapasa gustukoen, nahiz eta inguru horretan eskupilotan bakan batzuk bakarrik jokatzen duten, zoritxarrez bere ustez ● Duela lau urte, Asegarceren eskutik, telebistako esataria da

«Eugik dohain bereziak ditu: hanka bizkorrak, joaldi latza eta gaztetasuna; Arretxe, berriz, inoiz etsiko ez duen horietakoa da»

bestarik ez ditu eta hurrengorako jakin badaki, aldeztatik taktikak erabakita eman behar direla. Nire inurdirako, ez zuen neurketa behar bezala prestatu.

Pilotalekuekin ere arazorik izan da?


Litekeena da margoketa lanak azken momenturarte uzteagatik Ogetako zolua motel samarra egotea, baina azken finean aitzakiak dira horiek. Txapeldun izan nahi duenak oztupo guztiak gaintzen saiatu behar du, are gehiago Belokiren kasuan. Aparteko pilotaria da eta edozein oztupo jarrita ere edozeini irabazteko ahalmena du.

Buruz buruko txapelketa triste bonetan beraz, zerbait salbatzekotan, Eugiren jokoa?

Harritura nauka, buruz arina zirudien norgehiagoka hauetarako, lesioek ere ez diote utzi pilotari gazte baten bidea garatzen, baina gaurko Eugi hau ez da lehen eza gututakoa. Belokiren aurka pilotari ezkerrez nola astintzen zion ikusita une batez, eta alderatzea libre bada behintzat, Julian Retegi ekarri zidan gogora.

Jakina, bere botileroa da eta.

Pilotari onak, txapeldunak, ez du inoren beharrik irabazteko, baina Retegiren kasuan espeziala da. Eugi zeharo aldatu du; pilotari



«Antza, pilotazaleak norgehiagoka nahi du, grina eta odola». (Argazkia: Alberto Eloegi).

berri bat dela esango nuke. Julianek irabazteko duen amorrua kutsatu dio eta, batipat, kantxan sufritzen erakutsi dio. Maisu berezia egokitu zaio aldamenean eta neurri handi batean Eugik Retegiri zor dizkio garaipenak.

Finala datorrela eta, gorri ala urdinaren alde apustua?

Batek daki; Eugik bere momentu ona erakutsi du, Arretxek aldiz partidu bakarra jokatu zuen Errandonearen aurka eta, egia esateko, ez zuen aparteko jokorik erabili. Luzaidekoak, ordea, egoerarik larrietan erakusten du bere benetako pilotarako kasta.

Eugik dohain bereziak di-

tu kirol honetarako: hanka bizkorrak, joaldi latza eta gaztetasuna ere gisa honetako neurketetan garrantzizkoa da. Fernando sekula etsiko ez duen horietakoa da; asko sakrifikatuz, inork baino gehiago entrenatu eta sufritu du dagoen lekura iritsi eta pilotan dakiena ikasteko. Oreka handiko norgehiagoka izango dela iritzi diot.

Nolakoa izango da partidua zure iritziz?

Gogorra, izugarri gogorra. Eugik aldamenean duen

aholkularia ezagututa, hamargarren kartoiraingotxiarik, apustu egingo nuke Eugik frontis erditik behera ez duela pilota bakar bat bera ere joko. Jose Louis boxealari estatubatuarrak zioen bezala, «*emaiok latz gorputzean, burua galduko dik eta*».


Kontra izango duen zezenari burua makurtuarazteko gogotik jo beharko dio Eugik. Arretxeren armak anitzak dira buruz buruko norgehiagokatan: joaldi bikaina du, borrokarako go-

sea eta kantxan kokatzean pilotara joaten inork baino hobeto daki.

Uda partean Asegarce beste txapelketa bat antolatzeke burutaziotan dabil; rankingeko bost onenek, hau da, Eugi, Arretxe, Beloki, Errandonea, Oskar Lasa eta Retegi II.ak parte hartuko lukete.

Txapelketa guztiak dira erakargarriak edozein ikuspegitik begiratuta ere. Retegiren partaidetza aipatu duzu... nik txapelketan botilero lanetan aproposago ikusten dut baina agian bere indarrak enbaterainokoak diren zehazki neurtu nahiko du. Hala ere, adinaren poderioz buruz buruko borro-

«**Telebista eta komunikabideen menpe dago pilota eta, alde horretatik, baliteke pilotalekuak baztertuta egotea**»



«Ni belokizalea naiz, baina nahastu egin zen txapelduna. Luzaroan, partidua galtzea bere mesedetan izango da». (Argazkia: A. Elozegi).

ka hauetan ezinbesteko diren baldintzak ezin dira gorde: hanka oso bizkorrak, intentsitate gordinen esfortzuak pairatzeko ahalmena, nerbioa... Zoritxarrez urteak aurrera joan ahala, nekez gordetzen dira ezau-garriok.

Izenak izen, txapelketa giroak pilotazaletasuna pizten duela ez da dudarik. Goñi, Apeztegia, Olai-zola, pilotaren sustrai berriak?

Berde samar daude baina edozein lanbideren gisan, ordu asko eta asko sartu behar dira, kirol honek dituen sekretu guztietaz jabetzeko. Presarik gabe helduko dira. Mikel Goñik huts asko egi-ten dituela diote, esate ba-

terako. Lasai egoteko esan-go nioke nik, goi mailako pilotari bat izateko berezko gaitasuna baitu. Eta bestei ere berdina azpimarratuko nieke. Nik beti esan ohi dut: Bernabeura jokatzera joaten denak futbolaz dena daki, eta ai ama! ez baleki.

Pala, erremontea, zesta ere bete-bete txapelketetan murgilduta dabilta baina eskuzkoaren arrakastatik urrun xamar. Eurei arreta gebiago jartzea aldarrikatzen dute.

Nire garaitan, 50eko hamar-kadan, Rekoletos izeneko pilotaleku bat zegoen Madrilen. Pala eta zesta jokatzen zen eta hura zen festa hura! Madrilgo jet guztia han

biltzen zen. Denak dotore-dotore jantzi eta afal osteko plana pilotalekura joatea zen.

Garai haietan dirua errazago erabiltzen zen eta atzo diru mordoska bat jokuan galtzen zuenak, biharamu-nean, beste horrenbeste irabaziko zuela bazekien. Madrilgo emakume lirainenak han biltzen ziren eta agian pilotariak zertan ari ziren jakin gabe, txolarte gozoa eginez pasatzen zuten denbora. Eta atzerritarrek, inguruan ikusi behar-rekoak agortu ostean, denak pilotalekuan bukatzen zuten.

Zenbat lagun biltzen dira orain pilotalekuetan? Telebista eta komunikabideen

menpe dago pilota eta, alde horretatik, baliteke baztertuak egotea.


Bukatzeko, emango al diguzu finalerako pronostiko bat?

Ezetz bada, esanda dago. Egur batean hasiko dira bi pilotariak, tantu gogor eta luzeak eginez, pilotakada asko elkarriz gurutzatuz; indarrak akitzen diren heinean, orduantxe emango nizuke benetako pronostikoa.

Kafe bat Arretxe txapeldun baietz?

Hori besterik ez bada, hitza hartzen dizut. Pekatu astunik ez dugu egingo bada horregatik, ez horixe!

MARTIN AGIRRE



BEREZIA

MUSIKA

ARGIAREN 1.578 zenbakiarekin orri bereziak / 1996ko maiatzak 19



Merkatua
haize
tresnen
doinuan



Musika
eskuz
landua



Sustrai
zaharren
hotsak




Ordenadorea
jotzen
dugu



Ikasgelak
piano
soinuz
beteak

INSTRUMENTUAK:

ERROETATIK ETORKIZUNERA



Kitarrak ere erosle ugari ditu oraindik, batez ere gazteriaren artean

Merkatua haize-tresnen doinura

Musika tresnen merkatuan haize eta sokako tresnak dira salduenak. Klarineta, saxofoia eta kitarrak dute nagusitasuna. Tresnen salerosketaz gain, ordea, alokairua eta konponketa ere aztertu ditugu, baita erosleen perfila ere.



■ Musika ikasten ari direnek haize tresnak erosten dituzte batez ere. (Argazkia: Alberto Elosgi).

OHITUREN hertsitasuna gairatuz, klarineta eta saxofoiaren moduko tresnak dira musika etxeetako preziatuenak gaur egun. Arrazoia berritasunean dago. Musika ikasten hasten den pertsonak ez ei du izaten oso garbi zein tresna erabiltzen ikasi nahi duen eta klarineta, saxofoia eta tronpetak oraindik sakontasunean ezagutzen ez den musika egiteko modu batek

eman ditzakeen aukerak ikertzeko parada ematen du. Hala ere, betiko tresnen salmentak ez du beherapenik ezagutu. Ezagunena, kitarra da. Gazte jendearen artean oso erabilia izan da. «Betidanik, jende askok kitarra izan du lehenengo musikatresna moduan» Erviti denda donostiarreko Jabier Garatek baieztatzen duenez. Pianoak ere baditu erosle mordo bat, «musika ezber-

din anitz jotzeko bidea errezten duelako. Pianoarekin, musika klasikoa, jazz musika eta abar luze bat interpreta ditzakezu» Angeluko Betbeder musika etxeko arduradunak adierazten duenez. Lapurdiko ardura-

dunak gaineratzen duenez, «azkenaldian esku-soinuaren salmentak gora egin duela azpimarratzekoa da». Dena dela, garbi dago edozein joerak gaur egungo merkatuaren egoera alda dezakeela.

■ Klarineta eta saxofoiaren moduko tresnak dira musika etxeetako preziatuenak gaur egun



Erosteaz gain, tresna alokatzea ere posible da. (Arg: Alberto Elozegi).

Musika etheen salmentak adierazgarriak dira gaur egun, baina duela urte gutxi salmentak oso eskasak ziren. Jabier Garateren iritziz, «Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren sorrerak, bultzada haundia eman zion musika tresnen salmentari 80ko hamarkadan».

Musika-tresnen ugaritasunak, salneurri mailan aukera ugaritzea izaten du ondorio. Noski, bakoitzak nahi duen adina ordain dezake.

Saxofoi batek, 150.000 pezeta (6.000 libera) eta

300.000 pezeta arteko salneurria dauka. Kitarra bat, 15.000 pezeta (600 libera) ordainduz lortu daiteke. Pianoaren erosketak ordainketa garrantzitsua ekarri dezake, gutxieneko prezioa 400.000 pezetatakoa baita. Kalitate oneko tresna nahi bada, milioi pezeta inguru ere (40.000 libera) ere ordain daiteke. Euskal Herrian ezagunak diren esku-soinu eta trikitixak 200.000 pezeta inguruko (8.000 libera) salneurria izan dezakete.

Erosteaz gain, tresna alo-

katzea ere posible da. Beterbeder musika etxeko Rober-

«Euskadiko Orkestraren sorrerak bultzada haundia eman zion musika-tresnen salmentari 80ko hamarkadan» **JABIER GARATE**

ten esanetan, «bezero askok ez dute ziurtasuna erosiko duten tresnaren errentagarritasunean eta borregaitik, ziurtatzeko edo, tresna hori alokatzea erabakitzen du». Iparraldeko dendak pianoak alokatzen ditu, besteak beste, 6 edo 12 hilabetez, hilabete bakoitzeko 300 liberatako (7.500 pezeta) salneurriaz.

Konponketak ere musika etheen beste diru sarrera dira. Ervitiko Jabier Garateren arabera, gainera, «konponketa eskaera izugarri haundia da eta askotan, ezin gara iritsi denak konpontzera».

Bezero moietari dagokionez, denetarik joaten da musika dendara. Eskola bateko arduraduna, maisu bat bere ikasleekin edo pertsona arrunta. «Normalean fede haundia ezartzen da mai-suengan» Jabier Garateren ustetan ■




VIDEOMUSIKA



- Musika Tresnak
- Musika Eskola
- Megafoni Alokabrua
- Diskoteka Mugikorra

Berazubi auzoa Tel. 67.19.59 • Tolosa (Gipuzkoa)



M u s i k a

M u s i k a

M u s i k a

M u s i k a

Egungo musika-tresnagintzan antzinako moduan aritzen dira artisauak

Musika eskuz landua



Jose Manuel Agirrek, dultzainak, danbolinak, danborrak, atabalak... egiten ditu. (Arg: A. Elozegi)

Euskarri Herrian musika-tresna egile bakan batzuk badira. Ia artisau lana eginez, soinu ezin hobea lortzearen dihardute duela mende asko erabiltzen ziren teknika berberekin.

MILIMETRO baten gora-beherak erabat aldatu dezake musika-tresna, eta neurri berean beste edozein osagarri ere. Horregatik du ga-

Ipar Euskal Herriko kreaio eta Plaza taldeak euskaraz...



Kontratazioa,
Diskak
kazetak

ZTK c/o Paxkal INDO
La Tartane, Cépé karrika
64500 DONIBANE LOHITZUN
Tél. 59 20 88 38
EDO : 59 37 41 90 - 59 26 46 21
Fax 59 26 71 57

**Skunk, Mister Saguak,
Txakun, Papadaki,
Irrintzina,** etab...



rrantzia musika-tresna bat egiterakoan izan ohi den eskulanak, kontu handiz zaindu behar dira xehetasun guztiak, dultzaina egiteko erabiltzen den egur motatik hasita, biolin bat egiteko erabiltzen duen kolaraino.

Instrumento on batek eskatzen duen zehaztasunaren ondorioz ia musika-tresna egile gehienek artisau lanean aritzea beste irtenbiderik ez dute. Eta kasu gehienetan duela mende asko erabiltzen ziren teknika berdintsuak erabiltzen dira oraindik, aldaketaren bat edo besterekin. Horrela adierazi digu Iruñan Nafarroako gaita egiten duen Jabier Lakuntzak, «*gaitak ez du aldaketa handirik jasan, tresna berak ez baitu aldaketarako aukera handirik ematen eta ondorioz lantzeko modua ere ez da aldatu*». Antzekoa dio Silbestre Elezkano «Txilibrin»ek ia 70 urte albokak egiten jardun eta gero, «*antzeria egiten ditut orain ere, baina batzuk sartzeko beste marrazki boheagoa egiten dut orain*».

Material berriak

TEKNIKA ia antzerakoak mantentzen badira ere, zenbait materialekin eginiko ikerketek emaitzak eman dituzte. Txistua edo dultzai-



«Txilibrin» albokari ezaguna izateaz gain, egilea ere bada, ia 70 urte inguru daramatza albokagile lanean (Argazkia: Aitor Gonzalez Kintana).

na duela urte batzuk arte ezepele edo ebanoz bakarrik egiten zen, baina adibidez Jose Mari Agirre tolosarrak polimeroz egiten ditu dultzainak duela bederatzirte urtetik hona. «*Froga ugari eta ordu pila bat lan egin ondoren lortu genuen material honekin lan egitea*» Martin Requeño luthierraren esanetan «*laborategiak daude orain, antzinako formulak berreskuratzen saiatzen da jendea, berniz egokiak topatzen...*»

Pazientzia eta lan ordu ugari eskatzen ditu musika-

tresna bat egiteak, eskainiriko denbora horrek behar bezain besteko ordainik ez du izaten gehienetan, «*alboka bat egiteko denbora asko behar da, eta kobratu, ez da kobratzen erdia ere. Alboka bat egiteko aste bete behar dut, eta gero alboka hori 12.000 pezetatan saltzen da*» dio 83 urte dituen «Txilibrin»ek. Biolin bat egiteko orduak ere ez dira gutxi, «*140 ordu behar ditugu biolin bakarra egiteko, eta bernizatua baldin bada, erabiltzen den bernizaren arabera 180 edo 200 ordura*

luzatzen da» azaldu digu Lanbroa luthier tailerreko Andoni Iñarrak.

Hilabetean bi biolin saltzen dituzte gutxi gora behera Bilboko Lanbroa luthier tailerrean, eta luthier-ek egiten dituzten beste instrumentuak, biola, kontrabaxuak, edo harizko beste edozein instrumentu eramangarri, biolina baino askoz ere gutxiago saltzen dira.

Orokorrean -Zarauzko Enrike Keller musika-tresna enpresa handia kenduta- gehientsuenek produkzio

bitarte



MUSIKA ETA
LIBURU
BANATZAILEA

B E R R I K U N T Z A K :

- ✓ SOROTAN BELE: Jonen kezkak
- ✓ EGAN: Meta eginez
- ✓ ZIGOR GAZKEZ

ETXE HAUEN LANAK BANATZEN DITUGU:

- IZ
- SEA SOAR ETA ABAR
- AGORILA
- HIRUSTA
- BANAKO
- NO-CD RECORDS

BITARTE OSATZEN DUTE:

YOAR

Berriainz poligonoa, B kalea, 44 pab.
31195 Berriozar (Nafarroa)
Tel.: 948/30 24 00 Faxa: 948/30 27 08

SORTALDE

La Florida auzoa, 56-21. lokala
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel.: 943/55 05 72. Faxa: 55 75 54

BITARTE

Fontecha eta Salazar, 1 behea
48007 Bilbo
Tel.: 94/ 445 62 90 Faxa: 445 15 42

«Alboka bat egiteko denbora asko behar da, aste bete. Eta kobratu, ez da kobratzen balio duenaren erdia ere»

TXILIBRIN

txikia dute. Horrela aitortu digu Martin Requeñok: «jendeak ez du dirua gastatzen instrumentu on batean, oso zalea edo profesionala ez baldin bada behintzat». Luthier tailerrean egindako biolin bat 200 mila pezetatik gertu dabil, «Txilibrin-en alboka 12.000 pezeta inguru, Agirrek eginitako polimerozko dultzaina 18.000.

Bizibide zaila

Guztiak bat datoz, zaila da musika-tresnak egitetik bizi ahal izatea, Jabier Lakunza dultzainagileak dioskunez, «ez du bizitzeko adina ematen, ekonomikoki interesgarria balitz beste enpresa handiagoak sartuko lirateke». Berdintsu jardun zaigu Andoni Iñarra ere: «Zaila da artisautzatik bizitzea. Gure kasuan, adibidez, jendeak ez du luthier-engana jotzeko obitura handirik, eta



Luthier tailerrean biolin bat egiteko 140 edo 180 ordu bitartean behar dira.

orain pixkanaka sartzen ari gara luthergintza». Baina aldea dago instrumentu batetik bestera, Jose Manuel Agirre tolosarrak dioenez «danbor, danbolin eta ata-

balak egiten ditugu. Herrietako danborradak direla-eta eskaera handiagoa izan obi dugu. Eskaera badagoe-la-eta panderoak egiten ere hasiko gara».

Agian ez du bizitzeko adina emango musika-tresna egiteak, baina orain arte mendeetan iraun baldin badu, beste hainbatetan iraugo du ■



MUSIKA ESKOLA

M. Recarte


Anaka, 40 Tel.: 61 66 58 IRUN

ARGIZTAPEN PROFESIONALA

ARGI IBILI



EZPELETA - MOBILA 07-33-085 88 43 11



Euskal Herrian bizirik mantentzen dira hainbat musika tresna zahar

Sustrai zaharren hotsak

Antzinako musika-tresna batzuk oraindik gurekin ditugu. Bainan era berean, beste hainbat ere bidean galdu dira. Laister jasota egongo dira Oiartzunen ireki asmo den herri musikaren museoan.

AKUSTIKA legeak unibertsalak diren heinean, musika-tresnak ere halaxe ei dira. Beraz ez da harritzekoa, munduko edozein bazterretan Euskal Herrian dugun musika-tresna baten tanke-rakoa topatzea.

Elementu berak, baina, eskala, material, xehetasun eta erabilera ezberdinekin: hari baten bibrazioa leku askotan erabili izan da soinua lortu ahal izateko, baina lekuan lekuko elementu ezberdinekin bibratu arazi da haria: makilarekin, arkuarekin, behatzekin edo beste hainbat elementurekin. Eus-



Dultzainaren funtzioa aldatzen da lekuaren arabera, zenbaitetan txistuak ordezkatzeko zuten.


kal Herrian ere berezitasun propioak dituzten herri musika-tresna aukera dugu.

Urteetan atzera eginez gero Euskal Herrian izan diren musika-tresna multzo

zabal batekin egin dezakegu topo, baina batzuk gorde badira ere, beste horrenbes-

te bidean galdu direla esan daiteke.

Gaurdaino bizirik iritsi diren musika-tresnak, edo noizbaiten beraien erabilerraren berri izan dutenen testigantzen ondorioz jasotako tresnen inguruan, lan ugari egin du Juan Mari Beltranek. Bere ustez antzinaran erabilitako instrumentu hauetako batzuk bizirik gordetzearen arrazoia praktikotasunean topatu behar da batik bat, «alde batetik hauek betetzen zuten funtzio praktikoagatik mantendu izan dira, eta bestaldekik tradizioarekiko zuten loturak zerikusi handia izan du. Musika-tresnaren batek obituraren batekin lotura handia izan bazuen, beranduago obitura hori desagertzean tresna bera ere desagertu egiten da. Ho-



Juan Mari Beltranek 300 tresna inguru bilduko ditu Oiazungo Herri Musikaren Museoan. (Arg: Alberto Eloseggi).

rixerik izan da gure herriko musika-tresna askoren patua.

Alboka, sunpriñua, txistua, tobera, rondailak, trikitixa, txalaparta, dultzaina, tronpa... eta antzerako beste hainbat tresna jaso izan ditu Juan Mari Beltranek bere lanetan. Baina haren hitzetan, Euskal Herriko musika tresnen artean nagusiki haizezko instrumentuak nabarmendu behar dira.

Euskal Herri osoan topa ditzakegun txistua eta dultzaina dira nagusitasun horren adibide argiena, bakoitza bere ñabardura eta funtzioekin. «Bizkaiko dultzaineroak ez dituzu ikusiko dantza erritual eta ziklikoki egiten diren saioetan. Txistua erabiltzen zen dantza ofizialetarako. Nafarroan alderantzizkoa gertatzen zen, Nafarroako gaitak lekua zuen eta du dantza ofizialetan. Haizezko instrumentuen nagusitasunaren beste adibide bat: gaur egun Otsagiko dantzak eta dultzaina lotuak daude, baina orain dela ebu urte ziur gaude instrumentu horrekin ez ze-

la egiten. Ez da inongo dokumentazio zabarratan jasotzen tresna hori. Baina egun erabat lotua dago. Beraz XVII zein ote zen dantza horietarako erabiltzen zen tresna?»


Antzinako tresnen berreskuraketa

GARAI batean erabiliak izan ziren baina orain galduak diren herri tresnen zerrenda luzea izan daiteke: arrabita, lauda, biruela, zarrabetea, arpa... Baina desagertze zorian zeuden batzuk ere berreskuratu dira, adibiderako, xirularrua edo kornamusa deitua.

Tresna hau galdutzat jotzen zen, Galiziako gaitek bere lekua hartu baitzuten. Baina galiziar gaita hauek ekarri aurretik eginiko xirularrua aurkitzean berreskuratu egiten da musika-tresna hau.

Askotan berreskuraketak kasualitatearen fruitu ohi dira, eta xirularriarekin gertatu zenaren antzera, sunpriñua berreskuratzea ere zoriaren emaitza izan da Beltranek dioenez, «ez da ezer idatzirik azaltzen sunpriñuaz, halako batean enteratu giñen oso erabilia izan zela. Anaia eta biok txistua jotzen ari ginela herri batean, hango zahar batek beraiek sunpriñua jotzen zutela esan zigun. Kasualitatez ordea. Zenbait teoria badaude, arabek ekarria dela... Tresna hori abo bikoitzeko tresna da, oboe baten basiera».

Beste batzutan instrumentu gordea egon harren ezezaguna izan da, «laban eta gurazte zorrotzailek duten txirularen tankerakoa ikusi nuen Parisen, Gi-




GAUTXORIAK

KULTUR PRODUKZIOAK S.L.

TLF.: (94) 437 33 69 Faxa: (94) 437 97 81

MOBILA: 907 - 20 85 82



zakiaren Museoan, eta han Euskal Herriko tresna bezala izendatzen zuten. Nire zalantzak nituen ea zer ote zen, hemen agerturikoa edo hemen erabiltzen zutena zen... Geroago San Telmo museoan aurkitu nuen antzeko tresna, eta dokumentazioa ere bai. Nonbait, Hegoaldean dexente erabili izan da, zikiriatzaileek erabiltzen zuten, zikiriatzaileen txilibita deitzen zioten».

Herri musikaren museoa

BERRESKURATU dira tresnak, baina asko ia dokumentu mailara mugatu dira. «Berreskuratze prozesuan

«Musika tresnak salbatu ordez balio digutelako erabili egin behar dira» JUAN MARI BELTRAN

oso gauza garrantzitsua falta zaigu. Tresna hemen dago baina zer egiten ze horrekin?. Adibidez, Bizkaian arrabita nola jotzen zen jakiteko Kantabria aldera jo beharko dugu». Baina normaltasuneraino berreskuratzea zaila egiten da Beltranen iritziz: «Balio dizuna mantendu behar da, bestea dokumentu mailan jasotzeko da. Gauzak salbatu ordez, balio dizutelako erabili egin behar dira. Modu bizian erabiliz, izango

dute tresnek bizia»

Musika-tresna zaharrak oroimenean ez dira galduko, laster museoan lekua izango baitute. Juan Mari Beltranek hainbat urtetan bildu dituen musika-tresnak -300etik gora orotara- erakusgai izango dira jendearentzat museoaren atak zabaltzean.

Erakusgela bakarrik ez, beste hainbat osagarri ere izango ditu: herri musikari buruzko liburutegia, filmatagia eta noski horrelako


leku batetarako ezin aproposagoa den Euskal Herriko eta mundu osoko musika jasoko duen fonoteka ere izango ditu.

Tailerra ere izango du, soinu-tresnak nolakoak diren, nola egiten diren, aztertu eta bertaratzen direnei erakusteko.

Oraindik ez dago argi noiz zabalduko den, bien bitartean tresna guztiak banan-banan sailkatuz lana aurreratuz doa Oiartzungo Udalak utzi dion lokalean.

Ateak irekitzean gauzatu-ko da Beltranen duela hamar urtetik zuen ametsa: herri musika tresnen sustraiak erakutsi eta irakasteko asmoz eginiko museoa ■

MODULOZKO ERAIKUNTZEN ALOKATU ETA SALMENTAK



- ✓ ESKENATOKIAK
- ✓ TRIBUNAK
- ✓ KARPAK
- ✓ KOMUN KIMIKOAK
- ✓ TXOSNAK
- ✓ KAMERINOAK

- IKUSKIZUNETARAKO AZPIEGITURARIK ONENAK
- KONTZERTU, FESTA ETA JAIALDIETARAKO BEHARREZKO OSAGIAK

Barrondo Auzoa 48480 ZARATAMO (BIZKAIA)
TEL.: (94) 671 08 93 - 671 04 75 / FAXA: (94) 671 13 58

etxekit 



Musika teknologia berriz egitea inoiz baino etekin gehiago ematen ari da

Ordenadorez jotzen dugu



Paxkal Indo (erdian) tradizioa sormenetik banatu ezin delakoan dago. (Arg: A. Elozegi).

Zer egiten da hemen musika berrien esparruan? Asko al dira Euskal Herrian teknika berriak besarkatzen dituzten musikariak? Guk laurekin hitz egin dugu: Aitor Amezaga, Iñaki Salvador, Paxkal Indo eta Joxan Goikoetxearekin.

MUSIKA berria zer den definitzea zaila da, badao musika berririk ez dagoela esaten duenik ere, dena asmatua dagoela jada. Baina ezin da ukatu doinuekin esperimentatzen duten musikari asko dagoela, eta ohiko doinuekara ohituak dauden gure belarri gorra esnatzeko gai direla gainera. Erritmo hauskorrak sortzeko ezinbestekoa bilakatu zaie musikari hauei ordenadorea.

Urte asko dira jada konposatzeko informatika erabiltzen hasi zenetik. Beranduxeago iritsi da Euskal Herrira, baina geroztik nor ez da jabetu telebista edo irrati sintonia bitxietaz? Hauetako askoren egilea Aitor Amezaga dugu. Bederatzi urte daramatza ordenadorearekin konposatzen eta hemen lehenengoetarikoa izan zen. Geroztik, 200 sintonia grabatzeaz gain -ez hemengo irrati telebista kateentzat

KRIC**KRAC**

Soinu

eta

Argiak

Zure lokal eta aurrekontuaren arabera musika ekipoak

Musika talde berri nahiz ospetsuentzat, bertsosai, txosna, modelo erakustaldi, dantzaldi, jai aurkezpen eta edozein ekitaldi eta lekutarako ARGIA ETA SOINU EKIPOAK dauzkagu; esperientzia handiko profesionalak gaituzu

Zure beharren berri emango dizuten lagunak gaituzu

Gaztelondo kalea, 5 / Tel.: 94 - 422 28 18 / 480005 BILBO

«Atzerriko emanaldietan jendeak txalaparta hartzen du tresna berrizat, ez ordenadorea edo sanplerra»
PAXKAL INDO

bakarrik baita TVerentzat ere-, 80 diskotan ere parte hartu du: «Edozein musika egin daiteke ordenadore eta teknika digitalekin. Ez dago mugarik, ordenadoreak edozein soinu sortu dezake burmuin baten antzekoa da, baina burmuin tontoa, azken finean zu baitzara doinuak sartzen dituen. Oso azkarra eta eroso da. Orain ordu batean konposatzen dira partiturak, ez duela hamar urte bezala». Informatika ez ote den bizitzaren esparru guztietara iritsiko edo... baina Amezagaren ustez tresna honen erabilera desmitifikatu behar da, izan ere «ez baitu musikarien lana ordezkatzeko. Asko kexu dira, baina alderantziz gertatzen da; lehen baino lan gehiago dago orain. Gainera ez du zertan gizakien aurka joan beharrik, biak uztartu behar dira».



■ **Aitor Amezagaren ustez informatikaren erabilera desmitifikatu behar da. (Arg: A. Elozegi)**

Orain arte midi grabazioa edo sintetizadoreekin egindako doinuak erabiltzen ziren ordenadorean, baina «grabazioak disko gogorren egiten direnetik nahasketen aukera askoz handiagoa da» azaldu digu Amezagak.

Txalaparta sound

DOINU naturalak grabatzea gustokoa du Amezagak bere musika egiteko orduan, sanplerra eta honez gain, tresna berriak ere erabiltzen

ditu: Juan Mari Beltranekin batera, harriz nahiz metalez egindako txalapartak erabiltzen ditu batetik, eta bestetik frantziatik datorren potin baten antzekoa.

Lapurdin ere badago txalaparta eta ordenagailuaren doinuekin jolasten duenik: Paxkal Indo, Txakun taldeko kidea. Udarako, «Txalaparta Sound System» izeneko ikuskizuna prestatzen ari da: «Frantzian zehar joko dugu, musika garaikideko festibaletan barna, txala-

parta beste girotan sartzeko xedearekin. Harrigarriena zera da, jendeak txalaparta hartzen duela tresna berrizat eta ez ordenagailua edo sanplerra». Donibandarraren ustez, aintzindaria da bere musika. «Ez dugu instrumentu modernorik erabiltzen, gure musika ordea aski aintzindaria da. Euskal tradizioetik abiatzen gara eta gero inprobisazio erritmikoak egiten ditugu». Indoren esanetan, tradizioa ezin da banatu sormenetik

Кукубилтхо
 Antzerki Taldea
 "Jaiotza"
 Kale Ikuskizuna
 "Mundua Salba Dezagun"
 Barne Ikuskizuna
 "Behin Bazen"
 Barne Ikuskizuna
 (94) 455 83 66

IMUNTZO eta BELOKI
DISKA BERRIA
 Saturnotrik

«Abangoardia egiten ari gara, euskaraz,
eta erakundeek ez dute interesik jartzen»
JOXEAN GOIKOETXEA

eta ez dago sormen onik, ez badago tradizioirik. «Hori da gure mezua» erantsi du.

Jazz mataz, guru, acid jazz, edo antzeko musikak gustokoak ditu Indok eta teknoa ere konposatu ohi du, baina joko modura. Txakun taldearekin ttiki-txakun tresna erabiltzen du. «Taldeen txalaparta erabili nahi genuen baina mugitzeko erosoagoa izan zedin txikiago bat sortu genuen». Txalaparta Sound System osatzen duten hiru musikariek ez dute oraingoz diskorik kalean, dena den oraingo muntaiak duen harrera ikusi behar-ko.

**CD-ROM bat
estreinakoz**

BENETAN ausarta izan dena Joxan Goikoetxea musikaria dugu: urriarako prest izango du Euskal Herrian musika arloan ekoiztu den lehenengo CD-ROMa, bere seigarren diskoarekin batera kaleratuko dena. «Orain arte oso lan gutxi dira biak batera ate-

ra dituztenak. Formato berri honen aldeko apustua egiten dut. Egia da espazio eta diru kontua da-goela tartean eta merkaturan dauden CD-ROMen kalitatea ez da oso ona. Askotan musikaria ez da-goelako proiektuaren atzean, diskoetxea baizik, Bob Dylan gertatu zaiorenaren antzera». Joxan Goikoetxearen ustez oso garrantzitsua da musika begietatik sartu ahal izateko aukera, «musikaren bitartez zerbait zehatza esan nahi baduzu laguntza handia da» gaineratu du musikariak. Bere seigarren disko honetan abestiek amodio eta desamodioaren hari nagusia jarraitzen dute eta irudiez baliatzen da horri eusteko.

Eskusoinua izan da beti Goikoetxearen instrumentua; akordeoi midi bereziarekin sintetizadorea sartu ohi du, oraingo lanean ordea ez zuen doinu honen beharrik. «Teknologia badago, samplerra eta sintetizadoreak, baina hau ez da niretzat helbu-



Joxan Goikoetxeak Euskal Herrian musika arloan ekoiztu den lehenengo CD-ROMa kaleratuko du. (Arg: Alberto Elozegi).

ria. Badirudi, teknologiarekin musika konplexua egitera bultzatua zaudela, nik ordea abesti askotan pianoa eta abotsa bakarrik sartzen ditut. Nire helburua musika egitea

da, ez musika konkretu bat». Flautarekin ez zuen inoiz lan egin eta presentzia izango du. «Niretzat bain berria da Pakistango flauta edozein sintetizadore bezala. Eta noski

SOINU ETA ARGIZTAPEN EKIPOEN
ALOKAIRU ETA ISTALAKUNTZA
BIDEO-PROIEKTOREAK-
(IKUSENTZUTEKOAK)-PANTAILAK


SOINU - ARGIZTAPENA



irudi **o** ts

GRABAZIO PLATOA BIDEO-ZINEMA
ETA TELEBISTARAKO GRABAKETA
PLATO 24 PISTA DIGITALEZKO
GRABAKETA ESTUDIOA

IRUDI-OTS S.L. Pol. Industrialdea, Gabiria 15. Edif. BIZKARGI, 8-9. Bentas Auz. 20300-IRUN -Tel (943)631632 Fax (943)631602



esku egon da: «Jendea konturatu da estudioen monopolioarekin bukatu behar dela eta hasi da gauzak bere kabuz egiten». CD-ROMa berriz, Tolosako Zut enpresan ekoiztu da.

Musikari elkartuak

PRODUKZIOA Joxan Goikoetxearen esku egon da, ez du inongo dirulaguntzarik jaso. Alde batetik honek eman dion askatasuna azpimarratu du nahi izan du Goikoetxeak, baina bestalde kexu agertu da erakundeen interes gabeziak. «Aurkezpena Koldo Mitxelena egitea gustatuko litzaidake, urria aldera, baina gaur bertan beraiekin bitzegiten egon nahiz eta nire lana nolakoa izango den jakin gabe kalitatez ikusi behar dala esaten hasi dira. Abangoardia egiten ari gara, euskaraz eta ez dute lana ikusteko ere interesik jartzen».

Íñaki Salvador pianojolea, duela bi urte sortu zen Euskadiko Musikari Elkartuen zuzendaria dugu. Goikoetxea ez bezala, baikor agertu da dirulaguntzei dagokionean; Eusko Jaurlaritzako

Kultura Sailetik antzeko proiektuak babesteko egitasmoaren berri jaso baitu. Íñaki Salvadorrek ere badu zeresanik musika eta teknika berrien arloan, izan ere urte mordo darama ordenadorea erabiltzen bere piezak konposatzeko. «Hasieran ez nuen ordenadoreak erabili nahi, arrotza egiten zitzaidan. Azkenean, sekulako abantailak dituela konturatzen zara, baina honek ez du esanahi musika ordenadoreak egiten duenik».

Datorren jazzaldirako prestatzen ari den emanaldia azaldu digu: «Jazza eta folka nabasten ditut ordenadorearekin, musika berrikoia oinarritzat hartuz. Amaia Zubiriarekin batera taularatuko dut, Victor Zelada, Gonzalo Tejada eta antzeko musikariekin batera». Informatika konposatzeko bakarrik erabili ohi du Salvadorrek, gero taulatan ez du gustokoa nahasketak sartzea.

Parada ederra aurtengoa beraz tresna modernoez sortutako musikaren goxotasuna zuzenean entzun ahal izateko ■

sintetizadoreak ezin du flauta hori imitatu».

CD-ROMaren ezaugarriaz ere mintzatu gara. «200 mega arteko irudia izango du, beraz toki bandirik ere ez dago imajinarentzat. Lehenengoa proba bat besterik ez da eta diskoaren prezio berdinean salduko da. Testu

guztien itzulpen asko sartzen dira. Surrealismoaren estetika barruan egin dugu lana. Dena den ez zaizkit interesatzen jolas moduko lanak, estetika eta edukina gehiago lantzen ditut» adierazi du Joxan Goikoetxeak. Diskoaren grabazio lana Goierriko Lagun estudioen

BETBEDER MUSIKA DENDA

Musika Tresnak ● Salmenta ● Alokairua
● Konponketa

Euskal Herriko aukerarik handiena


Route des Pontôts - 64600 Anglet - Tel.: 59 63 52 85

TRIKI TRUK

SOINU ETA ARGIAK

- Bertsolariak, mitinak, txoznak eta mota guztietako kontzertuak
- Zure gustoko kontzertuak antolatzen ditugu

Telefono honetara deitzea bertzerik ez duzu
Tel. eta Faxa: 948 - 63 09 70 31780 BERA (NAFARROA)



Ikasgelak piano soinuaz beteta

Musikaren irakaskuntzak ikasle kopuru handia erakartzen du. Gaur egun 30.000 ikaslek burutzen dituzte musika ikasketak Hego Euskal Herrian, Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta udal erakundeek eskeintzen dituzten laguntza ekonomikoei esker. Pianoa da musika-tresna aukeratuen.

AZKEN hamarkadan musika akademi edo eskolek hazkunde nabarmena ezagutu dute. 1985ean 30 ikastetxe zeuden Euskal Autonomi Elkartearen eta aurren, kopuru hori 135 ikastetxeraino iritsi da Hego Euskal Herrian. Gipuzkoan aurki dezakegu aukera handiena, 46 ikastetxe baitaude bertan. Nafarroan ere musika eskolak oso hedatuta daude eta 41 zentroko sarea dago. Pasa den urteko matrikulazioen

datuak kontutan hartuz, musika eskolek 30.288 ikasle zituzten Hegoaldean.

Musika eskoletako irakaskuntza bi arlo nagusitan banatzen da. Musika-tresna baten erabilera ikasteko arloan matrikulatutako ikasleak dira gehiengoa Euskal Autonomi Elkartearen, 20.000 ikasle dituztela; gainontzeko ikasleek —5.000 orotara—, ez dute musika-tresna konkretu baten irakaskuntza hartzen, koroa, dantza



30.000 ikasleko kopuru osotik herenak ikasten dute pianoa Euskal Herri Hegoaldean.

eta solfeoa bezalako ikasketak baizik.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legean (LOGSE) edo 66ko Planan oinarrituz ikasten dute ikasleek gaur egun. Lehenengoan ikasle gaztee-

nak edo urte gutxi daramatzatenak daude eta bigarrenan, berriz, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea (LOGSE) onartu baino lehenagoko ikasleak. LOGSE sistemaren bidez ikasten duten ikasle

LAGUNA
STUDIOS

- GRABAZIORAKO ESTUDIOA
- DISKOETXEA
- MUSIKA PRODUKZIOAK
- SISTEMA INFORMATIKOA
- MUNTAIA DIGITALA
- ERAKUSKETEN ANTOLATZEA

HARREMANAK: XABI PERY / CASINO BELLEVUE / 64200 MIARRITZE / TEL. (07-33) 59 22 51 85 / FAXA: (07-33) 59 22 51 87

kopurua zabalagoa da. Musika eskoletan dagoen beste banaketa garrantzitsua ikastetxe publiko eta pribatuaren artekoa da. Ikastetxe publikoaren sarean pilatzen da ikaslegoaren gehiengoa, baina zentro pribatuak publikoak baino kopuru handiagoa osatzen dute Euskal Autonomi Elkartearen, Nafarroaren ez bezala. Bertan udal musika eskolak dira gehiengoa.

Ikasle gehiago, laguntza gehiago

HEGO Euskal Herriko lau herrialdeen artean ikasle kopurua guztiz ezberdina da. Gipuzkoa da ikasle gehien dituen, 12.000 ikasle baino gehiago baititu. Bizkaian 10.000 ikasle ari dira. Nafarroak 5.500 ikasle ditu eta Arabak, berriz, Hegoaldeko herrialdeetan ikasle kopuru txikiena du; orotara

2.000 ikasle.

Musika eskola gehienak Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasotzen dute eta

laguntza hori ikasle eta hauei eskainitako ordu kopuruaren arabera handiagoa edo txikiagoa izaten da. Azken urtean Eusko Jaurlari-

tzak 522 milioi pezetatako (21 milioi libera) diru laguntza eman zuen eta Nafarroako Gobernuak 132 milioi pezetatakoa (5.280.000 li-

HEGO EUSKAL HERRIKO MUSIKA IKASLEAK

MUSIKA TRESNAK	91-92	%	93-94	%
PIANOA	7.160	45,49	8.195	44,27
ESKU SOINUA	2.281	14,49	2.052	11,08
BIBOLINA	1.170	7,43	1.819	9,83
KITARRA	1.239	7,87	1.468	7,93
TXISTUA	644	4,09	724	3,91
TRIKITIXA	-	-	382	2,02

E.A.E.

MUSIKA TRESNAK	94-95	%
PIANOA	10.146	33,82
ESKU SOINUA	3.137	10,45
BIBOLINA	2.214	7,38
KITARRA	1.990	6,63
TXISTUA	1.035	3,45
TRIKITIXA	472	1,57

NAFARROA



JORDI

SONIDO E ILUMINACION


- Grabazio Estudioa
- P.A. Soinu Ekipoak
- Soinu Industrialak
- Megafonia
- Argiztapen profesionala
- Garraioetako kutxak

Saleve Komunitatea 101
 Lastaola poligono industrial
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 Tel. (943) 33 20 30 Faxes: (943) 33 20 29

Soinu ta



Argiztapen




Ikasleek pianoa aukeratzeko egiteko eta trikitixa eta txistua bezalako musika tresneak ikasle gutxi dauzkate

bera). Diru laguntzen zati nabarmenena ikastetxe publikoek jasotzen dute, hauek erakunde ofizialen nahiz udalen dirua jasotzen dutelako. Eusko Jaurlaritzaren bitartez 418 milioitako (16.720.000 libera) diru laguntza jasotzen dute eta udalek urteko aurrekontuaren erdia baino gehiago ordaintzen dute kasu gehienetan. Nafarroan, udal musika eskolak dira laguntza jasotzen dutenak, antzina «kontserbatorio» moduan izendatuta zeuden musika eskolak udalen gidaritzapean irakasten dutelako gaur egun. Musika eskola pribatuak ez dute subentziorik Nafarroan. Euska Autonomi Elkarteak ikastetxe pribatuak, berriz, erakunde ofizialen laguntza jasotzen dute, 92 milioi pezeta (3.680.000 libera), hain zuzen ere. Ikasleek musika-tresnaren erabilera ikasteko orduan aukera anitz ditu.

Pianotik trikitixara

SOKAKO tresnak, egurrezkoak, metalezkoak, tekla-dunak eta abar luze batek,



Kitarrak, biolinarekin batera, 1.000 ikasle inguru ditu Hegoaldean.


aukera eremua zabaltzen dute. Orokorrean, pianoa da nagusia. 30.000 ikasleko kopuru osotik, 10.000 dira pianoa ikasten dutenak. Kopuru mailan, esku-soinua edo akordeoiak jarraipen handia du, 3.100 ikaslere-

kin, hau da, ikaslego osoaren % 10 inguru. Biolina eta kitarrak ere badute garrantzia, 1.000 ikasle baina gehiago baitituzte.

Euskal Herrian usadio zaharreko tresnak jarraipen nahiko txikia dute. Trikiti-

xak 472 ikasle baino ez zituen joan den urtean, ikaslegoaren % 1'57a. Txistuak onarpen nabarmenagoa dauka ikasleen artean. 1.035 ikasle aritu ziren joan den urtean hau ikasten, hau da, ikaslego osoaren % 3'45a ■


Egileak: Ixiar Rozas, Andoni Urbistondo eta Arritxu Zelaia



JORGE DE OTEIZA

(ARTEA ETA PENTSAMENDUA)

Andoni Alonso / Iñaki Arzoz



ESNE-BIDEA

(GURE GALAXIA)

Jesus Arregi

Euskal pentsakera eta artearen maisu den Oteizaren filosofia, estetika, erlijioa, arkitectura, poesia, euskara, antropologia, eta artea. Lehenengo aldiz, euskaraz.

KALEAN JADANIK!!

ESKATU ZURE LIBURUDENDAN!!

Gure galaxiaren nebulosak, kumuluak, izarren eboluzioak, nano zuriak, pultsareak, zulo beltzak, jaiotzen ari diren planeta berriak eta beste hamaika istorio Jesus Arregi fisikariaren eskutik.

300 orrialde, argazki ugari eta azal gogorrak

LIBURUDENDETAN JADANIK!!



GAIK ARGITALDARIA

Museoak, ospakizun eta debatean

URTEAN behingo zitari helduko dio datorren 18an Nazioarte mailako Museoen Egunak. Ospakizunak han-hemenka izango diren honetan, museoen itxura beteagotuko duten esperantza kultur arduradunen erronka nagusia bilakatuko da. Nazioarte mailan, esate baterako. Zorrotzenentzat, berriz, museoak kultur erreferentzia ezinbestekoak direla frogatzeko eguna. Baita Euskal Herrian ere. Bisitariontzat, bestalde, museoek gizartean behar adinako proiektuorik duten galdetzeko eguna, beharbada. Bisita joan, bisita etorri, urtea joan, urtea etorri, erakusketa geletako giroa nahi baino hotzagoa izaten delako. Aurpegiak ia betikoak direlako, ibilera mugimendu handirik ez baita izaten eta elkarriketa sutsu edo istilutsurik apenas somatu ohi delako. Arteak pasioa falta luke oraindik.

NORK bere herrian, bertako museoaz gogoratzeko eguna, kaletar arruntarentzat. Urtetik urtera diren aldaketa eta berrikuntzen berri izateko egun aproposa. Herriko ondarea zaindu beharrekoa baita. Horrenbeste balio metatua eta gordeak ondo kontserbatzea behar du eta! Gizarte mailan, kasurik onenean, nahiko oharkabean pasatuko den eguna, ezkorrenei erreparatuz gero. Egunkari kulturzaileenek aipamen txiki batzuk baino ez dituzte sartuko. Aldizkako argitalpenetan maitasun kontuak gehiago preziatu ohi direlako. Akaso zenbateko aurrekontua jaten duten ere gogoraziko digute. Bitartean, politikaritzoek, mass-mediaren antzera, aurreztu beharra gogoratuko dute. Zuhurrenak, hainbat proiektu bideragaitz, eta lotsagabeenak, 'marroiak' direla gehi-

tuko du, agian. Kultura ez omen da errenta. Museoak, zein biltegi mota? zer gordetzen dute hain baliotsurik?

AURTENGO leloa, «orainean kontserbatu, gerora begira». Orainetik hasita etorkizuna oparoagoa izango delako ustean. Geroa beti amets. Museoak kultur eragileak bilakatuko di-

EAEn oraindik zehaztu gabe dago Museoen legea, urtetako egonean; eta museo sarea zehaztu bitartean, honelako egunek esanahi berezia izango dute.

Ametsa baino gehiago, ezbairik gabe. Hamahirugarrenean ere inor gutxi egin dio huts Senpereko gonbiteari. Aintziraren babesean urratsez urrats ibili ziren milaka lagun, ikastolen festa handian. Seaskako 19 teiltuen alde eta bereziki Kanboko Xalbador ikastolari laguntzeko, berriz, han bildutako libera eta pezetak. Euskaltzaleak gustura eta antolatzaileak zeresanik ez. Artean gabezi oro estaltzeke baina guztion saioarekin ametsa beteko den itxaropenez.



renekoak, ondarea behar bezala zain-tzen ikusiko dugunekoak, bestalde, amets gaiztoa. Kultur zientzi-fikzioa. Bitartean, EAEn oraindik Museoen Legea zehaztu gabe. Urtetako egonean. Lurraldeka ere, besteen berri ia izan gabe, bakardade behartuan. Izan ere, Euskal Ondarearen Legeak aurrikusitako 'Nazio' mailako sarearen antolaketa oraindik gorpuztu gabe baita. Zurrumurrak baino ez oraingoz. Arabako Arte Eder Museoa, Bilboko Arte Ederretakoa eta Donostiako San Telmo, Guggenheim-ekin batera 'nazio' mailan egon ote litezkeen. Txutxumutxuak oraindik. Betiko gerokotan aztergai. 'Bilboko Handiak' urrea distiratsu utziko duelakoan. Eta bitartean, Museoen Plangintza berria atzeratzekotan berriz ere. Beste puska batean. Orain arte norbera bere kasa ondo moldatu da eta.

NAFARROAKO eta Iparraldeko museoak ezezagunagoak dira akaso. Euskal kultura elkarrengandik gero eta ezjakinago. Noizbehinkako harremanak baino ez. Antolaketa organikorik batere gabe. Elkarlanaren fruituak bildu ezinean. Agian harreman pertsonal batzuk izango dira, museo teknikari batzuk amankomunean proiektu batzuk prestatuko dituzte eta Baiona, Donostia, Bilbo edota Iruñean erakusketak ibiltari amankomunak gozatzeko aukera izango da. Beharbada. Kultur jendea konforma errazekoak omen da eta! Baina ospakizunak ospakizun, urtean behingo zitak galdera sorta birplanteatzeko balioko du. Tarteka. Lagun artean. Museo barrutik hasita lan handia egiteko grina izan badelako. Eta, EAEko museo sarea zehaztu bitarte, litezkeen lankidetzak apurkak bidean tratatuta geldi ez daitezten, horrelako egunek esanahi berezia hartzen jarraituko dute. Dagokionak horren ardura har dezan gogoratzeko, sikiera. Museoek gizartean eragin handiagoa har dezaten esperantza galdu nahi ez badugu, behintzat!

PATXI SARRIEGI

ITURRIGORRIKO URA

Ez daukanak nola eman?

HITZAK asko balio izan zuen garai bat izan omen zen. Hitza jaten zuenak, zaila zeukan berriro sinesgarritasunik eskuratzerik. Orain aldiz, dena idatziz darabilgun aldi honetan, sekula baino hitz gehiago (paperetan nahiz ahotan) eta neurri berean -bat esan eta bestea egindarrak- ugaritu dira.

Asko ohitzen ari gara isiltasunera eta komeni zaiguna egitera, ez egin behar genukeenera. Futbolari batek talde batetik bestera hanka egitea arrunta da, dirua tarteko denean. Kirolariren batek, dirua galdu arren, pentsakerak agintzen dionari eutsiz edo emandako hitzari edo zaletuekiko konpromezuari, eskaintza ekonomiko hobeak baztertuaz lehengo lekuan jarraitzen badu, harritu egiten gara. Batzuk, ausartenez, «seko jota» dagoela diote. Inor gutxik pentsatzen du normalena hori dela.

Gauza bera gertatzen da lanterrietako goi karguekin, politikariekin (beno hauetako gehienek kasuan, ez dakigu oso garbi diruagatik zer utzi eta zer hartzen duten), putekin, eta abar.


KASU hauetan beti ez da dirua arrazoi bakarra, ez horixe. Sariketa baterako idazlana plagiatzen duenak ez omen du diruagatik bakarrik egiten, saria irabazteak emango lioken ospeagatik ere bai noski! Argazkilaritzako saririk gorenean irabazteko asmoz, hilzorian dagoen 4. edo 5. munduko haurrari (azken unera arte zain egon ondoren) lagundu orde argazkia ateratzeko barruak dituenak ere, zerbaitegatik egiten du eta hari saria ematen diotenez ere, zerbaitegatik ematen diote.

Baina zergatik? Zergatik saritzen da hainbeste «nikeria»? eta «ni besteak baino gehiagokeria»? Non hasten da hau? Non hezten da hau?

Begira, oraingo erreforma dela eta, ikasleei zein balore itsatsi edo eman behar dion eskola bakoitzak erabaki behar du. Seguru nago asko eta askotan: solidaritatea, errespetoa (norbere eta besteren iritzienganako), izpiritu kritikoa, ardura, eta antzerakoak betetzearen aldeko azalduko direla. Baina aldi berean, heziketa horretaz arduratu behar dutenek, beren lanpostuaren defentsa lehen mailan ipiniz, herri txikiak eskolak ixteko bidea erraztu dute, herri txikiak eskolarik gabe heriotzara doazela onartu arren edo, herri horietako ikasleentzat aldaketa honekin, pedagogikoki hobekuntzarik ez dagoela sinestu arren.

BESTE kasu batzuetan, publikazio bai eta ez, ondoko herrian lortu den akordioa inpugnatzera iritsi dira, beren interesen kontra doalako edo sinesten dutenaren defentsan baina, ekintza horrek pertsonen hezkuntzan ekar lezaken atzera pausoa lehen mailan jarri gabe behintzat.

Adibide gehiago eta hobeak egongo dira baina, nola irakatsiko dugu solidaritatea, errespetua, ardura, eta abar, besteenganako sinesgarritasuna galtzen ari garenok? Geuk ez dauzkagula demostratzen ari garenok?




IÑAKI MURUA

TXUTXU - MUTXUKA

IÑAKI SALVADOR FOLK ETA JAZZEAN

Iñaki Salvador jazz musikariak Donostiako Jazzaldiari begira kontzertu ezohikoa prestatzen dihardu. Musika herrikoiean oinarrituta, jazz eta folk doinuak nahastu ditu ordenadore bidez. Hori entzuteko aukera izango da Donostian uztailearen 28an. Folk eta jazzaren arteko nahasketa bitxiar gain, badu bestelako berezitasunik kontzertuak. Iñaki Salvador Amaia Zubiriarekin batera taularatuko baita, Victor Celada, Gonzalo Tejada eta antzeko beste musikari zenbaitekin.

NOR - NORI - NOR K

**J. G. DE DURANA**

San Fernandezko Arte Ederretako Erret Akademiako urgazle izendatu dute, Luis Cervera, Luis Garcia Otxoa eta Antonio Bonet urgazleek proposatuta. Gonzalez de Durana Bilboko Rekalde Erakusketa Aretoko zuzendaria izateaz gain EHUn Historia Garaikidea irakasten du. Bide batez, Bilboko Arte Ederretako kide da eta Guggenheim museoarekin harreman estuak ditu ●

**ANDONI UNZALURI**

Planeta Argitaletxearekin lan egiteko aukera egokitu zaio «Planeta Entziklopedia Jakintza arloa» euskaraz egindako edizioan. Oraintxe kaleratu da 15 liburukiz osatutako entziklopedia. Bertako itzulpen eta moldaketa lanaz berriz, Unzaluk zuzentzen duen Aurten Bai Fundazioa arduratu genuenez. Lan hau hamabi eta hemezortzi urte bitarteko ikasleei eskainia dago ●

**JULIO MEDEMEK**

«Tierra» bere azken filmea aurkeztuko du Cannesko zinema jaialdian. Donostiako zuzendariaren hirugarren filmeak Cannesko Sail Ofizialean lehiatuko du Urrezko Palmorria etxeratu asmoz. Filme honetan bizitzaren funtsezko sentimenduak, -heriotza, sexua, bakardadea- azalarazi ditu Medemek. Aktore lanetan, berriz, Carmelo Gomez, Silke eta Enma Suarez aritu dira ●

TEILAK

■ ESKOLARTEKO TXAPELKETAK BIDEAN DIRA

AINHOA Agirreazaldegia (iazko txapelduna), Peru Aranburu, Oihane Enbeita, Nagore Fernandez, Nahikari Gabilondo, Jon Martin (iazko txikien txapelduna) edo Elkaitz Goikoetxearen izenak ezagutuko ditu bertsozaleak, baina beste ehundaka dira bat-batean eta milaka idatzizkoan Eskolarteko Txapelketetan parte hartzen dutenak.

Gipuzkoa eta Bizkaian jadanik martxan dira Eskolarteko Txapelketak. Azken bi asteotan finalerako kanporaketak jokatu ostean finalean parte hartzeko prest dira bertsolari gazteak. Gipuzkoan hilaren 24an izango da finala Zarautzen eta Bizkaian maiatzaren azken egunean, hilaren 31an.

Iparraldean eta Nafarroan berriz, txapelketa modukoa egingo dute Euskal Herriko Txapelketarako ordezkariak aukeratzeko. Aukeraketa hilaren 15ean izango da Azkaingo biltokian, bertan izango direlarik Nafarroa nahiz Iparraldeko bertsolari gazteak.

Azkenik, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa-Iparraldeko Eskolarteko Txapelketetako onenak Arrasaten bilduko dira Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketaren finala jokatzeko ekainaren zazpian.

Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolarien Txapelketaren finaleko egun berean, ekainaren 7an, Bertsolari Txikien eguna ospatuko da Ipar Euskal Herrian, Kanbon hain juxtu. Bertan bilduko dira Iparraldeko ikastoletan bertsoetan ikasten ari diren gazteak.


Hizkuntz gutxituetako kantariekin, Musikaren Eguna ospatuko da hilaren 19an Urdiñarben

Oholtzaren geriza ttipientzat

Asmo komertzialetatik urrun, hizkuntz gutxituetako kantarien bilgunea prest da Urdiñarben. Zazpi urteko tradizioari heutsiz, hilaren 19rako antolatu dute bertako gazteek Musikaren Eguna.

ARBALLETAKO bailaran, Mauletik kilometro gutxira, Zuberoako ttipitasunaren babesean, Musikaren Eguna ospatzekotan dira. Urdiñarben. 600 biztanleko herri honetan, hizkuntz gutxituetako lurraldeetako zenbait kantari bilduko dira, maitezaren 19an.

Irlandatik datoz More Power To Your Elbow, korsikarrak dira L'Albinu, Okzitanikoa aldiz Joan Frances Tisner, Britainiatik iritsitakoa Beaj Iskis taldea eta



Urdiñarbeko jaialdia ezezik, Arballetako bailako kultur astean Niko Etxartek kontzertua eskainiko du Altzurukun.

Euskal Herrikoak honakoak: Guk, Mikel Markez, Patxi Saiz, Jean Mixel Bedaxagar, Sustrai, Amaia Riouspeyrous eta Mixel Etxekopar.

Sonako izenak entzun arren, handinahirik gabe sortua da Urdiñarbeko Mu-

sikaren Eguna. «Urtean zehar herriko dantzaldietara burbiltzen ziren kantariak gonbidatu eta egun batez herritarrentzat soilik aritu zitezten nabi genuen; borrela antolatu genuen duela zazpi urte», gogoratu du Beñat Negelua antolatzaileak.

Ingurukoei ere ikusmina piztu, ordea. Bosgarren jaialdirako nahi zuen ororentzat gertu zen Urdiñarbeko Musikaren Eguna. Dirua bildu eta nazioarteko talde ezagunei hotsegitea erabaki zuten beraz. «Aberatsa da honelako jaialdiei esker herri ezberdinetako jendeak elkar ezagutu eta adiskide egitea; Euskal Herriaren barruan harremangune biburtuko zen lekua nabi genuen, asmo komertzialetatik urrun», azaldu digu Beñatek.

Taldeak eta sarrera dohainik

HELBURUA hori dela, azaldu liteke bai jaialdirako sarrera dohainik izatea eta baita taldeek, profesionalak izan arren, sosik ez jasotzea ere. Bazkariko txartel eta plazan ipinitako tabernetatik eskuratzen dute dirua; administrazio eta lantegi zenbaiten laguntza ahaztu gabe. Irabazi horiek taldeen bidai gastuak eta soinu ekipamendua ordaintzeko adina dira; «ez dugu dirurik galdu nabi baina geuretzat etekinik ere ez, bestela ezin da ulertu taldeei ez ordaintzea», dio Beñatek.

Gerry Cunningham MPE taldeko kidea: «Euskaldunen musika sentitzeko erak harritu ninduen»

More Power To Your Elbow zuen taldeak rock eta folk zelta jotzen du. Zein leku du estilo honek musikaren esparru komertzialean?

Irlandan eta Estatu Batuetan, esaterako, The Coors taldea oso ezaguna bihurtu da. Rock-folk tradizionala jotzen dute eta Europan ere piskanaka sona hartzen ari dira. Musika estilo honek unibertsaiki du indarra eta noski komertzialki ere bai.

Iaz «Live at the arena» diskoa kaleratu zenu-

ten; aurki, berriz, bigarren diskoa. Presa al duzue?

Egia da taldeak hiru urte besterik ez dituela baina ilusioz beterik gaude. Irlandako folk tradizionala gustatzen zitzaigun lagun taldea bildu eta ordutik etenik gabe gabilta. Bi astetara kaleratuko dugu bigarren diskoa eta hirugarrena ere prestatzen hasiak gara. Gaur nahiko ezagunak gara Ipar Irlandan eta Estatu Batuetan ere jo genuen.

Iaz Urdiñabeko jaialdian ere izan zineten...

Bertako neska batek, Irlandan zegoela, gure musika entzun eta gustatu egin zitzaion. Jaialdi honetara gonbidatu gintuen eta gu txorutzen etorri ginen. Izan ditugun zuzeneko emanaldien artean onena izan zen.

Zer zuen ba Urdiñabekoak berezia?

Batetik Euskal Herria bera, zoragarria da. Irlandan biziko ez banintz hona etorriko nintzateke. Jendearen harrera zein gozoa izan zen azaltzeko hitzik ez dut aurkitzen. Bereziki harritu ninduen euskaldunek musika nola sentitzen duten ikustea izan zen. Jende guztia anaitasunean kantatzen... Herri kulturarekiko maitasun ikaragarria nabari zen eta noski hortan irlandarrak eta euskaldunak berdinak gara. Biziki maite ditugu gure tradizioa, kultura eta musika.



Zuberoaren izateari uz-tartu dio Guk taldeko Eneko Labeguerik dohaineko kontua. «Zuberoa tipia da, berezia. Urdiñabeko gazteek lan handia egin dute talde ugari eta doinu ezberdinak ekarrazten eta hori beti da eskertzekoa». Gisa

guztietako musika tartekatu dute jaialdian; rock eta reggae zenbaitetan. Bereziki, baina, norberak bere herri-tik dakarren musika tradizionala da.

Herriko kulturaren sustailetan dagoenak oraindik oholzetan lekurik baduela

txan da era berean «Ekaitza» gazetak Guk taldearen aspaldiko borroka kantu eta gaur egungo beste batzuekin osatuko duen diskoa.

Bide batez zorionak eman dizkiogu Guk-i, egun haue-tan egin baitu urtebete euren azken diskoak, «Bidez bidez» izenekoak. Labegueriek, ez zuen eurek eginiko beste disko baten konturik entzun nahi; diskoaren produktioa egiten duten musikaren kalitatearen kontra datorrela pentsatzen baitu. «Disketxeekin nabiko nazkatuta gelditu gara eta bada beste zerbait ere. Diskoak lanaren ondorio behar du izan baina gaur lehenbizi diskoa ateratzen da eta gero lana egiten; gu honetatik bizi ez garenez gehiago estimatzen dugu musika egitearen plazerra eta jendearekin izaten dugun komunikazioa. Beldurra ematen digu diskoaz pentsatze hutsak ere».

Kantaldia eta baserriko jakiak

URDIÑARBEKO jaialdia hastera- goizeko hamaika t'erdietan- egokitu zaio Guk taldeari, Korsikako L' Albini- nurekin batera. Lehenago ere etorriak dira korsikarrak Urdiñarbera. Ahots aldetik bereziak eta gustagarriak direla diote antolatzaileek. «Zuberoan bazen kantatzeko modu berezia eta Korsikan ere badagoela jakinik haiengana jo genuen. Iparraldean oso ezagunak dira eta Paris aldean ere bai. Hizkuntza gutxituen defendatzaile sutsuak dira».

«Aberatsa da herri ezberdinen harremangune izango den jaialdia izatea»
Beñat Negelua

«Plazerra da honelako jaialdian parte hartzea, jendearekiko komunikazioa baita guretzat garrantzitsuena»
Eneko Labeguerie

Kantaldiaren lehen zatia-
ren ostean, bertako baserri-
ko produktuez gozatutako
bazkari mahaia jarriko dute;
«*bori baserrietan zer egiten
den ezagutarazteko modua
da eta kultur animazioa eta
ekonomia lotzeko modua
erā berean*». Plater nagusia,
ordea, bazkalosterako utzi
dute. Arratsaldeko hiru t'er-
dietan hasiko baita kantaldi
nagusia. Irlandako taldea
nabarmentzekoa da Beñat
Negeluaren ustez, «*kalita-
tezko soinua egiten dute eta
noski Euskal Herriko kultu-
raren gandik hurbil senti-
tzen dira, anaitasuna era-
kusten dute*».

Atzerrikoekin jarraituz,
Bretainiako Beaj Iskis tal-
deak ere merezi du aipame-
nik Beñaten iritziz, «*ez dira
profesionalak baina bango
soinu tresnekin musika bi-
kaina eskaintzen dute*».
Okzitaniako taldeen bila,
Joan Frances Tisner kanta-



riarekin hitz egin zuten. «*Ofi-
zioko kantu egile da, Cani-
cula, Suber, Albert, Ver e
Blu, Pagalbos eta Nadau
taldeei loturik dago bere
izenā*». Biarno eta Landeta-
ko kantu zaharrek Tisne-
rrek kaleratu berri duen dis-
koko doinuak entzuteko
aukera izango da Urdiñar-
ben. Euskaldunen artean,
Amaia Rioupeyrouz-
ez galdegin diogu Beñati; «*euskal
kantu txapelketa irabazi
zuen, oso gaztea da baina
abots biziki ederra du*» eran-
tzun digu.

Kantaldi nagusiarekin



Korsikako L'Albinu ahotsen berezitasunarengatik da ezaguna.


batera, Zuberoako ohiko
kantariak, inguruko txistu-
lariak eta dantzariak arituko
dira jaialdian. Amaitzeko,
haurrentzat prestatutako

animazioak osatuko du Ur-
diñarbeko Musikaren Eguna
1996ko egitaraua.

MAITE ARTOLA

EGUZKITARAKO
BETAURREKOAK

IKUSTEKO
BETAURREKOAK



Betaurreko bakar batzuetan den-dena daukazu. Eguzkitarako diseinurik modernoak eta zure ikusmenak behar duen graduazioa. Eta 9.800 pta.n baino ez, montura barne.

MULTIOPTICASen dena dago zure alde, lehenean asma dezazun. Estatuko Optika Sarerik handienaren garrantia ere bai.

9.800
PTA.TIK
AURRERA

ZINKUNEGI

MULTIOPTICAS


ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Hernani, 4 - DONOSTI

Zilarrezko ezteiak bete ditu Enkarni Genua eta Manolo Gomezen Txotxongilo taldeak

Euskal oihaletan etenik ez txotxongiloen hariak

Kasualitatez hasi eta zilarrezko ezteiak bete dituzte Txotxongilo taldean Enkarni Genua eta Manolo Gomezek. Bizkarrean 20 obra eta 1.500 emanaldirekin, badute zer kontatu.



Txotxongilo taldearekin batera beste bederatzi talde ari dira gaur euskara soilean.

BAZEN BEHIN, 1971n, Donostiako Antiguu auzoan Jakintza izeneko ikastola, sortu berria bera. Garai zailak ziren ikastolentzat eta bertako ikasleen gurasoek lagundu beharrean izaten ziren. Jakintzaren lehen urratsak arindu asmoz beraz, jaialdi bat antolatu zuten. Tartean ziren Enkarni Genua eta Manolo Gomez. Euskaraz ikasten hasi be-

riak, euren lehenengo txotxongilo lana -«Txipa eta bere lagunak ikastolak» aurkeztu zuten haurren ikusmiran aurrean. «Ez zen saio arrunta izan» dio Enkarni Genuak, «zuzeneko saioa izan arren, txotxongiloen abotsak grabatuta eraman

genituen». Harrezkerotik, Euskal Herrian zehar dabil-tza, 1500 emanaldi bizkarrean dituzten Enkarni, Manolo eta txotxongiloak.

Txotxongilo taldearen ipuin amaigabea duzue honakoa. 1971. urtean hasitako jolas hark zilarrezko ezteiak

bete baititu aurten eta urrezkoak betetzeko ere ez omen dute beldurrik. Gaur edozein txotxongilo jaialditan, ikastetxeetan aurkituko dituzu Txotxongilo taldeko panpinak. «Printze txikia», «Altzorra patrikan», «Galtzagorri», «Sugea, gizona eta

«Txotxongilo produkzioa erruz izan arren azpiegitura oso eskasa dugu»

ENKARNI GENUA

azeria», «Herensugea»... dira besteak beste taldeko errepertorioan izan dituzten antzezlanak.

«Erreka Mari» denetan maiteena

TXOTXONGILOK aurkeztu dituen 20 lanen artean, bada bat berezia, taldeak ezezik haurrek ere biziki maite dutena: «Erreka Mari», 1979an lehen aldiz taularatu zutena. Enkarni Genuaren esanetan, «sekula ez genuen pentatuko balako arrakasta izango zuenik. Ipuina aproposa izateaz gain, formato berriak erantsi genizkion lanari eta emaitza bikaina lortu genuen. Gaur oraindik, ipuina haur, gazte eta helduen oroimenean dago».

Adiskidetasuna, ingurugiroarengana begirunea eta pertsona ezberdinei zor zaien begirunea dira, beste hainbaten artean, zabaldu nahi dituzten mezuak. Hauetz gain, Txotxongilo taldearen obrek badituzte amankomuneko beste ezaugarri batzuk: edertasuna, goxotasuna eta samurtasuna. «Lehenbizi, eszenaz baliatuz haurren aurpegietan harridura sortzen saiatzen gara eta ondoren ipuinarekin haiek hunkitzea nahi izaten dugu».

«Erreka Mari»z gerotzik aurkezturiko lanek tonu ezberdina dute, hastapene-

Tolosako txotxongilo gunea ez atzera ez aurrera

Duela hamar urtekoa da Tolosan txotxongilo zentroa egiteko asmoa. 1993an Udaletxean pleno bilera batean Tolosako Perot enpresa zena horretarako erabiltzea onartu zen. Hortik aurrera zer gertatzen den ez du ulertzen Tolosako Turismo Ekinbide Etxearen arduraduna den Migel Arretxek, «edo ez dakigu guk ondo azaltzen edo politikoez ez dute ulertzen edo ez zaie kultura interesatzen edota haurrek ez dutelako botua ematen baina oraindik zain gaude», dio haserre.

40 milioi pezetako aurrekontua zuen proiektuak. 250 lagunentzat

egokitutako gune eszenikoa, 300 metro karratuko museo edo erakusketetarako aretoa, haurrentzat tailerrak prestatzeko gela, ikus-entzuteko gela, dokumentazio zentroa eta bulegoa aurreikusten ziren. Arretxe harrিতa mintzaten da «inork ez baitigu esan proiektua burugabea denik, kontrakoa baizik. Ez dakit udalak zein eskaintza jaso ote duen Peroten, etxeak egiteko eta beraz jakinaren gainean gaude leku hori abaztu beharra daukagula, baina burugorrrak gara eta proiektuarekin jarraituko dugu», azaldu du.

Arretxeren hitzak entzunda Tolosako kultur zinegotziarengana jo dugu erantzun eske. Antton Gonzalezek argi utzi du proiektuaren aldeko direla baina tartean dauden zailtasunak ere kontuan hartu behar dira, «garai batean Aranburu jauregia eskaini zitzaion baina leku handi samarra behar dute zentzurako eta horretaz gain bada beste zatoririk: kulturak duen diru sarrera murriztua».

Edonola ere, txotxongilo zentro iraunkorra egitea

koekin alderatuz. Hasieran, leku txikietan eskaintzen zizuten emanaldiak; eskuzko panpinak ziren, txikiak. Urte haiek, baina, atzean gelditu dira eta gaur bestelako traza dute bai txotxongiloez beiraiek eta baita hauek agertzeko moduak ere. Enkarni eta Manoloren txotxongiloak, esaterako, edonondik ateratzen dira, «beroki baten patrikatik, ohe handi batean, itsaso zabaletik..., beti ere haurrak liluratu asmoz».

Nolanahi ere, txotxongiloetan, antzerkian bezala, garrantzitsuena ez da teknikaren konplexutasuna. «Zailtasunez beteriko teknika erabiltzeagatik ez da

ikuslearekin burreman estuagoa lortzen. Eszena tipian, txotxongilo bakarrarekin, edota hitz gutxirekin komunikazioa erakargarriago gerta liteke», azaldu digu Enkarnik.

Aukeran daude ordea teknikak. Eskuzko panpinak, hariz tirakoak, itzalekin eginiko jokuak, makilek dantzatzen dituztenak eta beste hainbat. Horiek guztiak ikus litezke euskal txotxongilo taldeen emanaldietan. Enkarni Genuak eus-



Migel Arretxek urteak daramatza Tolosako txotxongiloen zentroa zabaltzeko proiektuarekin eskuan.

Adiskidetasuna, ingurugiroari errespetoa eta jendearenganako begirunea zabaltzen saiatzen da

kara soilean ari diren hamar talde zenbatu dizkigu eta orohar duten kalitate maila bikaina dela nabarmendu, «ez daukagu atzerriko taldeen kalitatearen inbidia-rik; badira noski jeinuak eta horiengandik beti dago zer ikasi baina Euskal Herriko produkzioak maila polita du», argudiatuz.



Bizkaiko Kukubiltxo taldeak, hemezortzi urte bete dituenak, «Behin bazen» obra estreinatu berri du.

Horren adierazgarri dira, Tolosa, Bilbo, Sestao eta Bergarako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak. Enkarni Genuaren iritziz, «Tolosa eta Bilbokoak dira nagusienak eta baietan euskal taldeen maila atzerrikoen parean ibiltzen da». Produktzioa erruz dagoen arren, txotxongiloak taularatzeko Euskal Herrian azpiegitura urria dagoela eta kexu da, «Tolosan txotxongiloentzat zentru iraunkorra egiteko-tan ziren, proiektuari laudorioak eta guzti bota zizkioten baina atzera egin dute eta honelako gune bat mesedegarri litzateke benetan; ez txotxongiloentzat soilik baizik eta kulturarentzat».

Bitartean, Bilboko udalak


eta ikastetxeek antolatuturiko proiektuekin konformatu beharko. Antzerkia ikaste-txeetara hurbiltzeko kanpaina antolatu dute eta hartan sei txotxongilo taldek dihardute; Bizkaiko Kukubiltxo taldea tartean, Oskorriekin egindako «Katuen testamendua» lan arrakastatsua- ren ostean, «Behin Bazan» estreinatu berria aurkeztuz. Donostiako Txotxongilo taldeak zilarrezko ezteiak ospatzen baditu, Bizkaiko Kukubiltxok 18 urte bete ditu. Aisialdian, haurrei panpinekin irrifarra sortu asmoz sortu zen taldea Larrabetzun. Panpinekin batera kale animazioa eskaintzen dute Larrabetzukoek.

JOSU ARANBERRI

**La Casa
del Café**

- Juan Irujo S.A. -
DONOSTIA

L I B U R U A K



«BIZI NIZANO
MUNDUAN»
ITXARO BORDA

SUSA, 173 or.
Iparraldeko detektibe ospetsuena bilakatu da Amaia Ezpeldoi. Eta zerbaitetan jakinminik duenak haren-gana jotzen du beti, ez baitu inoiz kasu bakar batean ere huts egin... orain arte.

Amaia Ezpeldoiren bigarren abentura liburua da, beraz, «Bizi nizano munduan». Laurogei urteko Ameztai aitona laborariak eskatu dio bere emazte Maienaren aztarnak bila ditzan, ezkon-gauean ihes egin zuenetik ez baitu haren berri jakin. Eta bizi bada, hari eman nahi dizkio etxea eta lurra! ●



«BETI FESTARA
BEGIAK»
JOXE MARI LERTXUNDI

AUSPOA, 178 or.
Joxe Mari Lertxundi bertso-lariak idatzitako garai bateko erromeriei buruzko liburua daukazue aurrean. Aiako Udalaren laguntzaz Auspoa liburutegiak argitaratu duen lan honetan, idazleak, Aia inguruan garai batean egiten ziren festen berri ematen du: Ernioko erromeriak, Urdanetako San Martin jaiak, Pagoetako egunak... Joxe Mari Lertxundik ondo ezagutu zituen festa haien berotasunaz hitzegiten du; eta tristura kutsu batekin gainera, halako alaitasun iturriak agortzera doazela ikusita ●

XABIER MENDIGUREN ELIZEGIREN BEGIETAN


diferente nahi duenarentzat

Euskaltzale eta kulturzaleok betidaniko konponduezina dugu instituzioekin, euskal kulturaren alde gutxi egiten dutelako, eta egiten duten apurra sarritan txarto. Hala ere, administratziotik sortzen dira batzuetan gauza politak, eta halakoetan eskertu beharra dugu.


Hitzaldi bilduma sorta honen atzean lematzat hartutako Artzeren harako poema ezagun hura dago: «Iturri zaharretik; edaten dut, ur berria edaten; beti berri den ura; betiko iturri zaharretik». Liburua osatzen duten artikuluen lehenengo alderdi bereizgarria atipikotasuna da: ohituta eta aspertuta gaude komunikabide guztietan eguneroko matraka bera errepikaturik jasotzen, gaurkotasunaren morrontzan bizi gara eta egunekoari egiten diogun gurtza hori ez da ez moderno eta ez ezer, ahaztura beltzaren ataria baizik.

Liburuko hizlariek, berriz, gure kul-

tura den puzzle horren piezak hartu eta nork berea kontatu digu. Daniel Landartek Iparraldeko kultur egoera azaltzen digu; Juan Antonio Urbeltzek, Iztueta «Gipuzkoako dantza gogoangarriak» liburutik abiatuta, aurrekua- ren edo soka-dantzaren ingurumariak arakatzen ditu; Iñaki Irigoienek Bizkai-ko dantzen azalpen zabal bat dakarkigu; Sabin Bikandik txistulari edo danbolintero baten lekukotasun bizia; Patziku Perurenak, lehendik ere kolore eta numeroei buzuko liburu bana eginak baditu ere, gai bera sakontzen digu; Eduardo Gil Berak gogoeta filologiko interesgarri batzuk etimologiaren eta filosofiaren artean saltoka; eta Jose Angel Irigaraik sinboloa, errittoa, mitoa eta enparauak jorratu ditu, bereziki San Fermin jaien inguruko argitasuna eman nahiz. Eguneroko bazkaritik ezberdina guztia. On degizula.



«III. JARDUNALDIAK
‘ITURRITIK’»
BILBOKO UDALA
Menu




**JORGËDE OTEIZA
(ARTEA ETA
PENTSAMENDUA)**
ANDONI ALONSO ETA
IÑAKI ARZOS
GAIK, 297 or.

Andoni Alonso eta Iñaki Arzoz intelektual eta artista nafarrek Oteizaren obra eta bizitza egoki ulertu eta mamitzeko liburua prestatu dute. Liburuaren lehenengo zatian, artea, filosofia eta estetikiari buruzko Oteizaren intuizioak agertzen dira. Bigarrenean, euskaldunen sen erlijioso berezia nahiz horrekin lotutako sen poetikoa aztergai ditugu. Arkitektura eta antropologiak ere izango dute bere lekua lan honetan. Azkenik, Oteizaren irudi historikoak, bibliografiak eta hitz berezien glosario batek lan hau borobiltzen dute ●

«BELUNA JAZZ»
HARKAITZ CANO
SUSA, 162 or.

Bob Ieregi, Kentuckyko euskaldun baten semea, munduko jazz tronpetajole-rik ezagunenetakoa duzu protagonista Harkaitz Canoren lehen nobela honetan. Jazz kontzertu baten moduan eraikitako eleberri honetako doinuek errealtatetik ametsera eramango zaituzte, eta ametsetik tronpetajolearen zorabiora. Giro surreal eta miragarri honetan askatu ditu nobelagileak Bob Ieregiren memoriak. Ameriketatik Europara iritsi ostean Beluna Monn izeneko klubean eskainiko ditu jam session ederrenak, psikiatriko batean sartuko duten arte ●



«SALTAN ERREGEA»
ALEKSANDR S. PUSHKIN
ITZULPENEA: JOSE
MORALES
DESCLEE DE BROUWER
64 or.


Amandre ipuin batean oinarriturik, Pushkinek Saltan Erregearen istorioa idatzi zuen. Errege bat neska gazte batekin ezkontzen da, baina haren ahizpak, bekaizkeriagatik, haien zoriona suntsitzen saiaturiko dira. Erreginak bere ahizpen erruagatik atzerrian bere semearekin bizi behar badu ere, azkenean beltzarga printzesa bati esker, bere herrialdera bueltatzea lortuko dute. Zortzi urtez gaineko edonorentzat idatzia, marrazkiek arintzen dute testua ●

**«NIRE GAZTE
DENPORA»**

FAUSTINO ETXEBARRIA
AUSPOA, 247 or.

Dimako Faustino Etxebarria bertsolariak, orain urte batzuk «Nor garan azaldu» bertso liburua plazaratu ondoren, gaur «Nire gazte denpora» idazlana eskaintzen digu.

Liburu honek, egilearen haurtzaroa, eskola, artzai bizitza, basoko lanak, Arratia aldeko erromeriak, gerra ibilerak eta beste hainbat gertakari pelikula batean bezala agertzen ditu. Hone-la, Bizkaiko baserritarren bizitza orain hirurogei edo hirurogeitamar urte zer zen erakusten saiatzen da. Guzti hau, gaiak eskatu bezala, bizkaiera herriko, bizi, eta jatorrez moldatua ●



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación




«MUSEOAK EUSKADI»
EUSKO
JAURLARITAZREN
ARGITALPEN ZERBITZU
NAGUSIA, 172 or.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak argitaratuta, gidaliburu honetan Euskal Autonomi Elkartean dauden museoen berri ematen da. Bildutako guztia zaintzea, hedatzea, erakusgai jartzea eta, nola ez, ikertzea eta lan pedagogikoa egitea helburu duten museoek azken urteotan jasan dituzten berri emateko aproposa da liburu hau.

Gidaliburu honetan agertzen diren museo guztiak herri baten bizimodua, irudia, izen ona eta bilakaera isladatzen dute, aldi berean artearen sorkuntza eta merkaturatua bultzatuz, ongizatea oibetzeko asmotan ●

**«HORI BERA DA DENEN
IXTORIA»**
IMANOL
ELKAR

Imanol abeslariaren azken diska duzu «Hori bera da denen ixtoria». Indar eta gogoz sorturiko lana, 12 kantu, 12 mundu ezberdin non Imanolek arima hustu eta larrua utzi duen Elkarrek atera duen disko honetan. Txema Garces eta Karlos Jimenez bezalako musiko ezagunek lagundu diote musika moldaketan. Hone-la, uhin eroaren gainean labantzen dira hitzak, mezuak, jostari eta ausart. Tesuetan letragile apartak aurkitu baditu (Jon Mirande, Rimbaud, Patziku Perurena, Etxahun Iruri, Mikel Arregi, Joseba Sarrionandia, Lizardi...), kantuen interpretazioerako ere kolaboratzaile handiak gerturatzen jakin izan du Imanolek, G. Moustaki, Paco Ibañez... ●



«BAZEN GARAIA»
GAUBELA
AUTOPRODUKZIOA

Gaubelaren lehen lana da begi aurrean duzun hau. Hamar urtez Euskal herriko hainbat herri eta auzo alaitu ondoren, «Bazen garaia» izeneko lehen diskoa kale-ratzera animatu dira. Teklatuan Jose Luis Altuna, bateria jotzen Gerardo Gaztañaga, haizezko instrumentuetan Joakin Ortega, gitarra eta ahotsetan Diego Carnes eta Asier Serrano baxujole eta abeslariak osatzen dute Gaubela taldea. Diska honetako kantuen letra gehienak Xabier Eguzkitzek eginak dira.

Orain arte Gipuzkoa eta Nafarroako plaza eta festetan arituak, euren emanaldietan rock, fandango, texmex,... musika estilo guztietako kantu ezagunen bertsiok jotzen dituzte ●

**«ESAN BAIETZ- NERE
HERRIA»**
J. C. PEREZ
ELKAR

Hona hemen J. C. Perez kantariaren bigarren diska singlea. Maiatzaren amaierarako aurkeztuko duen «Hau berua» diskaren aurrerapen gisan bi kantu eskaintzen ditu bizkaitarrak. Lehen kantua, «Esan baietz», pop indartsua duzu, zuzen eta nostalgikoa. «Nere herria» bigarrenak, patuaren kapritxoari helden dio musika sostengu ibiltari baten gainean.


«Atlantic River» bere bakarkako lehen lanaren ondoren erritmo sutsu bezain eutsiak belarriratuak dizki zu J. C. Perez-ek bigarren lan honetan. Konposizio erakargarriak, gustagarriak, gogo-gorputzaren kiskaldi batean sorturiko musikak jantzi limurkor, jario-tsu eta dentsua ●

JC PEREZ

**ESAN BAIETZ
NERE HERRIA**

Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA



Euskal Telebistak zuzenean eskainiko ditu Euskal Bizikletako bost etapak. (Arg: Ander Gillenea)

Txirrindularien gurpilpean

Txirrindularien atzetik joan beharrik ez dugu izango Euskal Bizikleta jarraitzeko. ETBk zuzeneko emanaldiak eskainiko dizkigu egunero arratsaldeko 17:00etatik 19:00ak arte. Horretarako, 60 pertsonen osatutako lan taldea arituko da lanean. ETBren erronka, erretransmisio mailarik hobereana lortzea da, eta horrekin batera, Euskal Bizikleta bultzatzea ere bai.

MAIATZAREN 22 eta 26 artean Euskal Bizikletaren itzulia burutuko da. 1991 urtean hasi zen txirrindularitza lasterketa hau, eta gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da. Euskal Bizikletaren babesleetako bat ETB dugu.

Aurten ere zuzenean emanango dira itzuliko bost etapak: Eibar-Elgoibar, Elgoibar-Etxarri Aranz, Lakuntza-Ondarroa, Onda-

rrua-Abadiño, Abadiño-Elorrio erlojuaren kontrako lasterketa, eta Iurreta-Arrate azkenik.

Txirrindulariak ikusteko kalera irten beharrik ez dugu izango, ETBren lanari esker. Mikel Olazabal kirol saileko arduradunak esan digunez «60 langile inguru ibiliko dira lanean. Teknikari eta baliabide guztiak bemen-goak dira. Bertako jendeaz osatua dago lan talde osoa».

Helikoptero bat, zazpi motor eta unitate mugikor bat erabiliko dituzte. «Zazpi motor horietatik laueta, kamarak joango dira. Beste batean komentaria, eta zintak eramateaz arduratuko da beste bat».

Unitate mugikorrean, bestalde, zazpi kamara izango dira guztira. Hoieta-ko bat helmugako xehetasunak filmatzen dituen buru beroa dela azaldu digu Mi-

kelek. *Bideo finish delakoa, berriz, esprintak grabatzeaz arduratzen da. Eta hau guztia osatzeko, informatika sistema dago. «grafikoak, sailkapen taulak eta abar egiten dira informatikaren laguntzaz».*

Kazetariei dagokienez, kontakizun nagusia Fermin Aramendiren kontura joango da. Eta Iñigo Aiestaranek motorretik egingo ditu komentarioak. «Horrez gain, helmugako egoitzan Marino Lejarreta eta Julian Gorospek komentaria lanean jardungo dute».

ETBren erantzukizuna

EUSKAL Bizikletaren antolatzaile nagusia Kutxa da, eta bazkide antolatzaile mailan ETB eta Eibarko Euskal Bizikleta Txirrindulari Elkarteak dihardute. Antolatzaile mailan egoteak erantzukizun gehiago suposatzen duela dio Mikelek. «Gure erronka telebista emanaldia abalik eta gehien hobetzea da. Baina horrez gain, Euskal Bizikleta itzuli honi ere bultzada bat eman nahi diogu». ETBren produkzio hau Kataluinako telebistak ere erosi du, eta Galiziakoa ere hortan dabil. TVEk ere satelitez emititzeko asmoa duela azaldu digu Mikelek.

Txirrindulari saio honek, batzaz beste %30eko audientzia izan duela adierazi digu ETBko Kirol arduradunak. «Esfortzu berezia egiten ari gara kirol hau bultzatzeko, eta Indurainek Tour-a seigarren aldiz irabaztea historikoa bilakatzeko bada aurten, gure erronka txirrindularitzari leku berezia ematea da».

AINHOA AZPIROZ

Juana Sustatxa: «Makilatzailearen lana oso eskertua da»

Telebista kamaren aurrean agertu aurretik, makilatzailearen eskuetatik pasa behar izaten da, eta hori da Juana Sustxaren lana. Beste bi lagunekin batera, «Star 3» taldea osatzen du, eta bi urte daramatzate ETBn lanean. Izugarri gustatzen zaio makilatzea, eta asko eskertzen den lana dela dio.

Zein da makilatzailearen lana?

Pertsonen aurpegiak makilatzea begiak, ahoa, azalaren kolorea, itzalak... azpimarratzea, txikitzea, handitzea eta zuzentzea da, azken finean.

Alde handia al dago gizona edo emakumezkoa makilatzearen artean?

Gizonezkoak makilatzean

oinarri bat ematen diezu eta zuzenketak batzuk egin. Emakumezkoen kasuan, berriz, begiak, ahoa, zuzenketa sakonagoak eta abar egiten dira.

Askok aldatzen al du pertsona makilatiak?

Alde handia nabaritu ohi da. Makilatu ondoren aurpegi uniformeak geratzen dira, azalaren tonalitatea zuzenduta eta itzalak orekatuta.

Makilatzailearen lana oso eskertua da.

Saio bakoitzaren neurri- ra eginiko makilatiak al daude?

Hala da. Nik informatibo eta kultur programetako aurkezleak makilatzen ditut ETBn. Lehenengo kasuan, albistea aurkezlea baino garrantzitsuago da, eta makilatiak ez da gehiegi nabarmendu behar. Kultur programetan, aldiz, kolore eta ñabardura gehiago erabiltzen dira. Beti kontutan hartu behar dira saioaren estiloa, aurkezlea, janzkera eta orrazkera. Dena elkarlotua dago.

Zein da gauzarik zailena lan bonetan?

Zailena denbora gutxian ahalik eta ondoen makilatzea da. Askotan denbora faltagatik presaka eta larri egiten da lana.

Lan gebiena ematen duen aurpegiko zatia?

Denak antzekoak dira. Ez dago bat bereziki zaila denik, pertsonaren arabera izaten da. Oso erlatiboa da.

Zenbat denboran burutu duzu makilatiarik laburrena eta luzeena?

Azkarrena hamar minututan egin dut. Eta luzeena... utziko balidate, orduak emango nituzke makilatzen!



«Saioaren arabera makilatiak aldatzen da». (A: A. Elozegi)

AINHOA AZPIROZ

TXORI BATEK

ESAN DIGU

ETBko barne produkzioa gorantz.

Euskal Telebistako barne produkzioa % 10 igo da azken urtean. Euskarazko katean barne produkzioa programazio osoaren % 75koa da ETB-2an portzentai hori txikiagoa da, % 60a.

Sofres enpresak barne produkzioa neurtzearekin batera, alderdi politiko bakoitzak informatiboetan duen tartea ere neurtu du. PSE-EE alderdia izan zen urtarila eta otsailean minutu gehien bereganatu zituen.

Euskal Telebistan urtarilean izaniko informatiboetan gutzira, 70 minutu eta 40 segundutako lekua izan zuen PSE-EEK, alderdi politikoek izan zuten tartearen % 37,6 orotara. Otsailean PSE-EEK izan zuen tartea bost minutu gehiagokoa izan zen, baina era berean portzentaia bost puntu txikiagotu zen.

Erakunde publikoek izan zuten presentzia ere neurtu zuten. EAEko erakunde publikoek urtarilean 123 minutu terdi eta 89 minutu izan zituzten, Espainiako erakundeak ia 50 minutu izan zituzten urtarila eta otsailean.


■ Gosaritarako aukera zabal

Egunero gosaldu behar da, eta gosaria desberdina bada, gogo gehiagorekin jango dugu. Horregatik, ETBk marrazki bizidunen sorta zabal bat jartzen digu katilu aurrean egunero. «Hattori ninjaren abenturak», «Ame-sarria», «Clyde», «Dinosaurioak», «Mamu harrapakariak» eta «Mamorro mamu txikia» ikusteko aukera izaten da. Egunero, goizeko 7:25etik 9:45 arte.

■ «National Geographic» en lilurak

Ostiraleko, «National Geographic» dokumentalak elefanteen artera eramango gaitu. «Elefantez gogoetan» atal honetan, animalia hauen bizitza, ohitura eta beste hainbat gauzei buruz hitz egingo zaigu. Eta hau guztia, irudi paregabeek lagundurik. Dokumentala, maiatza-

ren 17an, ostiralean, izango da arratsaldeko 17:40ean.



■ Detektibe zorrotza eta umoretsua

Ferrari gorria hartu eta hor ibiltzen da alde batetik bestera Hawai aldean Thomas Magnum ikerle pribatua. Egunero kasu berri baten aurrean ikusten dugu. T.C. eta Richy laguntzaile paregabeak hor izaten ditu alda-

menean. Eta lana egiteaz gain, Higgins-en umore garratza zirikatzen ibiltzen dira. Okerrena, ordea, honen Zeus eta Apolo txakurrak dira. Askatzen dituen... zer gertatzen den jakin nahi baduzu, egunero, asteleheneretik ostiralera, arratsaldeko 15:35ean eta goizaldeko 01:45ean.

■ «Burusoitxo» ren umorea

Astearte gaua umore gaua izaten da ETBn. «Jaun eta jabe» euskal komediaren ondoren, «Burusoitxo» agertzen zaigu. Bere nortasun bitxi horren inguruan, algar batzuk egiteko parada izaten da. Gregor Fisher da aktore nagusia umore saio honetan. Asteartean, maiatzaren 21ean, gaueko 22:25etan.

■ Giroa eta Euskal Bizikleta ETBn

Euskal Bizikletaren jarrai-

pen zuzena egingo du ETBk maiatzaren 22tik 26ra bitartean. Urteik urtera garrantzi gehiago hartzen ari den itzuli honi tarte berezia eman nahi dio. Kazetariekin batera Marino Lejarreta eta Julian Gorospe ere komentarietan lanetan arituko dira. Telebistan egunero bi ordutako saio berezi bat prestatu dute. Maiatzaren 22an, astelehenen, lehenengo etaparekin batera lehenengo saioa arratsaldeko 17:00etan.



Z A P P I N G

«Euskal Herriko gatazkari irtenbidea ematerik badago?» mahaingurua ATBn

ARRASATE Telebistak ohiko programazioarekin jarraituz, ostegunero herriko hainbat elkarte gastronomikotara jotzen du beren unitate mugikorarekin.

Maiatzaren 16an, «Jentil ola» elkar-teko sukaldearen txanda izango da. Bertako sortzaile eta bazkide batekin elkarrizketa egingo dute, «Jentil ola»-ren historia pixka bat ezagutu ahal izateko. Ondoren, sukaldera sartu eta jaki goxoren bat prestatuko dute. Programa honen atal guztiak amaitzerako herriko hogeitau elkarte inguru igaroko dira sei taldetan banaturik. Bakoitzak bere platera prestatuko du, eta lehiaketa batean parte

hartzen dute horrela. Jon Aldanondok adierazi digunez «*lehiaketa moduan antolatuta dago programa eta pasatako elkarte guztietatik, sei onenak aukeratuko dira azkenean*». Ekaina bukaeran, herriko San Juan festak direla aprobeztatuz, lehiaketaren finala burutuko da.

Abenduan hasi ziren «Elkartean» izeneko programa honekin. Orain arte hamalau elkarte pasa dira gutxi gora behera, eta beste bost edo sei falta dira ATBko kamaren aurrean agertzeko.

Bestalde, asteazkenetako programazioari begira, hamabostero bi saio txandakatzen dira: «Nor-nori-rock»

eta luzemetriak. Maitzaren 22an luzemetriaren txanda da, eta oraingoan «Amadeus» filmea izango da ikusgai. Wolfgang Amadeus Mozart-en bizitza du oinarri pelikula honek. Musikagile honen bizitza pertsonala zein bere lan eta kontzertuak ikusteko aukera izango da. Ezin da ahaztu bere musika entzuteko eskaintzen duen parada bikaina.

Maiatzaren 22an, bi aste lehenago hasi zen mahainguru sortarekin jarraituko dute. «Euskal Herriko gatazkari irtenbidea ematerik badago?» galderaren inguruan dira mahainguru guztiak. Aurreko biak, «Gatazkari badago?» eta «Autodeterminazioa» izan zituzten izenburuzat eta aste honetakoan euskal presoen inguruko gaiak joratuko dituzte. Hau guztia gaueko 21:30ean.

Leizaurreko ahotsak lau haizetara itzuli

Hiru urte isilik egon ondoren berriro lanera itzuli dira Leizaur Irratikoak. Andoaingo irratia emititzen dituen bi egunak programa berriez gainezka datoz, irrati-nobela lehiaketa, sukaldaritza saioa, bertso saioa...

KILOMETROAK Andoainean, 1990ean, izan zenenean, 1990ean, egun zuten lehen irratsaioa Leizaur Irratikoek. Baina hiru urtetan lanean jardun ondoren itxi egin zen.

Orain berriro itzuli dira lanera, Ainhoa Aierza irrati-kideak azaldu digunez: *«Pena handia hartu nuen irrati itxi zenean. Aurretik jardun ginenak berriro hasitekoko gogoz ginen, eta azkenean lortu dugu»*

Aldi honetan hainbat berrikuntzarekin datoz Leizaur

Irratikoak. *«Publizitatea sartuko dugu, erantzungailu automatikoa ere jarri dugu jendeak mezua utzi dezan, eta era berean programazioan ere aldaketa ugari ditugu»* diosku Ainhoak.

Ostiral eta larunbatak dira Leizaur Irratiaren emisio egunak. Irratsaioak aurrera ateratzerako material faltarik ez dutela aitortzen dute. Disko konpatkoak falta zitzaizkien, eta herriko taberna batzuekin hitzegin ondoren publizitate trukean lortu



Ostiral eta larunbatak emititzen dute Andoaingo Leizaur Irratikoek. (Argazkia: Alberto Elozegi).

dituzte. Antzekoa egin dute larunbatetako sukalde saiorako, saioko irabazleentzat jabetxe batekin trukean aforia lortu baitute.

Irrati-nobela lehiaketa ere martxan jarri dute Leizaurrekoek, Andoaingo ikastetxeek parte hartuko dute, eta epaimahai kideak Euskadi Irratiko Manu Etxezortu eta,

Goenkaleko Pilar Rodrigex eta Juan Kruz Gurrutxaga izango dira.

Ainhoaren hitzetan gertatzen zaien gauza bakarra, *«berrian seinalea jasotzeko arazoak omen daude, eta hori konpondu behar dugu lebenbaileben»*.

ARRITXU ZELAIA

B A G A K

Kultur informazio ugaria Xorroxin irratian

Egunero «Goiz argi» saioa zuzentzen du Amagoia Sansiñenak, eta programaren barnean, 8:30etan Egin, Euskalerrria eta Irulegiko irratiekin bat egiten du. Elkarrekin saioa egiten dute eguneko titularrak irakurriz eta informazioa osatuz.

«Goiz argi» saioaren beste atal garrantzitsu bat kulturak osatzen du. Egunero kultur albisteen berri emateaz gain, ekitaldien antolatzaile eta arduradunekin elkarriketa bat burutzen du.

Asteartetan, berriz, Idoia Irigoien kultur korrespondentzialak ekartzen ditu kultur berriak.

Eta asteazkenetan Ana


Larriuk. Kultur ekitaldien egitaraua, aurrekontuak eta beste hainbat gora beheren berri zehatza eta zuzena ekartzen dute bi korrespondentzial hauek.

Abizenen esanahiaren atzetik

Gernika Irratian asteartero «Abizenak Euskal Herriaren izeneko saioa hasten da 9:30etan. Xabier Zamudio heraldistak jendearen abizenak aztertzen ditu: jatorria, armarrria...

Edozein dei dezake, eta abizena esanez gero, Xabierrek hurrengo egun batetarako aztertua izaten du. Lau urte dramatika programa honek, eta oraindik ere astero-astero jendearen eskeriak ugari dira.

A U R P E G I A



Rosi Guarrotxena (Bizkaia Irratia)

Errigoitikoa da Rosi Guarrotxena. Duela urtebete amaitu zituen kazetaritza ikasketak Leioako fakultatean. Ia amaitu bezain laster sartu zen Bizkaia Irratian esatari lanean.

Aldez aurretik zenbait herri aldizkaritan jardun zen, baina irrati mailako lehenengo esperientzia du Bizkaia Irratikoak. Berak aitortzen duenez: *«Irratia ez nuen gogokoa, ez nuen baztertzen, baina beste aukerak nabigo nituen»*. Baina orain arte izan duen esperientziarekin oso gustura dago eta *«irratia eza gutzen joan naizen heinean, gero eta gehiago atsegin zait. Oso pozik nago»*.

Goizero jarduten da Bizkaia Irratian, albisteen berri emanez eta «Jira Bira» saio, eta Igandetan saio musikala egiten du.

Bikiak: indibidualtasuna bultzatu

SEME-ALABA bat hezi eta edukatzea langintza zaila baldin bada, bikiak direnean zailtasuna bikoiztu egiten da. Ume guztiek sortzen dituzten arazo normalez gain, gurasoek aurre egin beharko diete beste arazo espezifiko batzuei ere, jaiotzaren unetik beretik ume bakoitzak ondoan bere bikia duela-eta sortu daitezkeen arazoei hain zuzen. Eta arazo horietako asko (hizkuntzaz jabetzeko prozesuan gertatu ohi diren atzerapenak, herabetasuna, kanpora

zabaltzeko zailtasunak eta abar) erraz konpon daitezke bikien bitasuna indartu ordez, bakoitzaren indibidualtasuna bultzatzen bada, biki bakoitza unitate bat bezala hartuz. Hona hemen aholkutxo batzuk, agian teoriko samarrak irudituko zaizkionak bikiak hezitzeko bide horretatik pasatu den edo 'trantze' horretan sartua dagoen gurasoren bati baino gehiagori.

✓ Ahal dela bakoitzari bere izenarekin deitu, eta inola ere ez 'bikiak' izen oro-

korrekin, beraiei erreferentzia egiteko. Beste edozein anai-arrebarekin egingo genukeen bezalaxe.

✓ Eskolara joaten hasten direnean, batzuek nahiago izaten dute klase berdinetan jartzea. Independentiago sentituko omen dira, eta bakoitzak, bere aldetik, lagunak egiteko aukera edukiko du.

✓ Erropa diferenteak jarri, jostailu berdinarak erregalatu, bakoitzak eduki dezala bere gela propioa (posible den heinean, noski), horiek guztiak bakoitzaren identitate pertsonala errazten duten joerak direlako.

✓ Jolasean, beren jolasak konpartitu ditzatela, beren adineko beste umeekin harremanak mantenduz.

Kontuan izan bi pertsona diferente direla, eta horregatik ezin pentsa daiteke aldi berean hasiko direnik hitz egiten edo ibiltzen, edota beti zaletasun berdinarak edukiko dituztenik ■

Kontuan izan bi pertsona diferente direla, eta horregatik ezin pentsa daiteke aldi berean hasiko direnik hitz egiten edo ibiltzen, edota beti zaletasun berdinarak edukiko dituztenik



JABIER AGIRRE

L A N D A R E A K

Sasiakaziaren benetako lorealdia

AURTENGO neguak txatxutik ere izan du puska bat. Hasieran epeletik lardaskan ibili ondoren, amaia aldera hoztu zen, eta ez nolana, alajainena! Aspaldiko elurterik handiena ekarri zigun behintzat eta.

Negu bukaera hotzetik udaberri sarrera berorako koxka edo aldaketa areagotu du. Honek, intxaurrendoa-rena bezelako goiz samarreko lorealdiak zapuztu ditu, baina baita izugarri indartu beranduko lorealdiak. Hauen artean sagarrondoa, elorri zuria, gorostia, artea eta sasiakazia.

Sasiakazia Ameriketatik Europara ekarritako lehenengotako zuhaitza izan zen. 1600. urte inguruan Enrike IV.aren botanikaria zen Jean Robinek

Parisen estrainekoz landatu zuen. Hortik datorkio bere izena, *Robinia pseudoacacia*; *robinia*, ekarri zuenaren omenez, eta *pseudoacacia*, Afrika subtropikaleko akaziekin duen antza nabarmenagatik, European ez baitago akaziarik.

Akazia eta arkazia ere deitzen zaion zuhaitz honi euskaldunok sasiakazia deitzeko arrazoi gehiago dugu. Batetik egiazko akazia ez da, baina baita larraren moduan sasia osatzeko duen gaitasunagatik ere.

Sasiakaziak aurtengoaren gisako urte jakinetan izaten du aparteko lorealdia. Ohiko udaberrietan hostaia berriak azpian harrapatzen ditu lore zuri usaintsuak. Aurtengoan ordea



lore-tortoka mardulek aise bereizi eta ia estaltzen dituzte hosto puntta berriak.

Erle eta eztizaleentzako pagotxa ■

JAKOBA ERREKONDO

Orreagako itzulua: kondaira eta historia elkartzen diren ingurunea

Maiatza da Nafarroa aldetik Orreagara doazen erromerien hilabetea. Orreagako Andra Maria gurtzera joan ohi dira nafar erromesak, eta Ama Birjin honentzat, hain zuzen, Santxo Azkarra erregeak, XIII. mendean, eraiki zuen Orreagako tenplu miragarri eta ezaguna. Bertatik ere has dezakegu istorioz beteriko lur eder eta zoragarri hau zeharkatuko duen ibilaldia.

ORREAGA: Europa osoko erromesen ostatua eta aterpea, Santxo Azkarraren hilobia eta euskaldun anitz harrotzen gaituen izena.

Orreagatik ekialdera joko dugu eta Otezuloko erreka iragan ondoren, balizatutako bidea jarraituko dugu metro batzuetan. Bide hau igotzen hasi baino lehen, ekialderantz sortzen den beste bide bat hartuko dugu. Honek Orreaga eta Orbaitza lotzen dituen pistaraino eramango gaitu, pista honek Patxaranberroko erreka gainditzen duen lekuan.

Pista jarraituz, Nabala lepora iritsiko gara. Iparraldera doan hesia segituz, mugarren bidetik, Otsolezeako patarra igoko dugu, gorbel eta pagoen artean.

Berehala Ortzanzurrietako hego-mendebaldeko mazelara iritsiko gara eta aise erdietsiko dugu bere gailur antenaduna. Hemen-dik bista zoragarria izanen dugu: Iratiko basoa eta Irabeako aintzira Orhi eta Abodi mendizerraren oinetan, erromatar dorrea duen Urkulu mendia Arnostegiko bide zaharra menperatuz, Auritzeko ordokia eta Luzaideko arrolatik altxatzen diren Lauriña eta Mehatze mendi lerdenak. Kondairak dioenez, azken leku hauetatik erasotu omen zuten euskaldunek Karlomagnoaren armadaren erretaguardia 778. urteko abuztuaren 15ean.

Mundrunatutako pista segituko dugu Ibainetaraino. Leizar Atheka eta Lepoeder pasatu ondoren, Garazitik zetorren erromatar galtzara justu hemendik iragaiten zelarik.

Guk Ibañetan Salbatzailearen ermita, Erroldanen oroitarria eta «Emen erraten da Salve bat Orreagako Andredena Mariari» dioen oroitarria aurkituko ditugu.




Goiko argazkian Erroldanen oroitarria Ibañetako lepoan; eta bestean, aldiz, ibilaldian zeharkatuko ditugun pagadietako bat. Pagadiotan gertatu omen zen Orreagako gatazka.



Eta ibilaldi hau maiatzean egiten badugu, agian estela honen ondoan ikus genitzake Orreagako santutegira peregrinazioan joaten diren Luzaideko erromesek egindako zurezko gurutze txikiak, lurrean sartuta.

Itzulua osatzeko, Ibañetatik Linduxera doan pista hartuko dugu Tronako lepora iritsi arte. Hemen Luzaide, Orreaga eta Auritzeko mugari handia kokaturik dago, eta hemendik ekinen diogu jausteari Gabarbideko errekatik, Suringoko haran lasairaino, eta pagoen artean doan pista zabal batek Orreagara eramanen gaitu ■

IÑIGO TXINTXURRETA



A N T Z E R K I A

17 ● Donibane Lohizuneko Antzerki Jaialdiaren barruan, Almeriako Salmeron Lizeokoek

Ostirala

«Cualquier parecido con la realidad es pura coincidencia» aurkeztuko dute Urdazurin. Bihar **Garazikoek** «Manuela» Rexen, eta **Bai Teatrok eta Taffursek** «Inessa de Gaxen» Urdazurin

18 ● Kafe Antzerki Maratoia Elgoibarko bost kafetegitan, 22:00etan hasi eta orduz ordu: Txo Titereak Hottzaken, J. M. Karrere Txuri-Beltzen, P. Roberts Malapan, Taun-Taun Lanbroan eta K. Gallego Kaian.

Larunbata

● Iruñeko **Iruñea Pequeño Teatrok** «Jaberik gabeko zopaontzia» eskainiko du **Arbizuko elkarte**n, 17:00etan.

● **Xirrixti-Mirrixti** taldeak «India beltzak» antzezlan taularatuko du gaur Senperen iluntzeko 21:00etatik aurrera.

23

Osteguna

● **Orainek** «Besarka gaitzen, Folleville» aurkeztuko du Nafarroako Antzerki Eskolan, iluntzeko 20:30ean.

B E K A K

20

Astelena

● **Juan de Otaola y Perez de Saracho Beka** antolatuko dute **Basaurin, arte plastiko**



Maiatzaren 17an, arratsaldeko 19:00etan, estreinatuko da **Elgoibarko Kultur Etxean Alberto Schommer gasteiztar argazkilari sonatuaren kaskografien erakusketa:**

hautsitako, zimurtutako, hondatutako... irudiz osatutako bilduma. Modu honetan, argazkiek eskulturaren itxura hartzen dute, duten erliebe bereziarengatik. Schommerren kaskografia bilduma osoa ikusteko lehenengo aukera izanen dugu hau, orain artean sail osoa ez baita inoiz erakusgai izan. «La espera», «Tempus musica», «Imperceptible instante», «Espacios», «Fugaz»... dira ikusgai izango ditugun lanetako batzuk.

Komikiaren mendeurrena dela eta Euskal Herrian zehar berai ospatzeko herriz herri dabilen «**Komikiak 100**» erakusketa ibiltaria, **Iruñeara iritsiko da hilaren 17an**. Ekainaren 2ra bitarte izanen dugu bertan. Mundu osoko komikigintzaren erakusgarri den erakusketa honek laugarren kokagunea du Iruñeko, aurretik Durangon, Gasteizen eta Irunen ezagutzeko aukera izan ostean. Komikiarekiko, eta batez ere euskal komikiarekiko, interesa eta zaletasuna zuzpertzea du helburu. Komikiaren historiako pertsonaiarik ezagunenak, Euskal Herrikoak zein nazioartekoak, kronologikoki bildu ditu.



koen formakuntza sustatu asmoz.

EAEn bizi den edonork eska dezake, eta idatzia bidali beharko dio Basauriko alkateari. Gaurkoa da azken eguna bidalketa egiteko. Ondoko agiriak aurkeztu behar dira: NANaren fotokopia, arte plastikoetan bere gaitasuna frogatuko duen agiria eta egingo den lanaren programa, proiektua, metodologia eta epeen memoria. Epaimahaiak maiatzaren 28an egingen du hautaketa.

B E R T S O L A R I T Z A

17

● **Gipuzkoako Eskolarteko XVI. Bertsolari Txapelketaren** azken kanporaketa jokatu du gaur Legazpiko Haztegi Ikastolan, 15:00etatik aurrera.

18

Larunbata

● Betagarri taldeak, bertso-saioa antolatu du Bilboko Kafe Antzokian, 20:30erako. Bertsolariak: **Joxe Agirre, Jon Azpillaga, Imanol Lazkano** eta **Mañukorta**.

● **II. Elkarrekin Bertsogintzan** ekimenaren barruan, gaur Itsasondoko Arbelaitz eta Beasaingo Arrano elkarrekin izango ditugu bertso-saioak. Hilaren 23an, ostera, Bedaion.

D A N T Z A

17

Ostirala

● **Maiatz Dantzan** jardunaldien barruan, **Nats Nus** taldeak «Que dius que qué?» lana aurkeztuko du gaur (Lasarte-Oriako Manuel Lekuonan 20:00etan) eta bihar (Irungo Amaian 20:00etan). Bihar eta etzi, berriz, **Carolyn Carlonek** «Vu d'ici» taularatuko du Donostiako Victoria Eugeniean 20:00etan.

E R A K U S K E T A K

17

Ostirala

● Bilboko Arte Ederretako Museoan, bi margo-erakusketa ditugu ikusgai egunotan. Batetik, **Eugenio Lucas Velazquez**ena, zeina uztailaren 7ra bitarte zabalik egongo den. Eta bigarrenik, **Francisco Goyaren «Los caprichos»** lan-saila, ekainaren 26ra arte zabalik izanen duguna.

J A I A L D I A K

17 ● Bilboko Eskurtzeko parkean, **Udaberri Eguna** ospatuko dute Errekalde-Iralako haurrek. Tailerrak, ohe elastikoak, gazteluak, kalejira... 12:30etan «Kroketa zopa» musikaldia-rekin amaituko da jaialdia. 21:00etan, berriz, **Gartxot folk taldea** izango du-gu Kafe Antzokian.

J A R D U N A L D I A K

17 ● **Daniel Castelaori omenaldia** egingo diote aste-buru honetan **Bilbon**. Gaur Iñaki Anasagastik eta Xose Estevezek hitzaldi bana eskainiko dute 20:00etan Bizkaiko Batzar Nagusien egoitza berrian. Bihar 12:00etan, EAEko Galiziako Etxe eta Elkárteen omenaldia Gernikako Arbolari. 20:00etan Galiziako Milladoiro folk taldearen emanaldia Arriagan. Etzi, aldiz, Txurdinagako Parkean omenaldia Castelaori 12:00etan.

K I R O L A K

18 ● **Deban II. Mountain Bike Martxa** antolatu dute gaurkorako. Foru Plazan 10:00etan hasiko den proban, 14 urtetik gorako edonork har dezake parte. Proba hasi baino orduerdi lehenagora arte eman daiteke izena.



Datorren maiatzaren 19an, igandearekin (ohi denez, maiatzeko hirugarren igandean), **Usurbilen**

Hilaren 16, 17, 18 eta 19rako X. Txalaparta Festa antolatu du Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun txalaparta taldeak. Hilaren 16an, Hernaniko Biteri Kultur Etxean, Juan Mari Beltranek hitzaldia eskainiko du 19:30ean. Gaia: «Hernaniko txalaparta eskolak 11 urte». Biharamunean, aldiz, toki eta ordu berean, Bizkaiko Etzak Etsi!! txalaparta taldearen «Munduaren beste aldea» lanaren aurkezpena. 18an Txalaparta Festa izango dugu: 19:00etan sagardo banaketa, kalejirak, bertsolariak... 20:30ean, berriz, aitari herrikoia; eta afalostean, txalaparta-emanaldiak. Txalaparta festa 19an amaituko da, igandez. Txalapartaldi



herrikoia izanen dugu Harriatsu Ikastolan 17:00etan (sagardoa eta otartekoak ere banatuko dira), eta ordu berean erromeriaren irteera Gudarien plazatik.

19 ● Aizkolari bikaina izandako **Kandido Txurruka zenari omenaldia egingo diote Elgoibarko Olaizagan**, 18:00etan. Aizkolari, trontzalari, harrijasotzaile, bertsolari eta trikitilari-ek hartuko dute parte.

M U S I K A

17 ● **Anje Duhalde** Bergarako Kartzela Zaharrean izango dugu gaur 22:30ean, eta bihar, berriz, Adunako Kultur Aretoan 23:00etan.

18 ● Añorgako (Donostia) frontoian rock kontzertua izango dugu gaur 22:00eta-

tik aurrera. Taldeak: **Su Ta Gar, Bizkar Hezurra** eta **Tapia eta Leturia Band**. Sarrera: 1.000 pezeta (40 libera) aurretik eta 1.200 bertan.

● Leitzan rock kontzertua izanen dugu gaur, Amazabal frontoian 22:00etan. Taldeak: **Berpiztu, Kashbad, Patagonia** eta **La Polla**. Sarrera: 1.000 pezeta aurretik eta 1.200 leihatilan.

21 ● Getxoko Andra Mari elizan, 20:15etik aurrera, **The Saint Alban Singers** musika zortzikoteak emanaldia eskainiko du. Sarrera dohain izango da.

22 ● **Oskorri** taldeak emanaldi bereziekin aurrera darrai, zeinetan kantuzaletasuna bultzatzea duten helburu. Gaur **Barañaingo Retegi pilotalekuan** izango da, 20:00etan.


23 ● **Jabier Muguruzak** «Kitarra bat nintzen» diskoa Osteguna aurkeztuko du 22:00etan Soroluzeko Gaztelupen.

S O L A S A L D I A K

22 ● Bilboko Kafe Antzokian, 20:00etan, mahainguru musikatua burutuko da. Partehartzaileak: **Xabier Amuriza, Jose Luis Ansorena, Joxe Mari Beltran** eta **Joseba Tapia**.

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Esperantza. 2.- Ezizenak. 3.- Fededunentzako eraikina. Berrogeita hamar. Bokal bikoitza. 4.- Musika nota. Auzotegia. Röntgen. 5.- Lehor. Greziako eskualdea. 6.- Frantziako ibai luzeena. Barazki ezaguna. 7.- Bokala. Nigar ugari egiten duena. 8.- Suari dariona. Koipe. Kontsonantea. 9.- Laga. Dago. Bokal bikoitza. 10.- Lehenengoa. Eraikuntza.

GOITIK BEHERA: 1.- Igerian egiteko toki egokia. 2.- Espainiako hiri ikusgarria. Interjekzioa. 3.- Hamabi. Min. 4.- Esnatu. Iridioa. 5.- Sanferminetako martxa ezaguna. Areagotzeko. Lehenengoa. 6.- Azti ezaguna. Zamorako ibilgailuetan. Garai. 7.- Pelotan dihardutenak. 8.- Non atzizkia. Ganibet. Bat. 9.- Nauka. Nasa. Zintzo. 10.- Agotek ordaintzen zuten zerga. Sasoia, garaia.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Ankerrak
Egiturak
Erakunde
Ukipenak

7 letra

Aitakoi
Euskara
Ikaratu
Joanito

4 letra

Aetz
Agot
Ahia
Aipu
Aire
Aita
Anoa
Aran
Aroa
Bete
Egon
Ekia

Ekin
Eria
Fida
Fits
Igar
Irun
Neke
Oria
Osoa
Otia
Riga
Zirt

3 letra

Ate
Gas
Ihi
Tik

2 letra

At
Ka
Nr
Os
Re
Ta
Tu
Uj


ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Nafarroa Behereko herri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6	7	8
---	---	---	---	---	---	---	---

Lapurdiko herria	Amore eman	Eror zaitezte!	Sanfemine-tako martxa ezaguna
Bilkura	Utzi	Gipuzkoako mendia	
	8		2
Aberastak	Hareazko meta	Oihandar	
Ingurunea	Geltoki	Musika nota	
	4		
Guztira, osotara			Beldur
Lapurdiko herria		6	Txangoa
		Urania	Lehen bakoitia
		Oparitua	Emakume izena
Atziki femeninoa	Bokala	Interjekzioa	Bokala bikoitza
Funts	Garai	Emakume izena	Bokala
			Röntgen
			Suari dariona
Gaztetxea			Errep., fruitu trop.
Sakonera handikoa			Kontso, bikoitza
			Biloa
			Potasioa
Errep., tori mota	Bokala	5	3
		Arrantza-guneak	

Hieroglifikoa



Aaspaldian ikusi duzu Iñaki?

Aurreko asteko soluzioak

Gurutzagrama

EZKER ESKUTIN: 1. Pianojolea. 2. Azpikeriak.

3. Laukore. 4. Arratarr. 5. Na. 6. Kola.

6. K. La. A. NAN. 7. Alegera. Si. 8. Ragusa. Eta

9. 1. Aa. Tiro. 10. Aurizkiak.

GOTIK BEHERA: 1. Palankaria. 2. Izara. La

U. 3. Apur. Legar. 4. Nikaraguar. 5. Okots. Es.

1. 6. Jeti. Aratz. 7. Oreak. A. Ik. 8. Li. Ron. Eri.

9. Ear. Lastoak. 10. Akitania. K.

A	Z	K	O	I	T	I	A		
	G	M	L						
A	U	Z	A	P	E	Z			
D	B	L	A	R	R	I	A		
S	O	L	A	S	A	L	D	I	A
N	I	L	O	G	U	L	U		
S	A	R	K	O	R	R	A		
O	T	I	A	A	D	A	T	S	A
I	N	E	Z	I	N	U	R		
A	R	B	A	T	A	S	U	N	A
I	S	E	R	E	O	T	A	N	

Kate hitzak

B	I	N	A	B	I	B	A		
B	A	R	E	H	H	E	Z		
O	L	A	R	I	A	K	L	A	R
L	A	A	S	T	A	K	I	L	O
I	O	B	U	S	A	N	A		
O	R	E	N	D	A				
D	R	A	O	Z	T	A	E		
E	M	A	K	U	M	E	A	O	L
T	A	Z	B	E	R	R	I	T	U
A	R	I	N	N	I	H	A	R	
I	A	I	O	Z	A	I	N		

Hieroglifikoa:

ADUNA

ERROBIKO PIRAÑAKO


Komikia

Errekaiko arrainak supermerkatuan erosten direnak baino azkiz hobeez dira...

„Nik neuk horraiputzen diut, mire amu supervenikoaekin...”

„Bainan ni baino azkarragoak dira, eta batzutan Soka-tiran irabazten naute...”

„eta jaten naute...”




Herfo 08.46.5

Jorge de Oteiza, «ora pro nobis»

EUSKO Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman berria dio Jorge de Oteizari, honen ibilbidea -pertsonala zein profesionala- goraiatzearen, eta ni neu ere Orioko eskulturgileari lerro bakan batzuk eskaintzera natorkizue. Sari hau, beste edozein eza gutza edo eskertza bezala, oroimean eskegitako denbora baizik ez da. Eta horrexegatik, sari-emalea eta hartzailea elkarri uztartzen dituen oroitzapena.

ESKERRAK ematerakoan, bada Oteizaren hitzetan erasi ozenik ere, itxarrotearen poderioz agortuz joan den ezinegoaren adierazgarri. Bada Oteizagan (Oteiza osoarengan) oroitzapen ugaritasunik. Ez da berezko kemenak sortutako ondasuna memoria ugaritasun hori, etengabe zauritu izan duten xalotasunaren emaitza baino. Honenbestez, Oteizaren ezinegona (beti ere uherdura, kaos modura adierazi eta ulertu izan dena) zera besterik ez da: sormena garatzeko dagoen denboraren eskasiaz jabetu izana, argiro sumatu izana denbora hori, sortze beretik, urria dela oso.

NORK jakin lezake berak baino hobeto zertzu diren denbora eta zain egotea (egonezinik zain egotea), bere zolitasuna metaforak harrapatzeko sare, korapilo eta lakioak egiteko erabili izan duenak baino hobeto? 'Quosque tandem...!' en lehenbiziko argitalpena plazaratu zutela 30 urte paseak dira jada (liburu erabakiorra, geure belaunaldiaren nondik-norakoak berak bakarrik argitzen dituen) eta gerora egin izan diren berrargitalpenekin batera liburu gehiagorik kaleratu izan du Orioko jeinuak. Bere



JUAN ANTONINO URBELTZ


Ikerlaria

ezinegon poliedrikoaren aurpegi berriak baino ez diren idazki berriak. Emazteari, Itziarri, eskainitako olerki sorta zoragarria; teomakiak; gatazka izpiritualak, estetikari buruzko hausnarketak. Metafora aztergai duen estetikari buruzko hausnarketak, hortik abiatuz lortu nahi izan baitu pentsamendu birakorra, denboratik at so lasgai izango dugun eragile hobereena.


ETA orain, Manuel Lekuona saria eman diote. Sari baliotsua (izena beragatik hasteko) horrenbestetan bere desioen bitartez (jeinuz eta suhartasunaz) saritu izan gaituen horrentzat. Oteizagan gauzatu da, beste inorengan ez bezala, guztiok nahi genukeen bizitasuna. Eta ez da dohan gauzatu, magdaleniensea bailitzan. Herbert Readen ustez Lascaux-eko zalditxoengan nabari den bizitasuna, iraunkortasun estetikoaren zutabea, horixe bera nabari da Jorge de Oteizagan. Hortik dator bere 88 urte kementsu horiek dakarkiguten harridura, sari baten gerrikoak estutu ezin duen kemena. Naturak saritu zuen Oteiza indarraren eta kuraiaren ondasunez, eta orain bere aulkian mugitzen hasia zaigu, zera esaka: *«min egiten didate sariak; lehiaketa gizona naiz; lehenbizi sariak ematen dizkide, eta gero kendu...»*.

HORRELA itxi du bizitzaren ikuspegi agnostikoaren biribil kopernikotarra, bere ehiztari jatorriari leialtasuna zor balio bezala. Jorge de Oteiza, xalotasun eskandalugarritzko oroimen eskandalugarri horrek, «ora pro nobis»


ORAIN ARGIA REN HARPIDEDUN EGINEZ GERCO




HAUETAKO
OPARIREN BAT
ESKURATUKO DUZU
DOHAINIK



NAPARTHEID-KOMIKIA
URTEBETEKO
HARPIDETZA DOHAIN



J O S E B A
SARRIONANDIAREN
POESIA LIBURUA
"HNUY ILLA NYHA
MAJAH YAHOO"



TAKOLO PIRRI TX
ETA PORRO TXEN
B I D E O A

KIOSKOAN BAINO
%20a MERKEAGO



Telefonoz ere egin dezakezu harpidetza zenbaki honetara deituz. 9etatik Tera eta 3retatik Zelara.

943 - 37 15 45

ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ

JOSEBA SARRIONANDIAREN POESIA LIBURUA

NAPARTHEID-KOMIKIA URTEBETEKO HARPIDETZA DOHAIN

"TAKOLO PIRRI TX ETA PORRO TX" BIDEOA

HARPIDETZA TXARTELA

☎ (943) 37 15 45

FAXA: (943) 36 10 48

IZENA _____ 1. DEITURA _____

2. DEITURA _____ TELF. _____

HELBIDEA _____ POSTA KODEA _____

HERRIA _____ HERRIALDEA _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTSAL HELBIDEA _____ SUKURTSAL ZKIA. _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA

□□□□
Entitate

□□□□
Sukurtsala

□□
K.D.

□□□□□□□□
Kontu zenbakia


ARGIA: Zirkuitu ibilbidea 15

LASARTE-ORIA 20160

HARPIDETZA SARIAK

(BEZ barne)
Hego Euskal Herria 12.100 pzta
Ipar Euskal Herria 685 libera
Espainia 12.100 pzta
Besta Atzerriak 15.750 pzta
Airez 24.850 pzta

Euskal Kulturaren URTEKARIA ere etxean jasoko duzu



ESTUDIO


ETXEZARRETA BASER
(AMASA)



B E R R I K U N T Z A

- ✓ **TXAKUN ETA LAU BEHI:**
- MERKE & ONA**
- ✓ **ZIGOR GAZKEZ**
- ✓ **EGAN: META EGINEZ**

TXAKUN & LAU BEHI



Merke & Ona



IZ DISKETXEA

**Paseo de los arbustos 2-6
20009 DONOSTIA**

Tel.: 21 90 63 / 21 75 43 Faxa: 21 93 22